



OROITZAPENAK

Piarres Larzabal

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (VII)*, Piarres Larzabal
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkarlanean, 1998.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalOroitzapenak.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

NERE AITORMENAK

1981eko uztailean gira. Buruan sartu zait behar dudala liburu bat hasi. Zertaz idatz ordea? Ezagun asko etorri zaizkit ene biziko oroitzape-nak behar nituela kondatu. Egia erran, banuke zer konda. Baina ez da errex oroitzea zer eta non gertatu den eta, zuzen, haren erraitea. Horta-kotz bertze jokamolde errexago bat hartuko dut: Gogora heldu zaizkidan bezala, batere segidarik gabe, ene biziko zenbait ixtorio salatuko ditut. Agian ez dira izanen aspergarriak bainan, batzuetan bederen, irringarriak!

Batzuek pentsa dezakete burua galdu dutala, lan honi hola lotzeko, eta zuzen dabilta, baina buru nahasiak ere behar dira, buru argien abusa-gailu. Goazen beraz buru xoro lanari!

Otoitzeko gizona

Askoren ustetan, ni antzerkigile komedialari bat naiz, oroz-gainetik. Gutik duke pentsatzen otoizlari bat izan naitekeela. Bizkitartean anitz aldiz, gauaz eta egunaz, Jainkoarekin eta haren sailduekin kurutzatzen naiz, eta luzaz goxatzen. Nere eguneroko mezari erroitik atxikia naiz, eta orain arte. Jainkoak egin daut grazia, meza horren erraiteko Zokoako elizan.

Nori otoitz egiten diotan? — Lehenik Trinitate Sainduari eta, Hirutasun horren artean, usu eskatzen diot Izpiritu Sainduari, argia eta indarra. Kasik egun guziz orai. Izpiritu Sainduaren meza bera erraiten dut, eta beti euskaraz.

Gero otoitz egiten diotet Lurdeko Amari. San Joseperi, gure Zoko-ako San Frantses Xabierri, euskaldun saildu ezagun eta ezezaguneri. Jondoni Petri ene patroinari eta Santa Teresa Lisieux-koari.

Anitz laguntza izan dut «nere» sailduenganik. Nere sinestea da, ez dutela mundu huntako nausiek erabiltzen mundua, baina bai, Jainkoak berak eta bereziki Izpiritu Sainduak.



Lurdeko Ama eta ni

Lurdeko Amari atxikia izan naiz betitik, pentsatzen baitut nehon ez dela gure Zeruko Ama, Euskal Herriitik hurbilago agertu, Lurden baino. «Lurde» eta «Soubirous» izenak, ez ote dira euskal harikoak?

1922.an, zazpi urte nituelarik, izan nintzen lehen aldikotz Lurden, gure etxen bakantzetan ziren bi emazte frantses jaunkotiarrek eramanik. Hôtel Soubirous-era joan ninduten eta hoteleko nagusia, adineko gizon bat, santa Bernadetaren anaia gazteena zela erran zuten.

Dena dela, geroztik beti jarraiki naiz Lurdeko beileri, eta santa Bernadetari. Luzaz gertatu tait, beilari joaten nintzelarik, gau osoa iragaitea hango harpean, bakartasunean eta otoitzean.

«Tenora hurbiltzen ari»

«Tenora hurbilago eta ezkila minago», dio erran zaharrak. Niri ere hori gertatzen zait: Urteak metatzen ari zaizkit eta nora noan jakin-nahia zorrozten.

Guretzat fedezko egia da, mundu hunek bere bukaera izango duela. Sineste hori gogoan egoten naiz, askotan, pentsaketa. Idatzi hau idazten hasten dut nere gogoeten argitzeko eta nere pentsamenduen berri emaiteko.

Tipitako prediku battu, hala nola aita Duhalde-ren bat, Ifernuaz, gogoan ditut eta ere elizako kantika zenbait, hala nola. «Aditzen da tron-peta lazgarria...», bainan ene aldian, apez eta egiaren erakasle bilakatzu geroz, gauzak bertzela ikusten ditut.

Adventista, Nostradamus eta sasi profeta batzuek diote laster munduaren akabantza dugula. «Hobe, hobe!... —diotet ihardesten— lasterrago bakea ukanen dugu». Aitortzen dut ez naizela batere beldur, mundua bururatzea guri (edo gu hari), ez munduaz etsitua naizelakotz, bainan gauzek hola behar dutela izan, zintzoki pentsatzen dudalakotz.

Heriotzeari buruz, asko idatzi dut, bereziki azken denbora hautan. Buru lan huntan nahi nituzke agertu nere pentsamenduen oinarri lehenak.

LEHEN OINARRIAK

Gure Jainkoak bizia egin du aldakorra

Amaren sabeletik hasi-eta, zenbat aldiz ez da aldatu nere gorputza! Eta, zenbat aldiz nere izpiritua, bere ikuspidetan! Hortakotz, nere herio-

tzea ikusten dut, jadanik iragan ditudan aldakuntza horietarik bat bezala. Bat gehiago, eta bertzerik ez.

Heriotzea da lurtiar bizitzearen bukaera.

bainan zerutiar bizitzearen hastapena

Lur huntako biziak iraupen laburra du, bainan zeruko bizitzearen iraupena da betierekoa. Hortakotz egiten da beti otoitz hilentzat.

Atzo bezala hilak baitira eta ez baita «biharrik» betiereko bizian: hor ez da pentsatzen: «Bihar zer egin behar dut?». Hortakotz, ezin dut ulertu zergatik behar diren meza batzu erran, bederatziurrenean edo urtemugan eta...

Heriotza ez da atsedena.

bainan betiereko lan-hastea

Ez da betiere hortan langabeziarik. Ez da ere laneko ordurik. Hor beti igandea da eta beti besta-eguna. Bainan lana izanen da. Jainkoaren adixkidetasunari, gure aldetik ihardokitzea.

Lur huntako bizitzea da aprendizgoa

Hortarik etortzen den ofizioiko denbora baino iraupen laburragokoa da aprendizgoa. Hor egiten da ofiziora preparatzea edo atzartzea.

Betiereco ofizioa izango dugu, gelditu gabe Jainkoa adoratzeko eta otoitzea. Ofizio hortara behar dugu oraidanik preparatu. Hil-eta berehala pasatuko dugun gure etsamina izanen da, ean lur huntako bizitzea ereman dugun Jainkoa maitatuz eta otoiztuz.

Otoitza zer den

Otoitz egitea ez da «marmar» artzea, elizan ikasi otoitzen errepikatzen. Ez du horregatik erran Jesusek, «Behar dela beti otoitz egin». Otoitz egitea da, Jainkoarekin buruz buru egoitea, Hari gure amodioa aitortuz eta Hari bere laguntza eskatuz.

Nik, soldado nintzelarik, banuen soldado lagun bat Parise ondoko komentu batekoa. Askotan kalapitan ari ginen, ez baitzituen nere urrats berak segitzen: Ni orduan joaiten nintzen J.O.C.ko langile kristauen bilkuretara. Hura ez: bazuela hoberik egiteko: bere komentuko superiorak izkribatzen ziola, otoitza zela lehen.

Behin idatzi nion ene lagunaren superiorari, ene arrangurak eginez. Berehala erantzuna ukan nuen karta batean. Karta haren lerro guziak hitz beretik hasten ziren: «Otoitza, ene adixkidea». Jaun horrek zaukan, kris-



tau batentzat, egiteko guzietarik lehena eta premiatsuena, zela otoitza. Berak idatzi liburu bat igorri zaitan. «L'âme de tout apostolat», deitzen zena. Uste dut idatzi zaitan aldia, azken aldia izan zela, zeren eta, zenbait egun geroago, hil haizten.

Geroztik, bakea eman nion fraile-gaiari. Adina etorri-eta, superior zenaren hitzak hobeki ulertzen ditut. Uste dut, otoitzeko gizona bilakatu naizela, lehen baino gehiago.

Heriotzearen ondotik otoitz eginen dugula. orai baino hobeki

Ez dugu alabaina burua betea izango munduko burrunba eta lilurez. Gure barneko mugimendu guziak izanen dira Jainkoarengatik eta Jainkoarentzat. Hala izan daitezen, behar ditugu oraidanik aprendizgoak egin. Hortakotz deusek ez du gizona zeruztatzen, fraile bizitzeak bezainbat. Bixtan da, bizitze hori balin bada, egiazko fraileak ereman behar lukeena.

Zerutik lagunduko zaituztet

Zerbait laguntza egin eta egiten badiotet gaur nere lurreko adixkideri, Jainkoak hala nahi badu eta adixkide horiek hala eskatzen badautet, nere sinestea eta esperantza da, biziki laguntza gehiagoren ahala izanen dutala bertze mundutik. Hortakotz etxekoeri errepikatzen diotet: «Ni hil ondoan, neretzat otoitz egiteaz bezainbat, oroit zaitezte niri otoitz egiteaz, nik zuek laguntzeko».

Nere aldetik, otoitz eginez zeruko saindueri, bertze hainbertze bederen egiten diotet oraino aldaretara altxatuak izan ez diren saindueri. Uste dut ofizialki saindutu gabeetan badiorela nere ezagun eta adixkide frango, eta horien laguntzaz segur izaten ahal naizela: Jainkoari egin dezaketen otoitza, neretzat duten adixkidantzaz indartua baitagoke.

Mundu hau noiz eta nola akabatuko den

Hori da Jainkoaren sekretua. Ez dakiguna da, Jainkoak akabatuko ote duen mundu hau arrabots handirekin, bere ortzi-ximixtekin eta izar-belek elkar koskatuz. Baina zorigaitz beraren sua pizteko, on da gaur, gizona bera, badituen here indar atomiko, bere bizia pozoindatzeko eta beste ahalmen guziekin.

Ez dakiguna da ere, ean Jainkoak mundu hau, dena batean akabatuko duen, ala zatika, batean izarbel bat suntsituz, bertzean bertze bat....

Jainkoaren hautua gizonak goberna dezake. gizonak berekin baitu itoitzaren indarra

Otoitzaz, gizonak urrunt dezake, edo alda, Jainkoak hartu duen erabakia. Beraz alderdi hortarik ere, nehork ez baitaki gizonen otoitzen ondorioa, ezin da finkatu munduaren azken eguna.

Jesus hil-eta piztu da

Haren idurira, eta haren nahia hori delakotz, ni ere hil-eta, pizteko naiz.

Ama Birjina, hil gabe zerurat altxatua izan da

Eta nola izanen da neretzat? Ni hil-eta, nere gorputza ustelduko da, baina nere arima zer?

Mintza gaitezen gorputz hilez

Badakit ni hil-eta, nere gorputza zatikatuko dela, zizari bazka eta errauts bilakatuko. Baina badut sineste —nahiz ez den fedezko erakaspena— nere gorputza barraiatua izanen den toki guzietan, Jainkoak, zerbait gisaz, ezagutuko dituela nere zatiak zirenak. Etorriko delarik hilen piztea, zati horiek guziak elkartuko ditu nolazpait Jainkoak, izpiritualduko, beren aitzineko nortasuna zainduz, bizimolde berri batean atzarriko eta finkatuko. Ardiak, arratsetan, beren bildotsekin, marraz, elkartzen diren bezala izanen da elkarrenganako deia eta elkarrekin arrimatzea, lehen bezala, baina arras erreberiturik.

Beharbada, gauzak ez dira batere hola gertatuko, baina bakotxari haizu zaio bere irudimena lanean ar-araztea. Nik, nere irudimenaren arabera ez dut kondatzen gertatuko denaren egia, baina gerta ditakeenaren alegia. Ez du nere alegiak egia ukatzen, bakarrik nere gisara apaintzen. Gertatuko denak zuzenduko du gure ikuspidea, makurra baldin bada eta Jainkozko neurrietan ezarriko, guk gizonezko neurrietan ezarria dukegun misterio saila.

Eta gure arima zen bilakatuko da?

Gure arimak ez du pairatzerik izanen, ez gorputzaren pisuagatik, ez eta deuseren edo nehereenganik. Jainkoarekin gozatuko du ingurumenaren ederra, denen maitasuna eta ororen jakintza. Desiratzea askiko du, amesten duena ukaiteko. Behatzea askiko, ikusiaren ikasteko. Arimak orde zerbait eskas luke bere biziko lagun gorputza gabe. Hortakotz, munduaren akabantzan, «aingeruen iduri» bilakatu gorputza eta bere lagun zuen arima, betikotz elkartuko dira.



Ez dugu beldur izaiterik betiere hortan aspertuko girela: alabaina, beti berrien ikusten eta ikasten ari dena gelditu gabe, beti erreberritzen ari den gaztea bezala da.

Nola ote da Purgatorioa?

Nahiz Purgatorioa ez den aipatzen, girstinoek sinetsi behar dituzten egia premiatsuen mailan, nik halere daukat purgatorio bat baditakeela. Bainan ez dut onartzen hura presondegi ilun bat dela, beren bekatu hon-darretarik garbitu artino arimen gaztigu-toki litekeena.

Nik uste dutana da, purgatorioetan direneri gaztigua aldatzen zaio-tela: Gu hil ondoan, alabaina, gure bekatu ondoioak —hala nola libu-ru tzar batenak— kalte egiten ari dira lur hortan, batzuetan arras luzaz. Kalte horien arabera gaztigua emendatzen, laburtzen edo luzatzen, arin-tzen edo gogortzen dela, hori zait niri zuzena. Baina gero denentzat ber-dina da, handik zerurat iragaiteko esperantza.

Ifernu bat badela sinesten dut

Bainan nere buruan asko tirabira badira, nola den ifernua eta zerga-tik den, ulertzeko. Horko sua ez dut uste su naturala dela. Herrak eta kala-pitek sortzen duten sua dela daukat, debruak pizten duena eta sustenga-tzen. Su hura betierekoa dela dio gure kristau erakaspenak, bainan nola izan behar den betiere hori, gizonak ez dezake ulert. Jainkoa «guziz ona» dela errexki onartzen dugu, bainan «nausi soberanoa» ere dela, ez hain errexki.

Betiere nola ditakeen

Batzuetan egoiten naiz gogoeta, denboraren iraupenaz. Munduko gertakarien zerrenda hartuz, ikusten dut zerrenda luze horren zurubian, Jesusen sortzetik orai artinoko denboraren iraupena hilabete batekoa ere ez dela, zerrendako hilabete guziera konparatuz. Jainkoaren egunkarietan kondatuz gure konduak laburrak dira.

Nork daki galde batzuei zer ihardets?

Medikuntzari josiak diren jendartean asko urtez bizi izan bainaiz, harrigarri da zer galdeak egin daizkidaten. Hala nola galdegiten zaidaten, nondik izan duen Ama Birjinak Jesus hauraren hazia. «Izpiritu Saindua-renganik», dio Ebanjelioak. Bainan hazi hori «egina prest» eman ote dio Izpiritu Sainduak, ala zerbait gisaz Ama Birjinaren gorputzetik moldatu?

Ihardesten nuen Ebanjelioa ez dela sartzen xehetasun horietan, aski zaikula jakitea orozbat zer den gertatu.

San Josep

Zenbat aldiz ez dut entzun ere san Josepez, batean zintzoki, bestean trufaz, nola bizi ote zen bere emaztearekin, hura hunkitu gabe.

Ene erantzuna beti izan da, zinez ez dela erretx gure buru-bihotze-tan sarraraztea gureak ez bezalakoak zirela San Josepen eta Ama Birjina-ren sentimenduak eta harremanak. Eta hori ez bakarrik gu baino Jainko-tiarragoak zirelaketz, baina Jainkoaren nahia izan delaketz, Ama Birjina Bekaturik gabe Kontzebitua izatea eta, ene ustez, San Josepek ere grazia bereziak ukaitea.

Dena dela, atxikimendu berezia izan diot beti San Josepi, sainduen mailan ikusten baitut hura dela lehena, Ama Birjinaren ondotik. Neronek, anitz aldiz ene bizian ikusi dut haren eskua eta badakit, apezlagunek erra-nik, maiz entzun dituela eta lagundu ederki.

Ororen buru, San Josepi eskatzen diot, azken hatsa emaita, haren eta Ama Birjinaren gerizan.

Noiz hilen naizen ez dakit, bainan...

Nere nahikeria litake ez sobera luzatzea mundu huntan, eta ahal bezain kargu arin izaita ene ingurukoentzat. Ahatik, gain-gainetik Jain-koaren nahia egina izan dadiela eta ez nerea!

Gogotik onart nezake ene odola ixurtzea Euskal Herriarentzat. Huntan ere Jainkoaren nahia egina izan dadiela!

Nere ametsa litake mendiko oiha edo larreki batean hiltzea, asko maite baititut larrea eta mendia.

Egun guziz meza erraiten baitut, azken mezako komunioa izan dadiela hil aitzinekoa! Halaber izan dadiela azken kofesioa!

Ez du beraz balioko hiltzera noala-eta, apez baten ondotik tarrapa-taka ibiltzea. Ez eta miriku baten ondotik.

Apezak astia badu otoitz egiteko ni hil-eta gero. Mirikua etor dadie-la ere ni hil ondotik, ehorzteko behar den legezko ageria egitera! Eta par-tikulazki, ez dezatela mirikuek burua hauts nere bizia luzatzeko, pikuraz edo bertzela.

Lerro hauek nik uste irakurtuko baitira, ni hil ondoan, uzten diotet irakurleri nere nahikundea ongi bete dutelako atsegina, edo gaizki bete dutelako dolumina.



Beharbada ene heriotzea ez da batere gertatuko nik amestu bezala. Onartzen dut eta onart dezatela ingurukoek ere den hezala: Egina izan bedi Jainkoaren nahia!

ESKERRAK JAINKOARI

Dena dela, ez dut dolurik, ereman dutan bizi: Badira gorabeherak bizi guzitan, zorioneko eta zorigaitzeko egunak. Halere, anitzek aitortu daitatena, aitor dut nik ere, zahartzaro zorionsua dutala. Ez dakit zorion hori merezitua ote dutan, baina segur naiz gozatzen dutala. Horrengatik milaka milesker erraiten diot Jainkoari.

Milesker ere nere etxekoentzat, Esteban eta Belen, aitamak, eta heien lau haurrak bihotz onekoak baitira neretzat; baitute osasun eta lan: elkar aditzen eta elkar maite baitute. Milesker, jarraikiak baitira Elizari eta igandetako mezari, askotan eskatu diotedan bezala: bai eta arratseko otoitzari.

Milesker, Jainkoaren eta gizonen aldetik ukaiten ditudan laguntza ixil eta ageri guzientzat. Milesker, nere fedearentzat, fede azkarra izan baitut eta horrek eman baitio nere biziari bere argibidea eta bere helburua. Hori gabe ez ninteke naizena, ez deus onik.

Milesker, Jainkoak, pena zenbait jasaiteko eta heiengatik ez jazartze-ko emaiten daizkidan laguntzentzat. Zergatik orain Jainkoari eskerrak zor dizkiodan aipatzeko, zerrenda luzea banuke egiteko. Hortakotz, nere eskerrak laburbilduz erraiten diot Jainkoari: «Nere Jainko ona, milesker zuri, igortzen daizkidazun on eta gaitz guzientzat! Egidazu grazia, orai bezala, bizi guzia eremaiteko zurekin eta zuretzat, eta lur hau utziko dutan-ean, betikotz bizitzeko zure zeruan!»

Gisa huntako otoitzak maiz egiten ditut: kasik otoitz putzu bat bilakatu naiz, beti Jainkoarekin harremanetan bizi naizena.

Eta hola izaiteaz nago zoriontsu, izanik ere, kausitzen dut Jainkoak gehiegi luzatzen daitala nere bizi hau. Baina hortakotz ere diot usu Jainkoari: «Egin bedi zure nahia eta ez nere nahikeria!»

Horra nere barnearen berri. Gaurkoan hortan naiz, ez baitakit noiz artio. Nere bizi badoa ximpleki, deus bertzelakatzeko, deus nahasteko gogorik gabe. Hitz batez erraiteko, mundu huntako harremanak izaiteko nahikeriak agortuak ditut.

BIZIAREN ERAKASPENAK

Askok eginen duke bere baitan, gatzik gabea, eta hila dela nere bizi. Baina orai arte ereman izan dutan bizian, iragan izan naiz gatazken eta borroken erdian eta hortik atera ditudan erakaspenak hauek dira: Ez dela gu baino goragokoen jelos izan behar. So egin dezagun beti gu baino apalagoerik! Heienganik ikasiko dugu apaltasuna: pentsatuko ere beharbada, lagundu behar ditugula, eta nola lagundu. Ez dugu ikasiko handikeria.

Ez dugu ordea ikasi behar bakarrik, dugun gutiaz kontentatzen, baina bai pobrezia maitatzen eta aberasteaz beldur izaiten; sakelaz aberastea, baita gehienetan bihotzez pobretzea. Frangotan ikusi ditut aberastu berriak pobreen erdeinatzen eta zapaltzen ari. Eskasia handiegia eta sobrezia handiegia dira berdin galgarri gizonarentzat.

Hortakotz, ni hil ondoan, nere ondoko bihi batek ez du niganik ardit bat eskuratuko, ez baitut deusik nehorri uzteko. Dutan ontasun bakarra da, hiru metro karreko lurra: nere hilobikoa.

Egia erran, asko diru pasa da ene eskuetarik, elizaren eta apeztexearen eraikitzeo baizik ez bazen ere. Memento txar asko iragan badut ere, nere zorrik ezin ordainduz, azkenean ez dut nehorri zorrik uzten. Ez dut sekulan senditu aberatsagoen jelsiarik. Izanik ere maiz otoitz egin dut aberatsentzat, ez dezaten beren aberastasunengatik zerua gal.

Superior xaharrak errana

Ez dut sekulan ahantzi Seminarioko gure superior zenaren predikua: «Apez bati, bere kristauek oro barkatzen diozkate, erraiten zaikun gure xaharrak, apez horrek izan ditzakeen ahuleziak, edariarentzat edo emazteentzat, baina ez izan dadin “oro bil”, berekoi, zikoitz horietarik». Hori bera erakatsi dait neroni biziak. Apezak jakin behar du, oroz gainetik, ez bere burua zerbitzatuz ongi bizitzen, baina denentzat bihotz oneko eta esku zabal agertzen.

Apez bakoitxak baditu bere ikuspide eta jokamolde bereziak, bai eta bere itzalak; bere ingurumenari edo mutil zahar bizitzari zor diozkanak. Baliteke liburu baten egitekoa, apez ixorio irrikingarri horiekin, baina ez nuke nere izkribuekin nehorri mindu nahi; are gutiago apezik edo heien zerbitzari merezimenduz beterik. Ez dakit halere zergatik gure herriarrek «apez gobernantak» deitzen dituzten apez neskatok.



«Apez gobernantak»

Lehenago bere neskatoa bazuen erretor bakotxak. Gehienetan, haren ahaide bat edo adineko presuna ohoragarri bat izaten zen. Bainan gaur egun erretor bakotxak apailatu behar du bere bizmoldea, ahal bezala, ostatuan edo apez elkarte batean. Arras guti da, ni bezala, familia batean bizi denik.

Gure kasua ezagutzen dutenek aitortzen dute zorionean bizi girela eta nik suerte ona dutala. Egia diote, eta maiz eskatzen diot Jainkoari, orai bezala laguntz nezala hil artio. Ez nago bizkitartean pentsatu gabe zer egin daitaken bertze apez zaharren bizimoldea hobetzeko.

Otoitzeko gizonak

Beti gauza bera errepikatzea aspergarri bada ere, daukat otoitza dela gizonen laguntzarik baitezpadakoena. Behin baino gehiagotan pentsatu dut, nerone beneditano sartzea; ez batere mundu huni ihes egiteko, bainan hobeki otoitz egiteko.

Aitortuko dut bizkitartean, igorri nindutelarik Seminario handitik, apeztu aitzineko azken urtean, Orzaizeko eskolara eskolemaile, hango erretorak, Chorhy apezak, ez zaitala Beneditanoetan sartzeko gogo handirik eman.

Egia erran, urte hartako ortziraile saildu egunez, beretzat eta nerezat erabaki zuen erretorak, egun hura iraganen ginuela biok, deus edan eta jan gabe. Goizeko hamarrak irian igorri ninduen ere bizikletan. Bai-gorriko apezetxera, olio sakratuen ketara, biharamunek elizkizunentzat.

Baigorriara hel-eta, goseak hila bainindagon, erran nion hango apezari, nola arin nindabilen. Erretor nagusiak gaitzetsi zuen Chorhy-ren egitate eta jatera eman zaitan. Etixerakoan ez nion deus salatu Orzaizeko erretorari eta, arrats hartan, honek goresmenak eman zaizkidan, egun guziko barura jasan nuelakotz zinkurinarik gabe.

Ez da harritzeko maiz erraiten baitzaitan gure erretorak beneditano-etara sartuko zela eta lehengo diziplina zaharrak berriz onarraraziko zituela. Bainan gero jakin nuen, Chorhy izatez Beloken sartu zela, bainan komentuko lagunek ez ziotela lekuri egin beren artean, bortitzegia omen baitzen gizona, beretzat bezala, bertzeentzat ere.

Dena den, nerone ez naiz behinere beneditanoetan sartu, gostatzen baitzitzaitan nere buruari uko egitea eta erreglamendu baten menpe bizitzea. Nahiago izan dut beneditanoek bezala otoitzean ariz, beneditano bakarkari libre izatea: denboraz ermitak bizi ziren bezala, komentu bati loturik, edo gaur heren ordenakoak bizi diren bezala.

Alta tikitan, apez egin behar nuela aipatzen hasi nintzelarik, gure etxera etorri zen aita Gracy, Belokeko abadea, sortzez Azkaindarra eta gure auzokoa. Proposatu zaitan Beloken sartzea, bainan Debidart gure erretorak nahiago izan zuen ni Hazparnera joaitea. Hala gertatu zen. Zer den haatik bizia! Aspalditik gelditu naiz halere eta, Jainkoak nahi badu, hilen naiz Beneditanoer atxikia.

Zergatik ez misionest?

Zergatik bada ez nintzen ere misionest sartu? Soldado denboran anitz misionest ezagutu ditut Parisen, eta lagundu. Geroztik, beti azkar eta bizi ukan dut, nere gogo bihotzetan, misioen eta misionesten aldeko atxikimendua: Frantses Xabierrekoa hautatu nuen Zokoako patrointzat, euskalduna eta misionesta zelakotz, eta Chinan egona zen Larrart apezpi-kuak kontsekratu zuen gure eliza.

Misionest baten oroitzapen berezia ere banuke aipatzeko: aita Partarrieu, Afrikan egona zen hazpandar apezaren oroitzapena. Apez hori sor-gin beltzek pozoinaturik eritu zen eta hiltzeko itzuli sorterrira. Bikari nintzelarik maiz joaiten nintzaion ikustera, bainan ortzegun goiz batez, etxe-koek berek deitu ninduten.

Apezaren ama, emazte ttipi bat zen, dotzenatsu bat haur ukanak zituena. Berak erran zaitan, irriz, hirugarren haurra ukan zuelarik, miri-kuak abisatu zuena ez zezan gehiago haurrik egin, nahi bazuen bere bizia salbatu. Nik ezagutu nuelarik laurogei urte eta gehiago bazituen, hainber-tze haur ukanik bertzalde.

Azken egun hartan, haren semearen ohe ondoan ari ginelarik otoit-zean, kolpez, begiak ikaran, oihuka hasi zen eria: «Ama, ama! Debru bat, debru bat ikusten dut!». Nik ez dakit zer ikusten zuen egiazki, bainan haren ikarak nere ikara jauzarazi zuen eta ur benedikatu eta otoitzez entseatu nintzen han izan zitekeen izpiritu gaixtoaren haizatzan.

Apur baten ondotik, hiru aldiz ikara bera, oihu-orro berekin, ikusi eta entzun ginuen. Azkenean, aurpegia arras goxatu-eta, aingeru baten parekoa bilakatu zitzaion begitarte eta, besoak altxaturik, ezteki kantatuz, ikusten balu bezala, erran zuen: «Ama, ama! Ikusten dut Ama Birjinal!». Eta, Lurdeko «Ave» kantatuz, hil zen aita misionest gaztea.

Ez dut erranen gaixok ikusten zuena egia zela, edo bakarrik ametsa, bainan gertatu zaitana kondatzen dut, den bezala. Ez naiz ekarria sineskeria erretetara, bainan aitortu behar dut gertakari horrek luzaz inar-rosi ninduela, eta geroztik badutala, gehiago, Satanen beldurra eta Ama Birjinaren amodioa.



Ene kofesioak

Bertze askok bezala, izan ditut nik ere nere itzalak eta hutsak. Kon-dutzen banitu, San Agustinen gisala, «Nere kofesioak», banuke zer erran. Bizkitartean bi laguntza izan ditut beti, tentamendutan ez erortzeko: lehe-nik Ama Birjinaren laguntza; bigarrenetik kofesatzeko sakramendua.

Orai ere jarraitzen naiz kofesioari, baina erran behar dut, nahia-go dutala lehengo kofesatzeko moldea baino, azken denboretan aitorme-nik gabe deneri batean emaiten den absoluzioea.

Adinarengatik edo, orai aski nuke dizko batean ene bekatuak behin aitortzea eta gero beti dizko hura bera errepikatzea. Hortakotz bekatuen aitormenari baino garrantzi gehiago emaiten diot kofesatzean egin otoi-tzari. Eta nere kofesatzeko otoitzak, bekatu eginez damutzeakoak baino askoz gehiago dira Jainkoari buruz maitasunezkoak, adorazionezkoak eta esker onezkoak. Horrengatik bi aldi baditu ene kofesioak: lehena eta luzeena da egunaz eta maiz gauaz irauten duen adorazionezko eta esker onezko otoitza. Bigarrena eta laburrena da, absoluzioea ukan aitzin egi-ten dutan aitormena. Nere gisara kofesatzen naiz orai. Horrek baketzen da it bihotza.

AZALA ETA MAMIA

Uztail hortan, Donibaneko auzapezak debekatu omen du, neskak eta emazteak itsas-ertzean mainatzea bularrak agerian.

Eta hortik sortu da eztabaida asko gure jendartean. Oroitzen naiz ordea lehen ere izan dela eztabaida frango hemen gaindi artean. Bertzal-de, uste dut ez dela apezzen egitekoa legeen erabakitzea, baina herri-gizo-nen eginkizuna. Apezek girstinoeri oroitarazi behar diotena da, gizonar-en jokamoldean badela beti azala, ager dena eta azal haren azpian bade-la mamia, Jainkoak ikus eta juja dezakeena.

Bularrak agerian mainatzea, hori azala da. Mamia aldiz, ean, jendar-teak hori onartzen duenez bere ohituretan eta gero, zer diren mainatza-leen arrazoiak hola egiteko.

Gazte nintzelarik, sekulako bataila erabili zuten apez batzuek, gal-tzerdi luzeekin eta mantalinekin ibilarazteko elizan emazte guziak. Semi-narioan berriz, ohean sartzen ginen ahal nolaka, estalgien azpian galtzak

kenduz eta gero Biarritzera joaiten ginelarik itsasoan zangoen bustitzera, irringarri ere baginen gure sotanak gerriraino altxatzen genituela.

Geroztik, gauza asko aldatu dira. Eta orai erran nezake, aldatu behar ez dena dela jendeak beti bere buruari eta ingurumenari zor dion erres-petua. Errespetu hori atxikitzeke baldintzak finka ditzala eta zainaraz Donibaneko auzapezak! Eta gero herria bera mintza dadiela, baina ape-zak ez daitezela sar, berenak ez diren egitekoetan!

Eta gauza bera erran nezake ebanjelioa aski hurbiletik hunkitzen duten gai batzuetan, hala nola «haurren bakantzetako pilula»-ren arazoan. Mintza gaiten argi eta fermu arras gure diren erabaki bideetan, zuhurki oroitzu badela, garaiazen arabera, erakaspen berezi batzuen emaiteko beharra eta presa, baina badirela ere prediku batzu, ez baitute girstino-ek sendi halako garrantzirik baduketela. Horietaz garaiez kanpo minbera-ki mintzatzea da, behargabeko arrabotsa egitea.

Gai premiatsuak

Ebanjelioa beti bizi da, eta elizaren bidez mintzo. Aipa ditzagun bada usuago elizaren gutun premiatsuak. Iduri luke, asko apezek, beldu-rraz edo beren gustukoak ez izanez, ez dituztela sekulan aipatu nahi beren predikuetan. Adibidez, noiz entzun da Euskal Herriko elizetan predika-tzen, zer dioten gaurko elizak populu tipien eskubidez eta eginbidez; zer den elizaren erakaspena nagusi-langilen arteko harremanez, edo estaden arteko indar jokoez. Badira anitz solasgai, girstino guzien aho-mihitan dabilzanak, eta maiz predikuetan baztertzen ohi direnak.

Gogoan dut, anitz aldiz Baionako apezpikuari galdeginik, katoliko-n bilkuretan iker zadien, zein diren auzoko nazioen eta elizaren bera-ren eginbideak. Euskal Herriaren eta euskararen aldera. Ez dut ardietsi, orai arte, auzi horren argitzea elizaren argian. Bertze gauza frango banu-ke erraiteko, nola apezak eta girstinoak izan diren batzuetan Euskal Herrian Herriaren zapaltzaile, edo zapaltzaileen esku-makil, berekin zituztela ez bakarrik apezpikuak, baina Erromako eliza bera. Oroit gai-ten hortaz, ez erortzeko makurbide beretan!

Hortakotz, galdetu daitelarik zergatik idazten nuen hainbertze euskaraz eta ez frantsesez, ihardetsi dut mila aldiz euskarak baduela gehiago laguntzaileen beharra, frantsesak baino.

Azken apezpikua izendatu zutelarik, Baionako 89 apez euskaldunek idatzi ginuen Erromara, euskara zekien apezpiku bat igor zezaten hona. Baina Erromak ez gintuen entzun. Beti beha gaude. Gero eta gehiago ikusten da alabaina, apezpikua doala maizegi prefetaren edo gobernua-



ren ondotik, haren xakurra bezala. Orai izanen dugularik gure departamendua, ea, horren ondotik izanen ote dugun gure diosesi bat, osoki euskalduna, paper eta guzi, litekeen eraikidurarekin.

Ezen aspaldikoa da elizak eskatu zuela, misione lekuetan ezar zitzaizten lekuko buruzagiak. Holako zerbait egin da lehen koloniak ziren tokietan. Noiz arte egonen ote gira gu lehengo kolonien maila berean?

Eskutitz harrigarria

Gure sailaren alegeratzeko, kondatuko dut orai bere gisako apezkeria bat.

Duela zenbait urte, eskutitz bat ukan nuen Baionako katedraleko kalonje batek igorriarik. Makinaz idatzia zen. Apez horrek abisatzen ninduen, beldur zela ez ote nuen apezgoa utziko, eta kontseilatzen zaitan bereziki apez bilkurarik ez hutsegitea.

Bulta bat gogoeta egon nintzen, zergatik ote izaiten nuen gutun hori: Ez zen delako apeza behin ere izan nere kofessorra eta ez zekien nere biziaren berri handirik. Gero jakin nuen, garai hartan espainol egunkari eta irratiek ziotela nitaz, axola guti nuela apezgoaz eta leporaino ETaren borrokan sartua nintzela. Orduan sumatu nuen nundik zetorren kalonjeari nere sailatzaren kezka. Bat ere ez nion erantzunik eman. Letra hura atxikia baitut halere nere paperetan, ez dira harrituko hor hatzemaenen dutenak.

FEDEA ETA KONTRABANDOA

Aspaldi du, ere gogoetak eginak ditudala, gure fedea zer duen ikuskerorik kontrabandarekin: Jada hortaz predikatu nuen seminario handian nintzelarik. Bertze edozein euskaldunek bezainbat banekien kontrabanda zer zen eta ene ikuspideak ez ziren alegiazkoak bainan egiazkoak, biziak irakatsiak.

Ene sortetxea eta haur-haurrekua, biak alabaina muga hegian ziren. Usu kontrabandistak gure etxetik iragaiten ziren. Hor lo egiten zuten eta beren kontrabanda ere hor gordetzen.

Gure zakurren saingetarik baginakien gure atetik iragaiten zirenak kontrabandistak ote ziren, ala guardak. Gure familiako beharrak hartaturik gure aita zenak kontrabanda egin izan du bere bizi guzian. Ez du

behin ere guardarik hil edo nahitara kolpatu, bainan askotan da haiekin borrokatu.

Gure etxea izan da maiz guardaz inguratua eta miatua. Behin segurik, ene bi kusinek gure etxetik ihes eginik joan hebar izan zuten Ameriketara.

Zizkiritzeko kurutzeta

Larrun hegian Zizkiritzen bada aspaldiko norbaiten harrizko gurutze bat: nere osaba zen hor hil zutena. Nere anaia bat ere mugazainek hil zuten. Ene arreba guardek hartua atxikirik kontrabandista batekin ezkondu zen.

Tipi-ttipitik gure familiako guziak kontrabandan ohituak izan gira. Ni ere bai, nola gauaz, hala egunaz. Ez ginen hortarik bizi ginen bakarrak. Gure inguruko familia gehienetan, gure etxean bezala, egiten zuten kontrabanda eta ezagutzen zituzten kontrabandak dauzkan fedezko legeak, bai eta gobernuko legeak. Gutartean bizi ziren apezek ere ezagutzen eta ezagutarazten zizkiguten lege horiek.

Gure aita nola ezkondu zen

Gure etxean betitik denak izan gira kontrabandistak, plazerrez baino gehiago beharrez. Ezkontzeko bezperan, gure aita joan zen ikertzera ean libre ote ziren kontrabandako bideak. Gau hartan zaldi multzo bat zuten Espainiatik hona ekartzen.

Gure aita sartu zen beraz Azkainen Saskoeneko bordara, gau ilunez. Han zagozin guarda batzuek galdegin zioten zer ari zen han tenore hartan. Erran zuen eskas zuela ume minez zagon ardi bat, miaka zabilela ez ote zen borda hartan.

Handik atera orduko entzun zituen urrunera kontrabandako pottoken arrabotsak eta joan zen lasterka lagunen abisatzera. Bainan biharamuneko gomituak baitzituen kafea hartzera bordan aurkitu guardak, hauek ez zitzaizkon batere agertu.

Nere arrebarena

Igande goiz batez ene arreba joana zen mendira, urteko bildots ketarra. Han zagolarik hurbildu zitzaizkon ongi ezagutzen zituen auzoko mutil batzu, kontrabandatik heldu zirenak. Hona non orduan agertzen zaioten guarda xuberotar gazte bat. Delako kontrabandista haietarik baten arreba zuen guardak emaztegaia. Kontrabandistak ikustean gelditu nahi izan zituen, bainan haiek ihes egin zioten eta orduan ene arreba zuen bakarrik



hartu. Nahi zion aitor-arazi kontrabandista horiek nor ziren, nahiz berak arras ontsa bazekien. Bainan bere emaztegiaren anaia nihondik ere ez salatu nahi.

Ene arrebak baitzioen ez zituela gizon horiek ezagutzen, guardak ereman zuen aduanarat eta han berriz galdezkatu. Debaldetan izan zen eta azkenean libre utzi zuten.

Osaba Prontxioren oilarra

Azkaingo Martinenean bizi zen ene osaba Prontxio. Ttikitan biziki maite nuen zenbait egunentzat Martinenera joatea. Eta zergatik? — Han zuten oilarrarengatik: Osaba Prontxiok ez zuen ez muntrarik ez ordularirik. Goizetan denen iratzartzaile zuten etxeko oilarra. Halako oilar txar bat oraino oilaskotik atera gabea. Goizeko argia sentitzen zueneko, hasten zen ezin ixilduzko kukurrukuak botatzen. Denak iratzartzen baigintuen, nik izigarri maite nituen erdi-oilar horren kantu ta moldeak. Martinenera joatean ene lehen arrangura zen ean oilarra beti bizi zuten.

Noizbait, osaba Prontxio kontrabandan hatxemanik, preso sartu zuten. Geroztik arras tristatu omen zen oilarra. Bainan ere geroago Prontxioren semea, Anton guarda sartu zen. Hortaz oraino izango zituen oilarrak gehiago tristatzeko arrazoinak.

Pottokak tiroz hil

Kontrabandisten lege bat balin bada sekulan ez haien salatzea, berte lege bat bada ere, norbaiti kentzen badiote bere kontrabanda, hura gero aduanak enkantean ematen duelarik, galtzaleak duela bakarrik, eta berte nehorik ez, haren erosteko dretxo.

Bainan hori ez bide zakien, ene haurrean, Olhetan bahitu potokak enkantean erosi zituen nonbaiteko gizonak. Etxera zoalarik bere potokekin tiroz hil ziozkaten. Nehorik ez baitzuen jakin nor zen hiltzalea.

Milaka badira horrelako ixtorioak, batzu salatuak bertze batzu betikotz gordeak. ETari buruz liburu bat egiten ari zela Christian Rudel «La Croix» kazetako kazetaria, muga aldeko gertakari horietarik zenbait kondatu dizkiogu.

Teologo Handiak

Baina duela zenbait urte Donibane Lohizune eskualdeko apez multzo bat ez ginen guti haserretu, «La Vie Catholique» deitu Pariseko aste-kariak, kontrabandoari buruz, atera zuen artikulu batengatik.

Ihardetsi genien horgo teologo handi horiei, ez ginuela konprenitzen nola, Euskal Herriko teologoei hitzartu gabe, mintza zitezkeen gure Herriaren mugetako gorabeheraz eta nola Parisetik erabaki zezaketen kontrabandista euskaldunek kontzientzia kargatzen zutela, kontrabandoa egiten zuten aldi oroz.

Gure teologia

Gure ustez alabaina, kontrabandoa ez da Jainkoaren kontra altxatzea, Haren lege batzu hautsiz. Gizon lege batzuen kontrako egintza bat baizik ez da kontrabandoa, eta ez Jainkoaren legeen kontrakoa. Gure muga hori, egin izan den bezala, euskal populua zatitzen duela, hori bai dela Jainkoaren kontrako legea! Euskaldun gaixo batzuk beren familien hazteketan kontrabandoko arriskueta sartzera behartzea, hori bai dela Jainkoaren kontrako eginkizuna!

Kontrabandistak baditu, edozein gizonek bezala bere eginbideak, bai Jainkoari buruz, bai gizonari buruz. Bere kontrabandoko gorabeheretan, alde batetik maita eta errespetatzea beti lagun hurbila duen gizona, eta bertzetik maita eta errespetatzea beti bere nausia duen Jainkoa. Uste dut horiek erranez geroz teologo batek eman dezakeen erakaspen guziak emanak direla.

Kontrabandista bakotxari dagokio jukatzea bi puntu horiek nola bete behar dituen: hala nola berari tokatuko baitzaio gero, Jainkoaren auzitegia, erantzuna ematea.

Jainkoak bakarrik baitaki bertzalde zein diren gizonen xede egiazkoak. Jainkoak bakarrik erran dezake gure xedeak xuxenak diren ala makurrak. Teologoaren eginbidea da soil-soilik predikatzea gizonen jokabideak izan daitezen xede zuzenekoak: zein eta non diren bide zuzenak edo makurrak, xehetasun guzietan sartu gabe. Ez dezagun gizona erabil haur mukizu bat bezala!

Gizonen hautuak

Gizon denaz geroz, gizonak berak egin ditzala bere hautuak! Teologoaren erranek baino hobeki lagunduko dute bere lagun onak erakutsi jokatibideak; ezen gure kontrabandistek badituzte aspaldian beren gizontasunetik eta kristautasunetik ikasi jokatibideak. Ohidura zahar horiek baino gida seguragorik ez dute nehon aurkituko, horien erroak finkatuak baitira gizon eta kristau sustraian.



Hala nola, behar orduetan elkar laguntzeko gisan, legeztatuak ez diren kofradia tipi batzu badituzte beren artean, kontrabandistek: laborariek, arrantzalek edo ihiztariek dituzten bezala.

Ixileko legeak

Badituzte ere beren ixileko legeak. Mugazainek bahitu dioten edozein gauzaz edo kabalaz berjabetzeko eskubidea badu kontrabandistak. Edo oraino, mugazainek gelditu duten kontrabandistak badaki, ixilik egon behar duela gisa guziz, bere lagunak salatu gabe sekula. Eta lege horiek argi dezakete kontrabandista ixtorio frango.

Bainan orohar, iduritzen zait, gaur egun behar ginukeela lege-gizon gutiago eta apez-artzain gehiago.

HAURREKO OROITZAPENAK

SARAKO BESTAK

Sarako bestez oroitzean lehenik dakitana da, arbia ereiteko sasoiari gertatzen direla, hots buruilean, zeren eta urte guziz joaiten ginen besta horietara, bainan aita etzaukun ematen hara joaiteko baimenik, arbia erein artio. Joaiten ginelarik egun guziko zen: goizean ikusten ginuen luzeko partida eta arratsaldean esku-huskakoa.

Orduan ikusten ginuen ere, mugaz bertzaldetik etorririk, jende asko, bereziki Etxalarretik eta Zugarramurditik. Batzu heldu ziren zortzi egunez besta egitera. Gehienek gauaz lastoan lo egiten zuten. Beren galtzarrik seinale ziren, zeren eta igandetakoen ez funditzeko, galtza urdin zabal batzu ezartzen baitzituzten gainetik. Gaitzeko giro alegera ematen zion jende horrek Sarako asteari.

Eta litaniak

Guretzat bazen bertzerik ere, Gu ibiltzen ginen auzotegian, besta arratsetan afaritera joaiten ginen, «litaniak» kantatuz. «Litania» horiek ordea guziz bereziak ziren. Denek batean ematen ginion kantuari hastapena, kantatuz elkarrekin: «Handikan joan nintzen aintzinat, aintzinat!...»

Eta kartiereko gizon mozkortzale batek egiten zuen xantregoa, kantatuz segidan. Zer ikusten baitzuen eta arabera kantatzen zuen. Hala nola emazte lodi baten etxe aitzinean iragaitean botatzen zuen: «Han ikusi nuen saski pотор bat errapeko atso lodi bat!», «Konkordia» izeneko etxean iragaitean berriz kantatzen zuen: «Han ikusi nuen Konkordiako astoa buztan azpian lanpa piztua!».

Ikusten denez gure «litaniak» ez ziren mistikoak, bainan guk horiek genituen biziki maite.

ZUGARRAMURDIKO BESTAK

Abuztuaren 15ean, Andre Marietan ospatzen dira Zugarramurdiko bestak. Orduan egiten baitute ere, Leizea deitu harpean, beren zikiro jatea. Ni mutiko kozkorra nintzelarik besta horietako meza nagusian ger-



tatu nintzen. Meza ederra, koraleko kantariekin. Oroitzen naiz meza hartan eskaini zaukutela, Azkainen egiten ez zen bezala, jateko ogi benedikatua. Bertzeri behatuz zeinatu ondoan jan nuen nik ere ogi puska tipi bat. Bainan lanak izan nituen mezaren bururaino segitzen.

Herriko lagun batekin jarri ginen galerietan, karabinero batzu gintuela gure aitzinean bakotxa bere puinalarekin saihtetsean. Haietarik bat zen bereziki ohargarria, sudur gorri alimale bat zuela begitartean, dena kalitxaz jara. Eta meza ari zelarik karabinero hura hasi zen uzkerka eta pokerka, aitzinetik abisatuz inguramena, erranez gora gora: «Bapores, bapores!». Hastapenean ene laguna eta ni harritu ginen eta ixilik egon. Gero beretikari baitzen karabineroa, guri irria nagusitu zitzaikun, bainan orduan gure gizona kexatu eta bieri manatu lekuak husteko.

Kanpora joan ginen beraz irriz artzeko gostura eta ez berriz elizara itzuli. Bainan luzaz oroitu gira, bat ala bertzea, azkaindar bi lagunak Zugarramurdiko meza nagusiaz.

AZKAINGO KOFESIOAK

Haurra nintzelarik erakatsia zaukuten elizan behar bezala kofesatzen. Hala nola juramentuak, biraoak edo sakreak hitzez-hitz errepikatu gabe aitortu behar ziren. Erraten ginuen: «Mihi zikina izan dut, honenbertze aldiz erranez “Al...” edo “Pu...” edo “Ko...” hitz itsusiak».

Hameka urte nituelarik Komunione Handia egin nuen eta aita Frank Hazparneko misionesta etorri zitzaikun predikari. Oroit naiz, kofesioan galdegiten zuela ean lohikeriarik egin ginuen, eta nik ez bainion deus ihardesten. kofesategitik kanpora igorri ninduen, erranez hobeki presta nendin kofesatu aitzin.

Kanpora orduko aurkitu nuen Petan, ene komunionekeko laguna, gure adinekoetan atrebituena eta mandrinena. Laster argitu ninduen zer zen lohikeria: «Aski duk neska bati arropak altxatzea, hori duk lohikeria. Egi-zak hori eta joan hadi apezari erratera eta bakea izanen duk».

Petan gure kapitainak kontseilatu bezala, mintzatu nintzen, berriz kofesatzera joanik eta, bai kofesorra eta bai ni, kontentik gelditu ginen.

Azkaingo sakristian

Hauxe neronek ikusia dut Azkaingo sakristian: bi apez, elkarri lepotik loturik, kolpeka ari, Debidart Azkaingo erretora eta Castet apeza, Errota-Berrian bizi zena.

Castet horrek fama zuen —egia edo gezurra— beretzat atxiki zituela elizaren ontasun batzu, 1905ean gobernuak ebats ez zitzaiz, eliztiar batzuen izenean emanak izan zirenetarik. Dena dela, Castetek gaina hartua ziolakotz Azkaingo erretor zaharrari, Gieure apezpikuak, Debidart apez azkar eta gogorra igorri zuen Coure herrirat, erretor berri bezala, honi gomendatuz bere zedarrietan atxikitzea Castet apeza.

Laster ohartu ginen Debidartek eta Castetek ez zutela harreman onik. Igande batez erretoraren prediku denboran, alegia loakartu zen Castet, gu mutiko tipien zaintzale ginuelarik. Burua kuluskan zerabilela ohar-turik, mutiko guziak irriz hasi ginen. Orduan jaun erretora haserreturik, predikatzetik ixildu zen eta eskola libreko andereari manatu zion goratik: «Apez hori ez denaz geroz on haur mukizu horien zaintzeko, zoaz zu horren ordeaz, Andere errientsa!».

Orduko legeen arabera apez berak ez baitzitu en egun berean bi meza ematen ahal, erretorak zazpietako meza eta Castetek meza nagusia, emateko ohitura zen. Bainan ondoko igande batez, meza nagusiko tenorea baino ordu bat lehenago Castet sakristiarat sartu baitzen eta meza jantzien jantzen hasi, Debidart etorri zitzaion, ea norat zoan horrela abian, galdezka. «Meza ematera!» zion bertzeak ihardetsi, trufa aire batekin.

«Ha baia! —errefera eman erretorak— Gaur ez duk mezarik hemen emanen! Ez haiz nitaz trufatuko! Ken-atzik jantzi horiek!». Eta lepotik harturik tinkaldi bat eman zion, eskutik aurtikitzen ziozkala kalitza eta gaineratikoak. «Jakín ezak Debidartekin dukala orai auzia, eta ez aintzineko erretor ahularekin!». Laster-laster Castetek lekuak hustu zituen.

Erran behar da, 1905eko oroitzapen txarrak zirela eta, Azkaindar guti zuela bere alde Castet apezak. Zenbait urteren buruan hil zen. Azken sakramenduen emateko deitu zuten Bellevue Donibaneke apez-nausia.

Argelies apeza

Beste apez bat ere ezagutu dut Azkainen, Argelies apeza. Sortzez Ziburutarra zen eta Ziburun hil izan da, 1960 inguruan. Etxe oneko seme zen eta ontasunak bazituen Ziburun, Donibanen eta Azkainen. Gorpuzteaz gizon ederra eta azkarra, pilotari ona izana zen. Apezte-eta Donapaulen egon zen bikari eta gero Mehainen erretor. Baina bere gisakoa bai-



tzen eta aski bihurria, laster Ziburura erretirarazi zuten. Han bere gain ikastorduak emaiten zituen, eskoletan zabiltsan gazte batzueri. Baina kofesatzeko eta predikatzeko baimena kendua zion apezpikuak.

Zurrunmuru asko bazebilen bertzalde haren gain. Hala nola, Amikuze aldean apez gazte zelarik, motor bat erosi omen zuen eta hura erabiltzeko baimena hartu, lehenetarik. Donapaulako jandarma-buruzagiak ordea, arras begietan zuen eta bide horietan maiz geldiarazten, lasterregi zoalakotz. Baina halako batez, gure bikariak aurkitu zuen jandarma-burua bera, bizikleta eskuan, bide bazterrean gelditua.

Bizikletariak tresnaren arrastak hautsiak zituela ikusirik, apezak berak proposatu zion, bere motorrari soka batez lotzea, hiri nagusiraino heltzeko. Baina Donapaulera heltzearekin, gelditzeko orde, merkatu eguna izanki, bere motor burrunbarekin, su pindarretan, merkatuaren erdian sartu zen bikaria, jandarma-burua gorri belztua bazeramala, sokatik loturik. Irri ederrik egin zuten Amikuztarrek. Bainan ez ziokeen ertzainak aise barkatu apezari.

Geroxago berriz, Ziburun gaindi, emaztekari fama bildu zuen Argelies-ek. Ez dut uste horrelakorik bazen, baina itxurak bere kontra zituen. Ezen auto bat baitzuen, gauza arraroa orduan, gertatzen zitzaion emazte kazkarota batzu, Ziburutik Ibardineko Benttetara, erosketen egitera, beribilez eremaitea.

Etixerakoan, Herburuko guardek ongi ezagutzen baitzuten, maiz beribila geldiarazten zuten eta beti galde bera egiten jabeari: «Zer daramazu sotana handi horren azpian gorderik?». Eta bertzeak beti errepusta bera omen: «Ez hori hunkil... emazte haukientzat baita!...»

Debidart erretora

Sortzez Senpertarra zen, Debidart gure erretora, pilotaria izana, besoz eta bozez azkarra. Oloruen egona zen erakasle, gaztetan, eta ondolik, Hazparneko misionestegian predikari. Politikaz erregezale amorratua zen eta bere alderdiko politikari lagun anitz bazituen. Ezin zuen jasan «La Marseillaise», errepublikazaleen «kantu paganoa». Behin baino gehiagotan kofesatu izan naiz harekin, kantu tzar hori kantatu nuela aitortuz.

Bera halakoa zelakotz, asko ixtorio izan zuen erretor zelarik: Behin Uxaeneko atean zagolarik, bi mutil arrotzek trufatu zuten, belearen karranka eginez. Berehala lurretik harri kozkor bat hartu eta mutil bat kolpatu zuen.

Bertze behin, adinaren aldetik bi egun eskas zituen mutiko bati komunione handia ez zion eman eta horren amarekin hizkatu, ondoko

igandean prediku alkitik bota zuen: «Ez da bada ene falta haur horrek bi egun eskas baldin baditu. Aski zuen bi egun lehenago sortzea!».

Bozetako denboran ere, bere burua sobera erakutsirik, zenbait liskar eta ernegu izan zituen.

Dena den, ni apeztu aitzin hil zen. Ziburun. Lerenbururen klinikan. Azken hatsetan zelarik deitu ninduten Seminariotik, haren ondora. Rekalde apez, Ziburuko erretora, «Xalapart» deitzen zutena, etorri zitzaion ikustera: apez torropilo, tipi bat zen, gaitzeko bozarekin. Beti oroituko naiz nola boza altxatuz erran zion ene erretorari: «Debidart! Hiltzera ho! Errak kontrizionezko akta! Ematen daiat absoluzioa!». Bertzerik gabe, hil zen Debidart, nik maite nuen erretora.

AZKAINGO POLITIKA

Ene haurrean, «Action Française», Frantziako erregetiarren mugimendua sustengatzen zuten katoliko anitzek; eta izen bereko egunkaria hartzen zuen apez askok. Gure erretora ere horietarik baitzen, haren agurtzera etortzen ziren bakantzetan Charles Maurras, Léon Daudet eta mugimenduaren gidari nagusi zenbait. Neronek horrela ezagutu nituen.

Bainan Pio XI. aita saindua gogorki jazarri zitzaion «katixima» berri horri. Gogoan dut, igande batez, Donibaneko elizan, entzun nuela Irigoien jaun bikaria, aita sainduaren kondena irakurtzen: «Action Française» delako kazetaren harpidedunek ez zutela izanen ez absoluzionerik ez komunioerik ez elizako ehorzketarik.

Donibandar zenbait gaztigupean erori ziren. Euskal Herriko apezik ordea ez dut ezagutu, Erromako eliza arbuia duenik horrengatik. Gure erretorak ere harpidetza utzi zuen, nahiz, badakit egunkariaren zenbaki bat edo beste irakurtzen zuela aste guziz, bere ustez, kontzientzia gehiegi kargatu gabe.

Karlistekin

Mugaldeko jendeak aspaldian izan ditu harremanak Hegoaldeko politikarekin eta politikariekin. Hazparnen ezagutu nuen Mirande erretor Ziberotarra: Guarda seme izanez Dantxarian sortua baitzen, honek askotan kondatu daut nola haurrean, 1874ean, ikusi zituen Karlistak beren Peñaplatako azken bataila galdu-eta. Ainhoara ihesi etortzen.



Neronek ez dut Santakrutz apeza ezagutu, baina ene ama Lesakarra baitzen, harekin ibili soldado frango ikusi ditut eta beren balentriak kon-datzen entzun. Apez gerlari famatuaren makila ere eskutan ukan dut.

1930eko hamarkadan, Espainian errepublika jartzearekin, eta 36eko gerla piztu aitzin, Azkaine Haranederrean zerbitzari zelarik ene arreba, hotel horretan egonaldi luzeak egiten zituen Jaime Bourbon eta Parma-koak, Karlisten erregegaia, Maria Bragantza-koa bere emaztearekin eta beren segida guziarekin.

Heiekin biltzen ziren bertzalde Karlista buruzagi handiak. Espainia-ko errepublika uzkaile beharrez eta Italiatik armak erosiz beren bataila prestatzen ari zutela jakin ginuen. Gehiago oraino, haren mezaren entzuterat baitzoan egun oroz Jaime erregegaia, jaun erretorak salatu zaitan, bazituela printzeak bere zalantzak eta kontzientziako arrangurak.

Segeretu horiek aipatu omen ziozkan Azkaingo apezak Baionako apezpikuari, bainan honek gomendatu zion artoski, ez zedin neholaz ere sar saltsa horietan. Geroago ordea, gertatuak gertatu eta ikusiak ikusi, kezkatu zen gure erretora, bera ez aski garbi mintzaturik Karlisten buruzagiari, gerlabidetarik urrun zedin, ordu zeno.

Udatiarrekin

Beste jende motarik ere ikusi dut ordea. Azkainen ene gazte denboran, hala nola, udatiarren artean maiz etortzen zitzaigun Angleterrako erregegaia, Gales-eko printzea, erregetu orduko emazte dibortziatu batez maitemindurik, erregetzari uko egin ziona. Asko maite zuen bere panpinen erdian, apez eta apezgai sotanaduneri beha egoitea, pilotan ari ginelarik Azkaingo plazan.

Bertze udatiar batzu berriz Bordeletik heldu ziren gure herrira. Ez zitzaion agrada gure erretorari ni heiekin adiskidetzeari: «demokratak» baitziren François Mauriac frantses idazle famatua eta haren familia; hots, haren emazte eta hurrez bertzalde, haren bi anaiak: bata Pierre, mediku handia, politika gaitan François-ren ideietarik biziki urrun zebilana eta, anaiak ez bezala, Pétain, Laval eta eskuinaren alde agertuko zena; bertzea apeza eta egiptologo jakintsua, baina Andrieux Bordeleko kardinalearekin gaizki heltzen zena, eta azkenean, bere buruaz beste egin zuena.

Azkainen egon zen uda hartan, oroitzen naiz nola Mauriac apezak erran zaitan idazki batzu bazituela, notario bati utzi nahi zizkionak, bera hil-eta, 50 urteen buruan bakarrik, agertu behar zirenak. Bainan ez dut geroztik paper horien berririk izan nehondik.

Irakasle eta ikasle

Une haietan ikasketak egin nituen lehenik Hazparden eta gero Uzta-ritzeko apezgaitegian. Hor nuen ezagutu, bertzeak bertze, Piarres Lafitte, ene Euskaltzaindiko sarrera hitzaldian aipatu dudana bezala.

Baxoarekin despetu nuen Uztaritzeko denboraldia, azterketak egiteko ikasle lagunekin Bordelera eginez oroitzeko itzulia. Han aurkitu genituen alabaina Uztaritzeko ikasle ohi zenbait, eta bereziki Michel Diharce, «Pintxin» Donibandarra. Michel Diharce hori, Ganix Diharce «Iratzeder»-en anaia gehiena zen, gero, 1940eko gerlan hil beharra.

Orduan unibertsitatean zebilen eta aski ezaguna zen lagunen artean: irakasle bati egin zion jukutria txar bat, frango garesti ordaindu zuena. Ez zuena bada egunkarietan jakinarazi delako irakaslea hila zela eta hola-ko egunean ehortziko zutela? Pentsatzeko da zen eskandala sortu zuen gezur horrek. Hobenduna auzitara deitua izan zen eta gaitzatua.

Ez baitzen halere lotsakorra, gure Michel, Bordelen izan ginelarik ikusi ginuen oraino. Bordeleko ferien kariatara, manifestaldi baten muntatzen ari, «Quinconces»-etako plazan, ikasle lagunekin. Deus ordaindu gabe ferietan sartzeko baimena zuen eskatzen, deiadarka, Donibandarra gazteak, «gaixo aita familiako errumesentzat».



SOLDADOGOA PARISEN

ERIZAINGOA

Soldado joan nintzen Parisera 1933an, soldadogoa aitzinaturik. Hara joan aitzin egona nintzen, ostatueta zerbitzan, zenbait sasoinen, Donibane Lohizunen. Pentsatua nuen, soldadogoaren ondotik hautatuko nuela, ean behar nuen apeztu edo ez. Eta soldadogoak ninduen arras finkatu apezteko xedetan. Izpiritu Sainduaren bideak ez dira beti guk uste ditugunak.

Jende askoren begietan, ez dut alabaina soldadogoan ikasi ahal izan zer den sainduen garbitasuna: Erizain izendatu nindutelarik, espezialdu nintzen gaitz benere artatzaile. Gaitz horrek hunkiak, soldadoak ziren lehenik, baina ere gero heiek kutsatzen zituzten emazteak. Geroztik, lan berean ari izan naiz gerlatokietan. Alemaniako preso-lekuetan, bai eta ere Zokoan berean.

Erranen dut bada, hainbeste emazte bilutsik ikusteak, ez nauela nere apez xedeetan azkartu baizik. Ez da alabaina gauza bera, norbait biluzia ikustea, hartaz lizunki gozatzeko, eta hura bera biluzia ikustea, eginbidez eta haren artatzeko.

Ikusiak ikusi

Ikusiak ikusi, nere pentsamenduak, ororen buru, hauexek dira: 1-ik, Benere gaitzengatik hainbeste gaixo zauritu eta usaindu ikusteak, betiko beldurra sartzen dautzula. 2-ik, Zikinkeria horiek Euskal Herrian sartze-
ra eta hedatzera ez uzteko, eginahalak egiteko xede azkarra hartzen duzula.

Orduan ikasi dut bertzalde, ez bakarrik gorputz erien artatzen, baina ere gorputz horien barneko arimen hobeki ezagutzen, errespetatzen, soleitzen eta sendatzen. Hortakotz, demendrenko dudarik ez dut orai, erizaingoa hori izan dela ofizio on bat, nere argitzeko, gizon eta apez urratsetan indartzeko.

Ez dut erraiten deneri gauza bera kontseilatzen dudala, baina aitortu behar dut, lan hori izan dela neretzat hobegarri eta saindugarri. Nahi duenak, bertzerik pentsa dezake, baina nere ikuspide berdina izanene dute, hurbildik ezagutu ditudan hainbertze mediku eta sendagilek.

Entzutez badakit, badirela medikuak, beren ofizioaz baliatzen direnak, lizunkeria edo dirua egiteko, jende aberatsa «deitziz», erraiten den bezala, baina nik ez dut ezagutu gisa hortako medikurik.

Ezagutu ditut ahatik emazteak, entseatu direnak medikuen edo erizainen enganatzen eta batzuetan, beren xedeetara ezin helduz, ari izan direnak, erran eta erranka, holako medikua edo erizaina ez zela «seriosa». Gisa hortako erranez beti mesfidatzen naiz. Zuhurtzia daukat, nehoren ez erdeinatzea ez belzte.

Bertzalde, norbaitek nahi badu apez egin edo serora sartu, behar du aitzinetik frogatu, ean on izanen den ezkondu gabe egoiteko. Hori frog dezake bekatuan erori gabe, hala nola norbaitek frogatuko baitu suaren indarra, bere burua surat aurtiki gabe.

Alargunentzat, Jondoni Paulok dio, hobe dutela ezkondu, ezen ez ezkontzeko tirriarekin erre. Nik ere gauza bera erran nezake apez edo serora egin gogo dutenentzat: Hobe dutela ezkondu, ezen ez bizia higatu amets lizunetan.

Bertze gauza bat erran nezake oraino, lizunkeria tabakoa bezala dela: Pipari batek nahi baldin badu tabakoa utzi, arras utz dezala eta betikotz. Ez dadiela ar tabakoarekin jostetan, har-uzka. Hola hasten bada, tabakoa erretzeko gogoa zaio nausituko. Edaria, tabakoa eta lizunkeria dira hiru ahulezia; heien zepoan erortzen denaren zorigaitza handia da.

Bainan ikusten dut orok dazkiten moralkerietara erortzen ari naizela. Horrengatik kondatuko ditut lekuko izan naizen zenbait ixtorio. Pari-se aldean neroni gertatu zaizkitanak.

Haur hila amaren sabelean

Behin, etorri zen gure medikuaren ikustera, neska gazte, hezur eta larru zen bat. Gertatu zitzaiona kondatu zuen. Mutiko batek ezarria zuen haur esperantxetan eta proposatu zion ilortze bat egitea. Ba omen zakien nola egin, arriskurik gabe. Neskak onartu eta mutikoak sartu zion burdin-hari makodun bat, haurraren kanpora ateratzeko. Ez zuen haurra hil baizik. Hortakotz neskaxa etorria zen, doietarik bizi.

Artatzearekin erran nion ez gehiago sekulan onartzeko horrelakorik, ez eta bere burua eskaintzeko nolanahika edozein mutili. Gehiago erraiten ahal niola badakit, baina ordukotz, gauza xoil horien konprenitza aski zukeen.

Nahi duka haur bat egin?

Banuen soldado lagun bat, Champagne-koa. Gau gehienez bazoan bere emaztearekin gaua pasatzera, ganbera alokatu batera. Behin gomita-



tu ninduen afaltzera bere lagunarekin. Ontsa afaldu ginuen eta gero mintzatu zitzaizkitan biak deplauki: «Sobera xanpaina edanik, erran zaitan gizonak, galdu diat haur ukaiteko ahala. Hortaz sofritzen diaguk, bai nik, bai nere andreak. Beraz, ene andreari emana zioiat baimena bertze gizon batengana joaiteko eta harekin haur bat ukaiteko. Ez nitek ahatik nahi nornahirekin egin dezan haur hori. Errana zioiat, gogotik onar nezakeela hirekin egin baleza».

Horra nolakoa zen tratua. Ihardetsi nion, bertze xehetasunetan sartu gabe, haren emaztea laketa zitzaiala, baina bazutela oraino denbora, berek haur baten manatzeko.

Senar-emazteak mokoka

Bertze behin, sarjentu betroin bat jin zitzaikun mirikuaren kontsultara, erranez: «Ezkundu-eta luzaz nere emazteak ez zuen haurrik nahi, eta orai, denbora joan ondoan, otoizka ari zait, haur bat hari egiteko. Mokka ari izan gira, zergatik orai eskatzen duena, ez zuen lehenago nahi».

Ixtorio hau askotan kondatu diotet, ezkontzera zoazin gazteei, ez zezaten pentsa elkar adituko zutela beren lehen haurra manatzeko, gero, noizbait, lehenik ezkontzaz ongi baliatu ondoan.

Lege berriak Frantzian

Urte hartan (1934) benereo gaitzak ari ziren azkarki hedatzen Frantzian. Gaitz horien kutsutik zaintzeko, lege berri batzu egin zituen gobernuak: Beren lan lizunetik bizi zirenek behar zuten mediku ageri bat erakutsi, kutsurik ez zutela frogatzeko. Horra zergatik, erizain gisa, joan behar izan nuen, hilabete behin bederen, emagalduen etxetara, mediku batekin, delako agerien prestatzeko.

Etxe horien jabeak ziren, gehienetan, lehenago berak emagaldutako ibili izanak. Horiekin harremanetan ziren emagaldutako, polizia eta medikuek, behar zuten ixilean beren lana bete, ez balin bazuten bertzenaz, mende-ko garrantzik jasan nahi.

Bertze asko lege ere bazen, haurtasunaren gerizatzeko edo bortxaketarik ez izaiteko, baina jende horiek, lege guzien gainetik pasatzen ziren. Eta, nik dakidala, ez dira gauzak geroztik hobetuz joan, makurtu baizik. Orain alabaina, lehen ez bezala, badira haurrik ez ukaiteko pilulak, ilortzeko operazioak eta bertze. Lege horien ondorioa da, usuenik, azkarrena dela ahulenaz baliatzen. Pairatzen dutenak aldez, haurrak dira, emazteak eta adineko presunak.

Edozein gisaz, eritartatzaleen lana da, bakarrik artatzea. Legelarien lana aldez, legea egitea. Hortakotz ez naiz atrebituko erraitera zer lege egin behar den, makurbide guzien zuzentzeko. Ez dut uste bertzalde, legeen bidez soilik baden makur handi guzien zuzentzerik. Nik diodana da, Jainkoaren legeari jarraikiz baizik ez dugula mundu hau hobetuko, eta legegai guzientzat behar litakeela Jainko legea hartu zimendu.

Presondegiak

«Cherche-Midi» deitzen zuten Pariseko presondegi nagusia, izen bereko karrikan aurkitzen zelako orduan, nahiz baziren horri loturik bertze bi etxe ere, Parise inguruan, Romainville eta Noisy-le-Sec hirietan.

Lehen aldian, han izan nintzelarik presoner baten laguntzeko, erran behar dut guziz basaki hartu gintuztela. Geroztik, erizain bezala, frangotatik ibili naiz presondegi horietan eta aski ongi ezagutu dut horko bizimoldea. Maizenik preso horien hobenak funts handirik gabekoak dira. Hala nola, nik lehen aldian lagundu nuenaren hobena zen, ostatu batean, «L'Internationale», komunisten kantua, kantatu izana.

Preso sartzen dituzteneri kentzen diozkate, sartzean berean, mozteko, hausteko edo beren buruen urkatzeko erabil dezaketeko guziak: oinetako lokarri, lepoko, sakelako kanibet eta bertze. Gutxi janetz eta egunean hiru orduz, ongi zaindurik, kanpoan ibiliz, aurpegi horia dute eta kalapio handirik ez. Egiaz gaztigu garrantza, beren huts tipientzat. Geroztik, ikasi dut haatik, badela maiz holakorik... eta bertze presondegi gogorragorik.

«Rue du Bac»

Soldado denboran usu ibili naiz, «rue du Bac» deitu karrikako «Arrotz Herrietako Misionesten Seminarioan». Horko kozinaria, Anna Azkaindarra zen alabaina, Idiart Mixel eta Roger, bi anaia apezzen izeba.

Hor zen bizi ere Larregain apezpikua. Senpertia, luzaz Chinan egon izanagatik euskara ahantzi ez zuena, eta Euskal Herrian euskaraz predikatzen entzuna zuena. Bai eta, de Guebriant, misionest apezpiku bretoina, xaharturik erretiratua. Hil zelarik, lagundu nuen beztitzan eta gau batez neronek beilatu.

Etxe hortako buruzagia, aita «Destombes» baitzen, harekin kofesatzen nintzen. Misionestegia bera ere zinez maite nuen eta askotan gogoratzen zitzaidan, ni haur hori gelditzea. Chinak tiratzen ninduen bereziki. Baina amets hori laster agortu zen nere baitan.

«Salle Gaveau»

«Salle Gaveau» musikategiko nagusi bat, Azkainera etortzen baitzen bakantzetan, aski ongi ezagutzen nuen. Halakoaldi batez, gomitatutako nin-



duen eta, etorri beharra zen, «Aga Khan». Indietako printzeak huts eginik, haren alkan jarrazazi. Beethovenen 6. sinfonia eman zuten, nahiz aitortzen dudana loakartu nintzela, artetik, eta inguruko azken txaloeke nindutela iratzarri.

Gero, «Enbaxadoreen Hoteleraino» ereman ninduten afaltzera eta han, portzelanazko baxeretan jan ginuen, bedera zerbitzari zegokigula bakotxari hurbiletik; kafe turkoa deitzen den edari lodisko batekin bururatu zen gure apairu arraroa.

Alta, ez dut ahantzi bertze behin, «Saint Lazare» garako ondoan aurkitzen den «Terminus» hotelean gertatua: Zer gela mota nahi nuen galdetu zaidaten sartzean, «garnitua» ala «garnitu gabea», nik «garnitua» nahi nuela, durduzatu gabe, ihardetsi nuen. Bainan gero, ez nintzen guti harritu, neska beltzaren pollit bat nere gelara etorri zitzaizkidan. Ohean bakarrik aski nintzela jakitearekin, erretiratu zen neska eta biharamunean, irri ederrik egin zuten lagunek, ixtorioa kondatu niotelarik.

«Folies Bergères»

Azkainen ezagutu jaun andere berek ereman ninduten bertze aldi batez, «Folies Bergères»-ko antzoki jostagarriara. Lehenik, Pariseko gure jaun deputatuez trufatzeko, eskaini zaukuten «Palais Bourbon»-en urde, «Balai Bourbon» edo «Borbondarren Erratza», deitu dantza. Horren ondotik dantzatu zuten «La Mort du Cygne» baleta ezaguna.

Ondoko egunetan gonbidatu ninduten oraino bertze antzoki batzuetara, eta erran behar dut atsegin izan nuela, asko maite bainuen teatro jokoa. Bainan Pariseko mundukeriek ez ninduten behin ere hainbat liluratu.

Parise inguruan

Garai hartan, komunistak nagusi ziren Parise inguruetan eta herriko etxe batzuetan frantses banderaren orde zabaldua zuten beren bandera gorria. Baziren ordea giristinoak lo ez zaudenak, eta J.O.C.-ko langile gazte kristauak bereziki, ildo berriarabiatuak ziren. Izan nituen harremanak Clichy-ko taldearekin eta heien apez kontseilariarekin.

Komunistek baitzuten beren «katixima» berezia, laketa nuen artetan heien bilkuretan ibiltzea. Oroit naiz haatik, behin nere lagun Senegaldar beltz eder batekin biltzar batetara joanik, gaizki atera ginela. Bakotxak bere ideiak agertzeko mementoan, nik erran nuen Blum sozialistarenganik hurbilago nintzela, komunistenganik baino. Nere lagun beltzak aldiz, atera zuen Ama Birjinaren aldekoa zela bera.

Gure «katixima egileak» orduan ihardetsi zaitan, bai ulertzen zuela, ni hain gaztea izanez, Blum-en alde agertzea, «Blum» hitza, alemanez «Lorea» baita, bainan loreen adina iragaitzarekin eta heldutasunera heldutzearekin, ongi ulertuko nuen, komunistek dioten bezala, munduko kargudun eta kapitalista dirudunak direla jabetzen lurreko lore eta gozo guziez, jende xehe eta xumeak oro larrutuz.

Senegaldarrari buruz aldiz, erran zuen, berak ere aita bizardun batenganik ikasia zuela haurrean, Ama Birjinak zuela. Izpiritu Sainduak manaturik, Jesus sortu. Bainan aspaldian bazter utzia omen zuen uste hori. Bazekien orain, neska galdu bat besterik ez zela Ama Birjina. Hori entzutearekin erotu zen Senegaldarra, eta muturreko bat eman zion komunistari. Ahal bezala bereizi genituen kolpekariak eta, zalu, handik lekuak hustu.

Bertze lanik ere egin izan dut soldadogoan. Parise alde hortan: Ospitaleetik kanpo, erizain bezala, gertatu zait anbulantziarekin joatea, zaurituen artatzeko, polizarekilako borrokak izan ziren lekura, hala nola, 1934eko otsailaren 6ean, Parisen berean eta Bobigny aldean, «Croix de Feu» deitu taldeek piztu zalaparten karietara.

Asko ikusirik eta zerbait ikasirik, apezteko xedearekin itzuli nintzen beraz horrela, Parisetik Euskal Herrira, Baionako Seminaria.



GERLAKO OROITZAPENAK

APEZ BERRI

1939an apeztu nintzen eta berehala izendatu ninduten Hazparneko bikario, Mirande erretoaren laguntzaile. Hor egin behar nuen esperientzia berri bat, erreto berri batekin, 11 urtez.

Miranden lehen kontseiluak izan ziren, erraiteko behar nuela jendeari erakatsi apezaren errespetua; hortakotz, ez zela pollit Hazparneko karriketan ibiltzea, besoak balizaz kargaturik. Autobusetik jaustean, beharko nituen ene kargak utzi eliza-aitzineko botikarioaren baitan, eta gero norbait igorri heien bila.

Baitziren oraino Hazparnen jende ikasigabe asko, ez zakitenak xutitzen, beren jarlekua eskaintzeko, autobusa hartzera heldu zen apezari, holakorik ez zadien gerta, katiximako haur bat behar nuen aitzinetik igorri, ene jarlekuaren begiratzera, nihaur heltzen nintzeneko.

Geroxeago ere, lehengo mendeetako kontseilu anitz eman zizkidan jaun erretoarak: Emazteri —ez familiakoeri ere— ez da musurik emaiten, jendeen aitzinean. Ez da sakristiara sartu behar, elizako serora bakarrik han dagoeno. Ez da emazten eskurik hunkitzen, eskuan eskularrurik izan gabe. Handizki ohoratu behar dira herriko buruzagiak. Horrela, urtatskari, apez xapela buruan eta jantzi ederretan, jaun erretoara lagundu behar nuen, lehenik jaun auzapeza, eta gero herriko etxe zahar eta ezagunen jabeak agurtzerakoan. Etxe horietako nagusi-etxeakoanderek bazuten bertalde, apezekilako mintzaira berezia: ez zautzuten erranen: «Agur jaun apezal», bainan: «Zerbitzari, jaun apezal».

Ez dut erraite beharrik jaun erretoaren aholku horiek ahanzteko astia izan nuela. Hazparnera etorri bezain laster joan behar izan nuela kotoz, urrun, gerlatokietara.

FRANTZIAKO GERLA

49. erreximenduarekin egin izan dut, hastetik bururaino, Frantziako gerla. Aitzindariak eskaturik, frantsesez idatzi ditut liburu batean orduan guri gertatu gertakariak. Liburu hori prestatu nion Guillaume Eppherre Baionako apezari. Zorigaitzez, apez hori hil zen eta ez dut jakin egundai-

no zer bilakatu zen liburua. Dena dela, aldi honetan aipatuko ditut bakarrik, nola izan zen guretzat, gerla horren hastea eta bururatzea.

Gerla hasi baino lehentxeago, miriku eta erizainak deitu gintuzten, Baionako nesken lizeora eta hor ari izan ginen, etortzen zaizkigun soldadoen ikuskatzen. Ohartu nintzen soldadogai gehienek, salbu jadanik eza-gunak ziren Frantses porrokatu bakan batzuek, ez zutela arrangura handirik, herriaren zortez.

Sekulako mediku paperekin heldu ziren anitzak, han edo hemen min zutelako estakuru emanez, gerlara ez joaiteko. Batzuetan, nerekin lanean ari zen Bordeleko miriku batek erraiten zioten bereri, kexaturik: «Hobe da gaizki direnak gerlan hil daitezen, ongi direnak baino!».

Gure lana Baionan bururatu-eta, ereman gintuzten treinez. Alsazia-ko Saverne-raino. Handik, oinez jo ginuen Lorrenara buruz, mugazain zegoen Bitche-ko herrira.

Alemaniko mugan

Leku hartako etxe guziak jendez hustuak ziren, eta abere handi ala tipiak libratuak baitzituzten, nonahi bazabiltzan. Bakotxak har zezakeen gustukoa zuena, eta ebatsiaren eramaiteko ahala zutenak, ederki baliatu ziren.

Otoitzeko liburu bat izan zen, apezetxe batean egin nuen ohointza: ene lapurketa bakarra. Oroit naiz halere, behi bat deitzi nuela, bide bazter batean, haren esnea edateko. Nere soldado lagun batzuek egin zuten ase ederrik, urde batzu sangratuz.

Gau batez ordea, Maginot deitu harresi famatuaren haraindira iraganarazi gintuzten, eta entzun genituen lehen kanoi ukaldiak.

Lehen hila

Laster izan ginuen ere gutarteko lehen hila: Biarnes gazte bat zen, obus batek xintxfrikatu zuena. Han berean ehortzi ginuen, haren izena barnean zeukan botoila bat lurrean sarturik, buruz behera.

Hilaren sakelan aurkitu nuen emaztegaiaren eskutitz bat. Harenganik haur beharretan gelditu zela erraiten zion, eta haurrari bere aitaren izena emaitako baimena galdatzen. Lagunekin hitzarturik, eske bat egin ginuen, gure hilaren emaztegaiarentzat, eta honi neronek izkiriatu nion, bere senargaiaren ehortz-lekuko argazkia igorritz.

«Corps Francs», gudari bereziekin

Kapitain bat baginuen, Henri Arbeletche, euskalduna eta Baionesa, biziki estimatzen ginuena. Hark kontseilaturik, sartu nintzen «corps



francs» deitu gudari berezien taldean. Gure aitzindaria Baionesa zen, Nadal lotinanta. Gure lana, Alemanen artera sartzea, noiztenka, ixil-ixila, eta handik preso bat edo bertze biltzea, gero hura mintzarazteko.

Etsai-arteko itzulua egiterakoan, gure erreximenduko marka guziak kentzen genituen, sakelak husten, harma bereziak hartzen, eta elurte balin bazen, mihise zuri batez burua estaltzen. Kafea baginuen ausarki, eta alkohol bortitzenetik, nahi bezainbat. Kasu eginez ibiltzen ginen, oiha-nean barna, etsaiak nonahi jartzen zituelakotz minak lurpean, eta grenadak zuhaitz adarretan, hunki orduko zapartatzen zirenak.

Doietarik eskapatu nintzen behin: Igandea zen eta, Alemanek iragaiteko ohidura omen zuten erreka batean barna, etsai ihizin ginabiltzan soldado multzo bat. Erne-ernea ginaudelarik, Alemanak tiroka hasi zitzaizkigun, malda gainetik. Behereko erreka ihesi sarturik, laster egin ginuen, ez Frantziara buruz, baina Alemaniako aldera, eta horrek salbatu gintuen.

Gibelerakoan ordea, aurkitu ginuen gure lagun baten gorputza, erdi errea. Grenada ukaldika jaukitu zukeen etsaiak; gerrian zeraman grenada zapartatu zitzaion eta berari su lotu. Gure laguna mutil eder bat zen, ofizioz kozinaria, Blois hirikoa.

Bertze behin, lagun multzo tipi bat joana zen, gau beltzean, etsaiari buruz, ikerka. Ordena emana zitzaioten, ez itzultzeko gibelera bide bereetik, baina saihetsetik. Zer zen gertatu, nola ziren gure lagunak errebelatu? Ez dugu jakin, ez jakinen sekula. Dena dela, gure postari buruz, zuzenean, sartu nahi izan zutelarik, ustez Alemanak ziren, guhaurek tirokatu genituen. Horra nola hil ginuen Mixel Ausquy, Arnegitar apezgaia, ene Seminarioko adiskidea. Holako kasu frango gertatu da, zorigaitzez, gerla hortan, bertze guzietan bezala, nik uste.

Ingurune beretsuan, aldiz, Lauter ibaiaren bazterrean, mugazain zegoen goiz batez bertze lagun bat, Harambillet apezka, Ahurtiko erreto beharra. Bat batean, agertu zitzaion aitzinera, Aleman soldado multzo bat. Lehen tiroan, bi soldado hil zituen eta bertzeek ihesari eman zuten. Gero, niri tokatu zitzaion bi hilen arropen bila joatea, aitzindari frantsesek manatu bezala.

Orohar, gure lana zen, noiz eta ere ikusiko baiginuen Alemanen tankak oldartzen zirela Ekialdeko Maginot harresiari, gure gibleko buruzagien abisatzea berehala eta guhaur harresiaren gerizan sartzea lehenbailehen.

Bainan, halako batez, berria jalgi zen, egiaz, Alemanen tankak hurtultzen ari zirela. Gerizara joan behar dela entzun orduko, frantses solda-

do guziak, abaila handian, badoaz gibelera buruz, zeinlehenka. Hori ikustean, Soulier, gure komandante zaharra, orroaz hasten da, pistola eskuan, soldadoak mehatxatuz, denak garbituko dituela. Debaldetan.

Hainbertzenarekin, lasterka gibelera doan soldado bat, erortzen da gure ondoan, intzirika eta ai-ei-ka, bere etendura atera zaiola. Beharrik, hor naiz ni, erizaina: zabalean etzanik emaiten dut soldadoa eta, jateko olioarekin torratuz, bere etendura barnera sartzen diot, ahal bezala. Zer den haatik izialdura!

Norbegiarateko apailuak

Alemaniko mugan ginaudelarik bada, etorri zitzaikun berria. Norbegiarat igortzen zutela gure erreximendu guzia: Mendi-leku omen baita Norbegia, mendian ohitu gizonak behar ziren harat bidali. Araberako tresnak behar baigenituen, motorren orde ukan genituen mandoak.

Laborari semea izanik, banuen kabalen ohidura, bainan ez mandoe-na. Gainera, gure zortzi mandoetarik batzuk Poitou-koak ziren, aski handiak, bertzeak Algeriatik etorriak eta tiki-tikiak; batzuek arrantza egiten zuten, astoek bezala eta bertzek irrintzi, zaldiek bezala; denek zuhaitzak larrutzen zituzten, heien azala janez; gauaz, zuhaitz onborrak zakuz gerizatu behar genituen, bainan goizekotzat, maiz gure mandoak, beren sokak trenkatutik, ihesi joanak ziren. Sekulako denbora galtzen ginuen, heiek berriz ezin bilduz.

Eta bertzalde, mandoa baino abere buru gogorragorik ez duzu munduan. Batzuetan, kakoletak bizkarrean, ihalozkatuz, desegiten zituzten lotura guziak. Bertzeetan, ez genezakeen ardiets, urrats bat aitzina edo gibela egin zezaten, buztan azpitik su emanik ere. Bainan, gure mandoak ezin heziz ari ginelarik, jakin ginuen Alemanak sartzen ari zirela Frantziako lurretan eta gure Norbegiara igortzeari, buruzagiek uko egina zutela. Orai hasten omen zen «mugimenduzko gerla».

MUGIMENDUZKO GERLA

Alemanek beren oldarra hasi zutenetik, ez bakarrik beren tankekin bainan beren airekoekin ere, arratoina zepoan bezala harrapatuak ginen, ez jakinez gure zilotik nola atera, ez nora jalgi.



Bero izigarria baitzen bertzalde, egarriarekin, bidegaineko xai handi batean sartu ziren gure gizonak, arnoz asetzeko. Hori ikusi-ta, Pambrun apez komandanteak tiroz zilatu zituen, eta hustu, sotoko upel guziak.

Ondoko herrian berriz, etsaiak hasi zitzaizkigun tiroka, eliza dorretik, eta hor galdu genituen zenbait lagun, bereziki Itsasuar bat, Elissetche izenekoa.

Han berean, guhaurek inguratu ginuen Aleman multzo bat eta hura tirokatu. Aleman heietarik bat kolpatua baitzen, haren artatzen hasi nintzen eta artetik erran nion, alemanez, apeza nintzela: absuluzioea nahi bazuen, zer gerta ere. Bertzeak kanpoan zituen alabaina, gizagaizoak. Bainan harek ihardetsi zaitan, frantses garbienean: «Trufatzen nauk hire otoi-tzez, egizak hire lana, bertzerik ez».

Galdetu nion ean frantsesa zen eta harek baietz bai, baina deserta-tua zuela, ez zuelakotz deus ikustekorik nahi, «frantses ustelenganik». Solas horiek entzutearekin, hurbildu zitzaion frantses axuant bat eta, bertzerik gabe, artatzen ari nintzen kolpatuari tiro bat eman zion buruan, erranez: «Ez dik horrek bertze artarik merezi, tiro bat baiziki!». Nik, hila-ren muinak eskuetan ukan nituen.

Handik jo ginuen Contrexéville-ko herrirat.

Contrexéville

Eliza aitzinean aurkitu nuen Labat, nere apez laguna. Doi-doia elkar agurtu ginuen. Ezen, laster. etsaiaren airekoak buru gainean genituen: haien lurreko lagunak jaukitzen gintuztela, izigarriko oihuak eginez, eta gaza lano ilun batzu aurtikiz.

Han hil zen Lekuona, Senpereko apezgaia, izen bereko apezaren anaia. Han berean, altxatu genituen, Duluc, Baionako komandantea, zango-hezura obus puska batek hautsirik, eta Babayuy, nere apez laguna. Hau, bala batek aurpegi betean joa zuen. Azken orenean zela uste ukanez, oliodura eman nion, eta «Bertze munduan ikusi arte!» erranik, despeitu nuen. Geroztik, operazio parrasta bat badu pairaturik, baina bizi da oraino.

Contrexéville-ko herri hortan, gure bi medikuak, ospitalera sartuak ziren, kolpaturik. Eriez arta hartzeko, erizain bakar gelditzen nintzen, zenbait angailariren laguntzarekin. Kolpatuen biltzeko leku baten bila nindoalarik, Herriko-etxeko sotoa begiztatu nuen, baina hara heltzearekin, haurrez eta ematzez betea zela ikusi nuen. Deneri jakinarazi nioten, bihotzean zimiko batekin, behar zutela denek handik jalgi, soldado kolpatueri lekua uzteko. Eta denek, ixil-ixila, sinetsi ninduten.

Hasi nintzen beraz soldado kolpatuen horra eremaiten eta hor artatzen. Duluc komandanteak nahi baitzuen kofesatu, erran nion apur bat pazientzia har zezan. Baina ihardetsi zaitan, haren bekatuak denenak zirela, eta denen aitzinean gora-gora kofesatu zen.

Zenbait orduz toki berean egon baiginen, beti gogoan ditut hango intzirin eta oihuak. Azkenean, noizbait, beribil batzu bildu genituen eta Saint-Dié, auzo hiriko ospitalera despeitu genituen gure kolpatuak.

Saint-Dié

Sekulan ez dut ahantziko, hiri hortako gain batetarik ikusi nuen ikusgarria. Beheraxago, xara tipi batean bildurik zauden soldado frantses batzu, beren zaldi eta karrosekin, noiz eta ere hurbiltzen baitzaioite, eta itzulika hasten, aleman aireko bombardier handi bat. Honek gainera botatzen diote bortz ehun kiloko bomba bat, sekulako arrabotsa egiten duena eta izigarriko kea eta oihu marruma altxatzen.

Apur batez, ez zen deus ageri izan, baina gauzak argitu zirelarik, ez nintzen guti harritu, ikustearekin bonbaren sugarrek zuhaitz guziak larrutu zituztela eta beren hostoetarik biluzi. Berehala, hurbildu nintzen: gizon, zaldi eta karrosa guziak xintxfrikatuak ziren, gorputz puskek, han edo hemen, zuhaitz gainetan zintzilik. Nonbaitik agertu zitzaion gizon bat, larrugorritan. Bonbaren haizeak zuen biluzia, eta ni ikustearekin, ihesi joan zen, burua galdurik.

Urruntxeago, atzeman nuen ni ezagutzen ninduen lotinant bat. Erran zaitan, nahi zuela nerekin kofesatu, eta gero, bere burua tiroz garbitu, Alemanen eskuetara eror beldur baitzen. Baina nik erasiatu nuen, kalte baino atsegin gehiago eginen ziola etsaiari, berak lan hori egiten bazuen. Itxuraz sinetsi ninduen eta bertze biderik hartu zuen.

Saint-Dié-ko hiri hortan, buruz-buru egin nuen ere, Inazio Dupe-rou, aspaldiko Urruñar ezagunarekin. Ez zezaten Alemanek preso har, asmatua zuen, apendizita presatu baten aitzakiarekin, ospitalean sartzea. Nahiko zuen, nik ageri bat egitea, baina ez bainintzen ni miriku, ez nuen nik hortan deus egiterik. Aurkitu ginuen beharrik ihesi zebilen sendagile poloniar bat eta, ahal nolaka harekin hitzarturik, bere ageria ukan zuen nere lagunak. Sartu zen beraz ospitalean, baina horrengatik, preso hartu zuten Alemanek eta bortz urtez preso atxiki. Gibelera etorri zelarik, gerla ondoan, Urruñan, bere etxean, berriz elgar ikusi ginuen.



Thann

Handik landa, jakin gabe zuzen non gaindi ginabiltzan, Thann-eko herrira heldu ginen, ustegabetarik. Gaua iragaiteko lekua eskatu nuen apez-etxean, neretzat eta lotinant lagun batentzat. Erretorak eskaini zizkigun bi gela, ohe banarekin, lo egiteko. Gero ez dakit zer gertatu zen, bainan goizeko biak aldera, gure erretorak, oihuka eta zernahi erranka, etxetik kanpora igorri gintuen. Berak zioen, ene lagun lotinant lizuna haren arrebaren gelan sartu zela.

Nere lagunak ukatzen zuen garbiki deus holakorik egin zuela. Nik ere ez nuen deusik sumatu eta ez nuen den gutienik sinetsi bazuela lotinantak, gau hartan, deus gaixtorik egiteko gogorik, ez ahalik. Dena den, lekuak hustu genituen zalu, eta berriz gure bideari lotu ginen.

Laster, Alemanak oldartu zitzaizkigun. Orduan, gure mandoak galdu genituen, eta guhaur kartarik gabe gelditu ginen. Ahal nolaka, gure ustez Saint-Dié-ra buruz abiatu ginen, noiz eta ere, goizeko argi hastean, «Meurthe» deitu ibai kozkor baten bi aldetarik dagon Raon l'Etape herrian sartzen garen.

Alemanak jadanik han ziren, gure hartzeko prest.

ALEMANEN ESKU

Nerekin nereman De Beaume lotinanta, sorbaldan bala bat sartua zuena, lagundu nuen lehenik, Raon l'Etape herriko ospitalera. Han hatze-man nuen erizain lagun bat, nerekin jitea proposatu zaitana, ihes egiteko Alemanen atzaparretarik. Karrika burura heldu gineneko orde, soldado aleman batek tiro batez hil zuen nere laguna.

Segidan ni ere begiztatzen ninduen, bainan oihu egin nion alemanez, Gurutze Gorrikoa nintzela, eta orduan, bere zizpa behekitutuz, Alsazianoa nintzenetz galdatu zaitan. Nik ezetz. Euskal Herrikoa nintzela. Euskal Herria non zen ez zekien. Dena den, handik hurbil zenbait presoner baitzeuzkaten kortxila batean bildurik, ostiko batez heien artera igorri ninduen.

Lehen lanak

Aleman buruzagiak etorri zirelarik, igorri gintuzten presoner guziak lanera: Gure lana zen, hilen gorputzak biltzea eta ospitalera eremaita.

Usainduak baldin baziren, sakelak hustu, eta diru edo paperak bildu behar genituen eta gero, gorputzak ezantzaz ihinzatu eta han berean erre.

Ospitaleko hilen biltzea ez zen hanbat agradoso. Hango hilikien metatzen ari ziren bi presonerak mozkor arrailak ziren. Behar ere, egia erran, zuten lanaren egiteko.

Gehiago oraino, elizaren parrean ginelarik, ikusi genituen Alemanek, poloniar presoner batzu elizako pareten kontra lerrokatzen zituzten, eta tirokatzen, gerrien goratasunean. Gure aitzinean, apez xahar sotanadun bat joan zitzairen Alemaner, otoizka, ez zezaten holakorik egin. Debaldetan.

Oren beldurgarriak

Hilak bilduxe genituelarik, Ospitale ondoko aterbe handi batean bildu gintuzten frantses presonerak oro, eta hasi ziren gutarik bakotxaren galdezkatzen.

Buruzagia, aurpegi gaixtoko gizona zen; zaflako eta ostiko, merke zituen. Aldiaren beha nindagolarik, ohartu nintzen ene gibeledko paretak bazuela ate gorde bat. Soldadoak burua itzulia zuen artea baliatuz, brix, ate hartarik bertzaldera igan nintzen eta gero, aitzineko eskalera gora, gaineko sala handi batera heldu. Operazioneko sala zen. Hango miriku eta erizain saldoaren artean sartu nintzen eta, ixil-ixila, operatzaileen lagun-tzen hasi.

Bazen zer egin. Aldiaren beha zauden kolpatuak, dotzenaka, lurrean etzanik. Ekainaren 21a zen. Oroit naiz arratsalde hartan jin zela mediku buruzagienganik, gangrenatzeko arriskuarengatik, duda-mudan denborarik galdu gabe, zango-beso gehiagoren mozteko manua. Elektrikarik ez ginuen, eta esku zerrarekin, hezur mozten behar zen ari. Zinezko harakiz niza izan zen gure lana: Beldurgarria, oroitzekoa!

Arratsalde hartan berean, bonba bat erori zen gure ospitalearen gainera, nik uste inguru heietan oraino gogor ihardokitzen zuten poloniar batzuek aurtikia. Infirmiertsu bat hil baitzuen delako bonba harek, pentsatuko duzue zer oihuak bota zituzten Alemanek: «Horra nola zuen soldadoek bonbardatzen dituzten ospitaleak!».

Bide luzea

Biharamunean, xutik joaiteko on ginen guziak bildurik, ereman gintuzten, ez jakin nora, bizpahiru gau-egunetz kurri eta kurri, jan eta edan gabe. Iturrietan gelditzea, are gutiago bide gaineko behariek eskaini edozein eskaintzaren onartzea ez zen haizu. Jainkoak daki, zenbat presoner hil den, gosez edo egarritz edo tiro batez, bidaia luze hortan. Batzuetan



alabaina, zenbait lagun, burua galdurik, hasten zen zernahi erranka Ale-
manen kontra, eta holakoetan, tiro bat botatzen zion zaindariak.

Bidea hobeki jasaiten da, gorputza aitzinetik hortarako prestatua
delarik, edo bidea zergatik eta noraino egiten duzun badakizularik. Bainan
jadanik nekaturik lotzen bazira bidetari eta ez baduzu segurtamenik, bidea
egin ondoan, izanen duzula atsedenik, orduan, etsigarria da zure ibilaldia.

Strasburg-en

Noizbait halere, eta nolazpait, heldu ginen Strasburg-eko hirira.
Kaserna batean sartu gintuzten eta han hatzeman gintuen, bertze bide
batzuetarik etorriak, zortzi egun hartan ikusi ez genituen gure erreximen-
duko lagun asko. Heienganik jakin ginuen nola bukatu zen gure 49. erre-
ximenduaren historia.

Ekainaren 21ean, orotan zabaltu zelarik berria. Frantziak, gerla gal-
durik, bakea eskatzen zuela, gure erreximendua Saint-Dié inguruan erren-
ditu omen zen Alemaniari. Geroztik, preso ginelarik, gaizki onartua izan
zen erreximenduko aitzindarien jokabidea: zergatik ez gintuzten guziak
aitzinetik abisatu, bakoitxak alde egin ginezan, gure kondu. Holakorik egin
balute gure aitzindariak, pentsa zitekeen gutarik asko ez zirela preso iza-
nen.

Treinez, Alemanian barna

Zenbait egunen buruan, iganarazi gintuzten trein batetara. Erretze-
ko beroa zen. Bagon bakoitzean berrogei gizon sartu gintuzten. Etxera
gindoazela sinetsarazi nahi zukuten, bainan arras gutik sinetsi ginuen.
Gure treina Berlinera buruz abiatu zen. Noiztenka gelditzen zen, gure
beharren egitera edo ur xorta baten edatera, gure jautsarazteko.

Laster, hatsik ezin hartua zen bagonetan; gure mailetak, bat bertze-
an gainean ezarriz, hurbiltzen ginen, aldizka, gaineko leiho tipietara,
hatsaren hartzeko. Bainan gero, gutarik zenbait hasi ziren goitika. Beste
batzuk, beren beharrak nonahi egiten zituzten. Gure bagona, urdandegi
bilakatu zen.

Sakelan bainuen ganibet bat, harekin emeki emeki egin nuen zilo
bat, kanpora pixa egiteko gisan. Anitzak heldu ziren, zilo beretik beren
beharren egitera. Hainbertze zikinkeriarekin, azkenean guhaurek gure
burua ezinjasana ginaukan. Gure zaintzeko soldadoak, aldiz, lasai zeuden,
beren bagon berezietan.

Leipzig-eko garala heltzean, mutiko gazte zenbait jin zitzaizkigun
agurtzera, gure harrikatzeko. Gure lagun bat kolpatu zuten begian. Ber-

tzerik ez ukanez, mokanes zikin batekin xukatu nion begia. Zer pairatu
ginuen bidaia hortan, neke da ulertzea.

Oder gaineko Mühlberg

Ez dakit zenbat egunen buruan, sartu ginen «Stalag IV B» deitu
preso-zelaian. Gure aitzinetik han metatuak zituzten Polones eta Judu
batzu. Gose greba eginik, gaztigatu izanak ziren eta, iduriz, gu iziarazi
beharrez, gure aitzinekoeen hiliki hondar zenbait ezarriak zituzten, zintzi-
lik, presoner-zelaiaren erditik banatzeko alantzetan.

Gure zelaia oihan beltzaren erdian idekia zuten, Mühlberg-eko hiria-
ri hurbil, Oder ibai ederraren hegiti ez urrun. Hiriko murru guzietan ida-
tzia zen «Ez fida Frantsesari, Judueri edo Poloneseri baino gehiago».
Horra zergatik, gu han iragaitean, emazteek itzultzen zuten burua.

Galdezkatuak

Toki hartan lehen Frantsesak ginen eta berehala miriku bisita pasa-
razi zukuten. Gero, bakoitza gure aldiari, nor ginen galdezkatu gintuzten.
Gure izen-deituren galdetzeko, alemana zekien frantses soldado zerri bat
hartua zuten. Honek zion axuant alemanari itzultzen gure errepusta. Jada-
nik erran dutan bezala, banekien ordukotz nik ere aleman mintzaira apur
bat.

Ene aldia jin zelarik eta apezan nintzela frantsesek erran nuelarik,
itzultzaileak itzuli zion axuantari, alemanez: «apexkila bat» nintzela. Ni
sutan jarri eta sekulakoak bota niozkan itzultzaileari, erdi frantsesek erdi
alemanez, bertzeak ere konprenitzeko gisan. Axuant alemana hasarretu
zitzaian eta erran zuen: «Apeza kalabazara! Jesus Judua zelakotz zira zu
ere Juduen adiskide?» Nik ihardetsi: «Jesusen adiskide guziak Juduen alde-
ko balin badira, aitor-azu Aleman gehien gehienak ere alde hortakoak
direla»

«Zangoak tinko!» —oihu egin zaitan aitzindari alemanak— «Ikas-
azu nola mintzatu behar den “Feldwebel” batil». Gero tinta gorritz azpi-
marratu zuen nere izena presoen zerrendan eta gorritz markatu ere nere
bi galtza izterrak eta bizkarra. Neronek dakit zer pairatu behar izan nuen,
geroztik, delako soldado frantses ustel harengatik.

10. konpainian

Hasteko kondenatu ninduten hamargarren konpainian sartzera. Hor
biltzen baitziren kasko-gogor fama zuten presonerak. Ez ginuen eskubi-
derik postaz ukaiteko ez idazkirik ez jatekorik. Lanera joaiten ginen kan-



tuz, alemanez kantatuz, eta bidean itzulipurdiko bat edo bertze egin behar ginuen, iratzartzeko. Baziren guretzat gaztigu bereziak, hala nola, makila ukaldiak bizkarrean, astoeri bezala, edo soldado baten inguruan itzulika ibiltzea, beti leku berean geldituz, soldado alemanek bezala agur eginez.

Hortan nintzelarik, etorri zen gure zelaira bigarren frantses presoner saldo bat, heien artean aurkitu bainuen Etienne Salaberry apeza, nere irakasle ohia. Zorigaitzez, soldado horiekin batean sartu zen gutartean gaitz gaizto lotsagarri bat, «disanteria» deitua, harrigarriko beheitikoa emaiten zuena.

Disanteria

Ez ginuen horren kontrako deus erremediorik. Bakarrik, ikatz errauts apur bat urean nahastekaturik edanarazten genioten gure erieri. Gaitz horrek hunki guziak itsuski mehatzen eta indargabetzen ziren. Gaitz hori bildu zuen Etienne Salaberry-k ere eta, egia erran, ez dakit nola garaitu zuen.

Neronek banuke bertze frango kondatzeko, bainan hainbertze presoner ohik kondatu baitute beren preso denborako historia, iduritzen zait badutala aski erranik, eman ditudan argitasunekin.

Erran behar dut halere oraino, aski gaizkitu nintzela Alemaniako ospitaletan, bertzeen artatzen ari nintzelarik eta. Gurutze Gorriko jende batzuk, presoneren ikuskatzera jinik Suizatik, ardietsi zutela nere libraraztea. Heieri esker, ederki artatu ninduten Suizako ospitale batean, eta gero Lyoneko eritetxe batean. Handik azkenean, 1942an, itzuli nintzen Euskal Herrira, nere beha zagoen Hazparneko «Bikaritei»-ra.

HAZPARNEKO OROITZAPENAK

AITZINETIK EZAGUNAK

Preso tokietarik etorri-eta, Hazparnera itzuli nintzelarik ez nintzen leku arrotzean sartzen, ez bakarrik 1939an apezte orduko zenbait aste han iraganak nituelakotz, bainan haurrean, apez izaiteko xedea agertu niolarik Debidart erretorari, honek Hazparneko kolejiara igorri bainin-duen eta han iragan bainituen, ikasle bezala, bi urte.

Kolejioa

Ikastetxeko buruzagia Hiriart-Urruty apeza zen orduan, Hazketa Latsaldeko apeza, laster Garrora erretiratu zena, gero, ni Hazparnen apez nintzelarik, hila eta neronek bezitua eta lurperatua.

Misionestegiko kapera berria ongi ezagutzen nuen, lehen harria pausatu zelarik han bainintzen, beretter. Oroitzen naiz Jean Amespil-Patru-nek, harriaren azpiko pergaminoa sinatzean, tatxa alimale bat egin zuela. Ez nuen orduan pentsatzen, nik nuela, egun batez, jaun haren gorputza lagunduko hilerrietara. Zer den bizial!

Bigarren urtean, ene eskolemaile zelarik Etchepare apeza, ez medikuaren anaia, baina haren lehen-kusina. Adema kalonjea etorri zitzaikun eskolaren ikuskatzera. Honek, kalonje izendatu berria baitzen, galdatu zaukun nola erraiten zen euskaraz «Chanoine» hitza. Nehork ez ginakien. bainan Armendariztar lagun bipil bat oroitu zen, ustez. «Chanoine» erraiten zela euskaraz «Gatu pitotxa». Zerbait zakitenek irri ederrik egin zuke-ten, guk aldiz miretsi ginuen gure lagunaren jakitatea, nahiz jaun kalonjeak berak kopeta zimurtu zuen.

Gure irakasleak

Gure irakasle apezak, Hiriart-Urruty eta Etchepare bezala, Algalarondo eta Berrouet euskaldunak ziren; bainan irakasle «frerak» ere baziren, oro erdaldunak, Labrunie, Laussac eta bertze, nonbaitik etorriak. Dena dela, frantsesa ikasi behar ginuelakoan, debekatua zitzaikun, gain-gainetik, euskaraz mintzatzea. Euskaraz mintzo hatzemaña zenari emaiten zitzaion «anti» deitu taulatxo bat; 30 aldiz idatziz «Je ne parlerai plus en basque», ordaintzen ginuena.



Erran behar dut ere, urte heietan, Hazparneko kolejioko ikasleen erdia, ezbaian, mugaz bertzaldetik heldu zela. «Espainolak» deitzen genituen, nahiz Lopez eta Alvarez bezala, baziren ere Aurtenetxe edo Maguregi deitzen zirenak eta denak frantsesa ikasteko etorriak.

Ene konfirmazionea

Konfirmazioneko sakramendua ere Hazparneko ikastegian ukana nuen, Gieure apezpikuaren eskutik. Karia hortara, galdezkatzen diren katiximako haurretarik bat, ni izan nintzen. Apezpikuak galdegin zaitan, leku orotan Jainkoa badagoela erraiten denaz geroz, can ifernuan ere ba ote den. Errepusta eman nion baietz, Jainkoa ifernuan ere badela, norbaitek behar baitu hango sua azkar atxiki. Gieure apezpikuak irri egin zuen eta geroztik, luzaz, oroitu zen nere aurpegiaz. Azkainera etortzen zelarik ezagutzen ninduen.

Eta egia erran, Gieure maiz etortzen zen Azkainera, bereziki neguan, apezetxean pekada jatera. Landestar apezpikuak asko maite zituen pekadak eta haren gomendiora, Debidart erretoraren gelariak, Nikolasa ene kusinak prestatzen ziozkan, behar ziren ongailu guziekin.

Pedrito Choribit

Hazparnera itzultzeko, banituen herri hortan aspaldiko ezagun eta adiskideak. Hala nola, Pedrito Choribit nere eskolako laguna. Uztaritzetik landa, Chilen egona zen, han baitzuen bere aitak zapataintza handi bat. Bainan, osasunik ez izanez, itzuli zen sorterrira eta, bere izeba eta arreba-ekin, etxen kokatu. Maiz ibiltzen nintzaioten ikusten. Haren arreba Mayik, aski eskolatua baitzen, eta osoki euskalzalea, asko lagundu ninduen antzerki lanetan.

Pedrito bera, gizon eder bat zen, harri edo zur lanetan eta margolaritzan artista ona: bazituen berak margoturik. Mirande erretoraren itxura eta Saint-Pierre apezpikuarena. Eta zimentaz oraturik, Bidarrair Erramundegiko Ama Birjina eta Hazparne Labirikoa eta Basenerrekakoa. Bainan jite bortitzekoa zen nere adiskidea: Gaitzeko kasailak iragaiten zituen bere etxeokokin. Hazparneko burgesia edo apezzeria lotsarazten ere bazekien orde. Geroxeago, Donostiako alaba batekin ezkondu zen. Bere gaitza aldiz fede handiarekin jasan ondoan, adin gordinean hil zen.

Egia da gazte denborako lokarriak maiz iraunkorrak direla eta ongi heltzen ere biziko ordu latzetan. Hori gertatu zitzaitan neroni, Pedrito Choribitekin, Hazparnen iragan urteetan. Bainan bazekien, berak berdin egin zezakeela nerekin.

Gau batez, haren arreba Mayi jin zitzaitan, alsaldaturik, anaiak nahi zuela berehala beribil berria estrenatu; joanen nintzaionetz lehen ateraldia egiteko laguntzera; zer gerta ere, absoluzione emailea ondoan nahi zuen anaiak. Bastidako aldera jo ginuen beraz, gauez-gau, 150 bat kilometroko abailan. Osorik itzuli ginen. Jainkoari esker, Pedrito eta biak, nahiz biak izerdi lapetan. Horra nolakoa zen Pedrito nere adiskidea.

Leon Itcia

Aspalditik ezagutzen nuen ere, plazako Alzieta ondoan, Zikite karrikan, Leon Itcia, pilotari ohia, oiha saltzen Azkaingo gure etxeraino ibilia zena. Emazte on bat bazuen. Haurrik ez zuten, bainan usu beren etxean zaukaten, ni baino zahartxagoko beren iloba, neskata bat, oilandatzen hasia.

Hazparneko ikastetxera etorri nintzelarik, maiz bazkaltzera gonbidatzen ninduen Leon Itciak. Behin, ihauteriak baitziren, eta beraz Hazparnen behi lasterrak, joan ginen, Leonen iloba eta ni, behi lasterren ikustera. Debeku guziengatik gehiegi hurbildurik behiari, animaleak itzulipurdika igorri ninduen. Ez zaitan behiak min handirik egin, bainan neska lagunak bi zaflako eman zaizkidan, ikas nezan obeditzen. Hazparnera bikari jin nintzelarik, neronek behar bainuen benedikatu Itcia ilobaren ezkontza, ene predikuan abisatu nuen haren senarra, kasu eman zezan bere andrearen zaineri, zein errex samurtzen zen frogatua bainuen, aspaldi lehen.

HERRIKO APEZAK

Mirande jaun erretoraren laguntzera etorri nintzelarik, apez lagun frango aurkitu nituen herrian. Ez naiz mintzo Hazparnen sortu apezzez, baitzen heietarik frango toki askotan, bainan bai Hazparnen berean, parropian, kolejoan, misionesteian edo auzo herrietan, denbora hartan, lan egiten zuten. Ez ditut hemen zenbait baizik aipatuko, nahiz bertze batzuekin maizago kurutzatzen nintzen, hala nola, Dohoztiriko Moulier Oxobi edo Gereziatiko Elissalde Zerbitzari, bi euskaltzain arrantzale kideekin.



Erramun Idieder

Hazparnen izan ditut zazpi bikari lagun. Heietarik lehena, Erramun Idieder, Orzaiztarra sortzez, euskaltzalea, bainan ez abertzalea; guziz frantses eskuinaren aldekoa. Bihotz ona zuen eta ez zen demendrenik maltzurra. Aitortu behar dut, Hazpandar jauntto batzuek nere kontrako jukutria bat muntatu zutelarik apezpikuteagiko inguruetan, Idiederrek ninduela abisatu, aski goiz, ene burua defendatzeko gisan.

Bertzalde, muslaria, eta pilutaria ere, bazen, bainan bi jokoetan berdin xikanatzailea. Behin, Hazparneko trinkete zaharrean, pilotan ari izanik, gaitzeko kalapita izan zuen, kasik joka hasteraino, Ximun Duhour, orduan istudiant zen gazte batekin.

Bertze ixtorio bat gogoratzen daut oraino, Idiederren oroitzapenak: gizon xahar bat hil zitzaikun Urkuraiko muga, Mendia izeneko etxean. Orduan norbait hiltzen zelarik, ehortzetan bezperan, auzoko bi gizonen hilaren etxera eremaiten zituzten, kurutzearekin batean, biharamuneko apezaren eliza atorra eta estola. Hola egin zuten hor ere.

Ehortzeta egiteko nere aldia baitzen, biharamun goizean joan nintzen hilaren bila. Elizatik urruneko etxeen ohitura zen bezala, eskaini zaitaten gosaria eta ni gosaldia. Gero hango emazte xaharrari eskatu niozkan apez jantziak, bainan puska horiek neretzat zirela entzutearekin, xaharra harritu zen: Hilari soinean emanak ziozkan, kutxaren barnean, ustez eta haren beztitzeko ziren.

Karrikako lehen etxeetara heltzearekin, bertze apez bat etorri ohi baitzen bidera beretterrekin, egun hartan Idieder etorri zitzaitan. Ni ikustearrekin, elizako jantzirik gabe heldu, ez zen guti harritu. Bi hitzez salatu nion zer zen gertatzen: «Hiri baizik ez duk holakorik gertatzen!» zaitan komentatu.

Elizan sartzean, bertze musikarik zen Jaun erretorarekin, honek nahi baitzuen, hilerrietan hil kutxa idekaraz nezan, eliza jantziak berreskuratzeke. Ez adituarena egin nuen. Sekula noizbait norbaitek puska horiek aurki balitza lurpean, jakin beza, apez beztiturik kausituko duen gorputza, ez dela batere apez batena, bainan Mendia izeneko laborari xahar bauena.

Geroztik, Erramun Idieder bera ere, Hazparneko erretor egonik, Donibanera erretiratu zen. Ordukotz zorigaitzez hila zen, Donibaneko arrantzaleen apez higaturik, Kaiet Idiartegaray gure adiskide ona. Alta denbora batez atsegin ginuen Erramun eta Kaiet elgarrekin musean arraztea, biak berdin baitziren jokolari sutsuak.

Manex Arbeletche

Anaiak bezala ginen Manex Arbeletche eta ni: Biak adin berekoak, biek gerla egina eta biak preso egonak, biak omere onekoak eta biek irria maite. Halere bere mintza eta jokamoldeetan ni baino arinago eta moldegaitzago beharbada. Tipia zelarik Belokeko serora beneditanoetara joan omen zen behin, eta han gasnategiko panduruan erori.

Presoner zelarik aldiz, Alemaniako etxalde batean langile, ahantzi zuen zerri pixa-ziloaren tapatzea eta zilo hartan erori zen etxeko nausia, «Hans» deitzen baitzuten, alemanez Manex, «Hans»-ek entzun zituen bereak eta asto beltzarenak.

Hazparneko ohidura zen igandeko meza nagusian, prediku aitzin, ezkontzera zoazin herritarren izenak edo «banak» adieraztea. Hain zuzen, Henri Andrein Hazparneko jaun auzapeza ezkontzera zoala, ez zen bertze berririk aipu herriko lantegi guzietan. Jendea igandeko meza nagusiarren beha zagon.

Arbeletche apezaren aldi zen egun hartako «banak» agertzea. Agerraldi horren formula, betitik honela eman ohi zen elizan: «Hau da “bana” hauen lehen eta azken agerraldia». Bainan egun hartan, jaun bikarioari desbideratu zitzaion mihia eta atera zuen, auzapezaren izena aipatu eta: «Hau da gizon honen lehen eta azken ezkontaldia».

Jaun auzapezak berak barkatu zion bekatua bere kusinari, baitzekien ez zela maleziaz ari izana, bainan erran behar da, kurritu zela berria bazterretan. Gaur Manex Arbeletche, nere lagun maitea, bertze munduan da: auto istripu batean enbalierturik erretiratu zen erretorgoatik eta gero hil Garazi aldean.

Pierre Etchebarne

Pierre Etchebarne bikariarekin ere zenbait urte iragan ditut, eta biek arras ontsa elgar aditu dugu. Etchebarne Lekondarra, etxalde oneko semea zen, eta ez, ni bezala, etxetiar soil batzuen umea. Beraz, etxeko jaun batzuek, beren haurren ezkontzeko edo beren etxeen gobernatzeko, nahiago zuten kontseilu hartu, etxeko seme onaren baitan, ni nintzen «kazkarota» baitan baino.

Hortaz goxoki irri egiten ginuen bi bikariek, gutartean. Nahiz «gutarteko» solasez bertzerik erabiltzeko parada baginuen, eskuin eta ezkerreko sukaldeetan, bai eta ere, kasik arrats guziz, «Gaietako Karrikaren» buruko bere eskolan. Laurent Ayerzak biltzen zituen adiskideen bilkuretan.



Laurent Averzaren bilkurak

Laurent Ayerza zen hazpandar mutil zahar bat, seminarioan egonik, apezteari uko egin ondoan, bere bizi guzia eskola giristinoko irakasle higitu zuena. Bere eskola aitzinean bazituen bizpahiru ezkiendo eder. Une oroz, bere ikasleekin biltzen zituen ondo horien loreak, adiskideri eskaintzeko gisan arratseko tillura. Ayerzak berak prestatzen zuen tillura, guk ekartzen ginuen rhuma eta gero hasten ziren mus partidak eta solasketak.

Ayerzaeneko lagundian biltzen ginen, parropiako bikariez bertzalde, Gaineke karrikatik, Henri Andrein farmaziena eta Louis Eteheverry okina. Kolejiotik, Berrouet eta Oxoby apezak. Misionesteitik, aita Luro eta Larrart. Arrangoitzetik edo Uztaritzetik, Leon Leon, apez idazle ezauna eta, etxeko nagusiarentzat, gogoz eta bihotzez lagunik hurbilena. Zenbait irri zaflaren artetik, elgarrekin kurritzen genituen herriko berriak eta munduko gora-beherak.

Alemanen denboran ordea, arratseko hamarretan argi guziak itzali behar zirelarik, gure bi lagun, ontsa afaldurik, ez zirena, Gaineke karrikan gora, irrintzinaka hasi? Alemanak ondotik abiatuak, bi lagunek ihes egin zuten Kolejiora. Etsaiak joan ziren hara, Lopez de la Vega Superiora eta Gaztelu direktura gaizkitzera. Bi buruzagiek harroaldi ederra eman zioten bi hobenduneri. Orduan hauenganik izan genituen xehetasunak Ayerzaeneko bilkuran. Entzutekoak ziren berriketarien erasiak. Zinez ahulak eta ezdeusak agertu omen ziren, etsaiaren aitzinean, bi buruzagiak. Bizkitartean bi lekukoetarik batek zuzendu zuen: «Egia erran, Superiora bai norbait duk, bazekik buru egiten, baina Gaztelu, tirrit, deus ez duk, perttoli bat!».

Horra nola, gutartean, neurtzen eta haztatzen ziren batzu eta berzteak, Ayerzaren bilkuretan.

Gure arrangurak

Bainan guk bikariek, bagenituen bertzalde gure arrangurak. Mirande erretora eritu zitzaikun eta ez baitzuen emazterik hurbiltzera utzi nahi, ez Francine bere gelaria, ez herriko andere erizainik nehor, neronek artatu behar izan nuen. Ni alabaina usatua nintzen, gizon ala emazte, denen berdin artatzen. Ni artatzeko nahiko nituen emazteak, ahalaz ezkonduak, hek baitira, ene ustez, heziak.

Denbora joan-ahala, hobeki ikusten dut zein zoriontsu izan zen halere gure bikari denbora: Elgar maite ginuen apez lagunak eta erraiteko ohidura ginuen. Senperen baldin bazen saltzeko «pazientzia», Hazparneko Bikariteian bazela saltzeko «omere ona». Iduritzen zait, omere on

horri esker, ez ginela herabe edozein jende motarekin, tipi ala handi, buruz-buru mintzatzeko.

JENDE XEHE EDO LARRI

Lissar auzapeza

Hala nola, Hazparneko auzapeza orduan, Jean Lissar zenaturra zen. Aski hurbildik ezagutu dut jaun hori. Sortzez Kanboarra, ofizioz medikua, mende hastapenean Hazparneko auzapez eta deputatu zen Xemartin-Harriague Morrozkoren alargunarekin ezkonduak, aberats okitua bilakatu zen. 1914ko gerla ondoan, sartu zen lehenik herriko etxean eta gero Pariseko legebiltzarrean, bere fortunari esker.

Jadanik, berak bere sakelatik ordaindurik, Urtsuko ura ekarria zuen Hazparneko etxe gehienetara. Berak zituen ere ordainduak elizaren erakitzeko egin azken zorrak. Bertzalde anitz jende bazabilan alde orotarik, haren ondotik, diru eske, eta erran behar da, bazekiela emaiten. Ez zuen halere ahanzten, harengatik zerbait ukan zuena harekin zorretan gelditzen zela. Fede azkarreko gizona zen bertzalde.

Hazparnera etorri nintzelarik, diru poxi bat eskaini zaitan gazteen-tzat, erranez pentsatzen zuena, aitzineko bikarien «usaia oneri» jarraikiko nintzela eta, bozketako sasoian, gazte horiek haren zerbitzuko izanen zirela. Nere errepusta fermua izan zen: Ez zezala pentsa ni sartuko nintzela haren politika lanetan. Gure gazte hartuko zutela, bakotzak bere gustuko jokamoldea, librok, eta ene laguntzarik gabe. Ez bazen ene egitatearekin ados, otoi ereman zezala gibelera eskaintzen zaitan dirua.

Solas horiek harritu bide zuten jaun auzapeza, zeren eta luzaz mintzatu baitzen, eskuin eta ezker, ene erantzunaz. Ez dakit horrengatik zen, ala zergatik, Lissar-ek estimu handitan hartu ninduen, eta maiz solastatu izan zen geroztik nerekin, hil arteraino.

Gogoan dut bereziki, gerla denboran gertatu zitzaikun ixtorio bat: Gosetea aipu zen jadanik Hazparnen gerla hastean, eta entzun nuen kondatzen ene aitzineko bikari bat izan zela behin etxe batean. Etxekandereak erran omen zion apezari: «Gogotik eskainiko nautzun Jauna, ogi ta gasna puska bat, baina oraiko ogi beltz hortarik dugu ogia». Jaunak ihardetsi: «Ba, guk ere hortarik dugu. Emazu duzunetik». Hortan etxekandereak: «Egia erran, Jauna, ogi beltzik ere ez dugu». Jaun bikariak orduan: «Hori da hori, beltza!»



Gauzak ez baitziren ordea hobekitu, bereziki langileen etxeetan, langile buruetarik batek, Joseph Driolletek galdatu zaitan nahi nuenetz ararteko izan, Lissar jaunari eskatzeko, bere Larrondoko lurra langileen baratzetzat eman zitzen.

Delako lurra, artzain batek zituen ordurarte alokatzen, frango merke, ardientzat. Langilen proposamena entzutearekin haserre gorrian sartu zen Lissar jauna. Ean hari tokatzen ote zitzaion langileen laguntzea, lantegi bakar bat ere ez zuela bererik. Ez ote zen bertze nehor hura baino lehen ikusi behar?

Bainekien nola mintza jaun horri, ihardetsi nion gogor-gogorra, ez nintzaiola batere eske joana, «afera on» baten proposatzera baizik. Orduan ezitu zen gure gizona eta hitzeman zaitan, Martin Harriague bere koinata igorriko zuela afera hortaz mintzatzeraz. Hola egin zuen eta hortik abiatu zen gaur ezaguna den Larrondoko auzotegi berria.

Mattiu mirikua

Bertze jaun bat ere izan da Hazparnen asko estimatu dutana: Hippolyte Mathieu jaun medikua, Mathieu apezpikuaren anaia. Maiz, gauaz, jendeek elgarrekin deitzen gintuzten, hura miriku lana egiteko eta ni apez lanerako. Batzuetan, gertatu zait haatik, esku ukaldi baten emaita medikuari, erizain bezala.

Ameriketatik jin sendagailu zenbait banituen neronek gerla denboran ezagutuak eta entseiatuak, hala nola, erreduren sendatzeko erremedio berri bat. Oroit naiz karrikako etxe batean sute bat gertaturik, jaun medikuak nere gain utzi zuela presuna baten artatzea, eta hau ontsa sendatu zela.

Gertatu zait ere «Mattiu»-rekin, Hazparnen erraiten zen bezala, gertakari bitxi batzuen lekuko izatea: Arrats batez, deitu gintuzten biak, plazatik urrun zen etxe batera. Ba omen zen han emazte bat arras kinka txarrean. Ohitura ginuen bezala, Mattiu sartu zen lehenik erriaren ganberala, eta ni atean egon nintzen, aiduru. Apur baten buruan ordea, kalapita handi bat entzun nuen, emazte erriaren eta mirikuaren artean. Oihuka ari zen emazteak: «Nongo miriku enuxentak entzun du holakorik? Nik haur bat behar dudala 49 urtetan. Badakit nik, zuk baino hobeki, zer den haur baten ukaitea. Baditut jadanik zazpi ukanak!». Medikua bere aldetik ihardesten zion: «Zuk erranik ere nahi duzuna, hor izanzen duzu, laster, izter artean, sortu berrial». Medikua erran bezala gertatu zen. Neska polit bat izan zen, nik biharamunagoan bataiatu nuen.

Bertze behin, kalapita berdintsua izan zen, bainan frantsesez, eta karrikako bizitegi batean. Gu ikustean, niri jazarri zitzaion lehenik emazteak: «Zer dautzu apez horrek muntatu burua? —erran zion medikuari— Egia da senarrarengatik berezia naizela, bainan nik errespetatzen dut ene ezkontza! Ez dezake nehor frogatu ene senarrak bertzerik egundaino sartu dela ene ohean!». Protesta horien ondorekin laster, neska bat sortu zen, aldi hontan ere.

Bertzalde, jaun medikuak bere etxan bazituen bi seme: bat Henri, medikuntza eskolatan zabilana Parisen eta geroztik mediku irakaskuntzako maila gorenera heldua dena. Bertzea, Beñat, dretxoa eginik. Bordelen, sorterrira itzultzeko zen, etxeko xokolet-gintzari jarraikitzen. Aitortuko dut amestu nuela, hura bezalako gizon gazte bat, Hazparneko auzapez ikustea, egun batez. Bainan nik ez bezalako ikusbideak zituen Jainkoak. Zenbait urte geroago ez ziren guti harritu Hazpandarrak, jakin zutelarik, Beñat Mathieu sartzen zela Belokeko Beneditanoetan. Badu geroztik lan asko eginik, hor gaindi, aita Filipek.

Laneko urteak

Bertze ixtorio frango banuke kondatzeko, Hazparneko bikari bezala iragan ditudan bederatzi hamar urteetan gertaturik. Bainan laneko urteak izan dira nerretzat, oroiz gainetik, urte heiek. Anitz lan motari lotu nintzen; hiru aldetara itzuli nituen bereziki nere eginkizunak: 1.-ik, langileen eta laborarien laguntzen, 2.-ik, euskal teatroaren alde lanean, 3.-ik, aleman «nazi»-eri eta heien lagunerari ihardokiz eta frantses «erresistentzian» sartuz.

GAZTEEKIN

Bazen ordukotzat Hazparnen langile zindikatu bat, edo hobeki erraiteko baziren bi zindikatu: zeren eta 1936an, ezkerreko alderdiak nagusitu zirelarik Frantzian, eta Blum-en gobernu gorri sozialista sortu zelarik, «Confédération Générale du Travail» edo C.G.T. zindikataren adar bat abiatu zuten Hazparnen, Baionatik jinik, komunista batzuek.

Nagusiek orduan, hari kontra egiteko, muntatu zuten bertze zindikatu bat, giristinoa omen zena. Bainan, nagusiek berek beren bulegoetan hautatuak zituztela hunen buzuzagiak, jakinez geroz, asmatuko da errexki ez zuela estimu handirik izan zindikatu horrek herriko langileen artean.



Langileekin

Gero gerla etorri zen. Alemanak nagusitu ziren eta zindikata guziak ixildu. Ni aldiz, Alemaniatic Hazparnera itzuli ondoan, hasi nintzen «Langile gazte kristauen» edo J.O.C.-ko bilkuren egiten. Mugimendu horrek nahi zuen bezala, entseiatzen nintzen, elizaren erakaspén sozialen arabera, langile gazteen moldatzen. Ene xede nagusia zen, alde batetik, gazteen argitzea, giza ala fede jakintzetan, eta bestetik, heien nortasuna finkatzea.

Gazte horiek, lantegietako bozketara agertu zirelarik, lehen aldian, arrakasta guti izan zuten. Menturaz, gazte, edo «apez beretter» aire, zirelaketz. Bainan gauzak aldatu ziren 1945etik aitzina, gerlako presonek etxera itzuli zirelarik. Orduan Hazparneko «Confédération Française des Travailleurs Chrétiens», C.F.T.C. zindikata kristauaren buru hautatu zuten Battitta Blezio.

Buruzagi hori, gizon argia zen, Frantzia guziko zindikataren idazkari nagusi beharra zen Jacques Tessier-ekin presoner egona eta adiskidetu. Bertzalde zindikatak berak igorri zituen gazte zenbait eskolatzerara, Bordele edo Pariseraino. Sortu ziren ere talde berriak, Luhuson eta Ezpeletan, gero guziek osatzen zutela Baionan, «Frantziako Langue Kristauen Elkartea», C.F.T.C. deitua: azkenik «Frantziako Langileen Elkartea». C.F.D.T. bilakatu zena.

Zindikalista horietarik batzu, gazterik hil ziren, hala nola, Janbattit Mendiboure, Marcel Mendiboure apezaren anaia, eta Mattin Hiriart, aita familiako gaztea, ezin ahantzizko militanteak. Bertze zenbaitek, garesti ordaindu zuten beren ausartzia, François Etchart eta François Georgeot bezala, lantegietarik kanporatu baitzituzten eta Frantzia behe horietara edo Hego Ameriketaraino joaitera behartu. Gogoan dut ere, Maurice Bortayrou, jasan izan baitu eritasuna, lan gabezia, herritik kanporatzea, zindikalisten guduka gogorra eta, ororen buru, bera eta bere etxeokak jarraiki baitira beren sailari.

Hernian berean, ez zen gatazkarik falta izan: Hala nola misionek zirela eta, misionesten buruzagiak ez zituen J.O.C.-ko mutil eta neskek, eta heien ibilbideak, prediku-alkitik kondenatu? Gaztek izkirioz ihardetsi zioten jaun misionestari, eta honek elizapeko salara gonbidatu zituen, solastatzerara. Berrogei bat gazte bildu ziren, eta nolazpait auzia xuritu zuten apezarekin.

Langileriaren iratzartze horrek mindu zituen Hazparneko nagusi gehienak, hainbertzetaraino non, arima on batzuek, apezpikute giko kontseiluari sinetsarazi baitzioten. Hazparneko bikariak biziki lan hobea egin

zezakeela Santa-Graziko mendietan. Bainan erran dutan bezala, adiskidek abisatu ninduten aski goiz, eta etsaiaren tiroak huts egin zuen, aldi hontan oraino.

Bizkitartean, langileen alde ibili urratsak ez zauzkidaten batzuek aise barkatu: Zokoan nindagoelarik, zenbait urte geroago, Margot ostatuan aurkitu nituen Hazparneko bi nagusi handi. Elgar ongi ezagutzen ginuen geroz, hurbildu nintzaieten agurtzera, bainan heiek, ongi bazkalduak baitzitezkeen bertzalde, jazarri zaizkidan bortizki, sekulakoak erranez. Beharrik hurbil baitzeuden arrantzale gotor batzu, haueri keinu bat egitera nindoala ikustearekin, bi gizonak burua itzuli zuten eta lekua hustu.

Dena den, ene ikasle ohiek zindikalismoa indarrean atxiki zuten, lantegiek iraun zuteno bederen, 70eko hamarkadaz geroz alabaina. Hazparneko 14-15 zapata lantegiek ateak hetsi behar izan zituzten, eta heien 1500 langiletarik gutiz gehienek bertze biderik hartu behar izan zuten.

Laborariek

Hazparnera jin berri nintzelarik, igande goiz batez, elizako sakristian nindagoela, Mirande erreter xaharrarekin, etorri zitzaizkion Sohanoko mutil gazte bat asaldua. Nahi zuen joan zakion laster apez bat, bere urdeen benedikatzera, «konjuratuak» omen baitziren. Jaun erreterak igorri ninduen, zer gertatzen zen ikustera.

Etxeko urdandegiaren inguruan bazen jende multzo bat bildua, eta denen erdian Zelaitar basa-marexala, Puttiko deitua. Barnean, baziren urde eta zerri mota asko, zerrama eta zerrikume, bargo, hazkai, zuri eta beltzaran, denetarik, bainan denak «konjuratuak». Harriturik zagon so Puttiko: «Ikusi diat anitz gauza ene bizian, bainan holakorik ez, sekulan!». Abere batzu, etzanik zauden, higitu gabe. Bertze batzu, zalapartaka zabil-tzan jo eskuin, jo ezker. Zenbait jauzika ari ziren, harri-murruei goiti igan nahi bezala.

Hola ginaudelarik, bakotxak gure iduripena emaiten, hona non emazte pizkor bat, etxekanderea, heldu zaukun, oihuka: «Nik badakit zer duten zerriek: Denak mozkorrak diral». Eta esplikatu zuen: «Barda ogi joitea ginuen eta, afal-ondo, mutur saltsa eta kolpekak. Horiek oro, gure gizonak etxeko izpiritutik sobera edana zutelaketz. Zernahi erran diotet nihaurek, burutik behera, eta, ez zezaten gehiago edan izpiritu tzar hor-tarik, hondar botoilak zerri bazkara hustu ditut. Horra nola diren mozkortu gure kabala guziak».



Ez dut emanen Sohanoko etxe horren heinean zirela Hazparneko laborari etxe guziak, baina ez da dudarik sekulako erreberritzea egin duela laborantzak gure Mendebalde guzian, gerlatik landa.

Berrikuntzak

Izan nuen beraz zer egin, laborarien sail hortan, zindikatak, koperatibak eta banku-etxeak sustatzeko, eta horien kudeatzaile gazteak moldatzeko.

Bizpahiru mutiko tzarrekin hasi nintzen J.A.C. edo Laborari Gazte Kristauen bilkurak egiten. Handik laster, 30-40 gaztetaraino elkarretaratu ziren, merkatu arratsaldetan, baserritarrak, Hazparneko bikaritegian. Ahalik eta moldakuntzarik aberatsena heieri eskaintzea, baliabide mota guziak erabiliz, hori zen nere helburua; frantsesez ala euskaraz, ahoz ala izkribuz, entzutez ala ikustez, jakintzazko eta fedezko gaiak berek ikas eta elkarri irakats zitzaizkien gazte horiek, nahi nuen.

Bilkura horietan eskolatu eta moldatu ziren René Ospital Aiherrako auzapez eta kontseilari jeneral zena, Hazparneko Janpiarre Aincy eta Roger Parrot zenak, Frantxoa Abbadie eta Piarres Darraidou, geroztik, Euskal Herritik urrun bizi izanak, edo Hazparne inguruko zenbait herri-gizon, hala nola, Beskoitzeko Santiago Eyherabide, Aierreko Laurent Challet eta Jean Baptiste Dartaguiette, Isturitzeko Xalbat Charritton.

Hazparne Ehulateiko seme horren izpiritu xorrotxaz eta adimendu fermuaz ohartua nintzen. Bernard Dassance Uztaritzeko inginadorea ari baitzen Baionako laborarien koperatiba muntatu nahiz, proposatu nion Xalbat har zezan lagun. Xalbaten aita, Pierra, Amikuztar laborari azkar bat zen, jitez bizia eta langile porrokatua. Hastean ez zuen aise onartu semea Baionara uztea, baina gero ez zitzaion dolutu. Geroztik Xalbat Isturitzen ezkondu zen, Mendilahatsuko Mayi Garat ezaguturik gazteen bilkuretan. Familia ederra izan dute eta badu orai berrogei urte hurbil, Isturitzeko auzapez bezala, zerbait onik egin duela herrian.

Erran behar dut ere, laguntza handia aurkitu nuela orduan, bai Garroko eskolan zabilzan Noblia apezaren, Etienne Pochelu Makaiako auzapezaren, Suhuskuneko Michel Ouret eta Uztaritzeko Bernard Dassance bi inginadoreen baitan, bai eta Belokeko aita Gachiteguy eta aita Beneditanoek zeramazten laborantza eta hazkuntza molde berrietan.

Oroitzen naiz, eztabaida izigarriak sortzen zituela «arto amerikanoak», «Ray Grass» delako bazka arrotzak, nagusi-etxezainen arteko lege-diak, herriko iraztor eta otarren luberritzeak edo abereen ernalarazteko xerto berriak.

Ernaltzeko xertoa

Alemanian nindagolarik ezagutua nuen behien ernalarazteko molde berria. Halako aldi batez, ene ikasleeri aipatu nioten aurkiberri hori, eta Roger Parrot gazteari gogoratu zitzaion, gauza horiek irakasten ziren eskolara joaitea.

Ofizioa ikasirik etxera itzuli zelarik eta Baionako koperatibaren kondu bilkura egiten hasi, merkatuz merkatu, bere lanaren argitasunak emaiteko laborarieri, oroitzen naiz Hazparneko Haritzbarnen mintzaldia eman zuela. Hondarrean, Zelaitar laborari batek galdu zion, ean, abereekin bezala, ez ote zuten jendeekin gauza bera egiten. Parrotek ihardetsi: Baietz bai, segur baietz, bazirela jadanik Ingalaterran zerbait haur, hola sortuak. Batitak orduan, bota zuen, gora gora: «Koño! ez ahal daukute hoberena kenduko!». Eta denak irriz hasi ginen.

Ez ziren ordea beti laborarien bilkura horiek irri egiteko parada soilak, hala nula, nausi-etxetiarren arteko tirabirak berotu zirelarik: nausi batzuek helarazi zuten apezpikutegiraino ene kontrako salaketa, baizik eta euskal astekarian agertzen nituen artikuluekin edo hola, soberasko agertzen nuela ene burua etxetiarren alde.

Bilkura berezi bat egin behar izan ginuen, Garroko jauregian, Etienne Pochelu Makeako auzapezarekin, Massondo Arbutiko eta Larramendy Zabaltza Donamartiriko etxetiar-zindikata buruzagiekin, eta gauzak beren hatzera itzuli ziren.

Louis Larramendy Agerre

«Larramendy» izen horrek gogoratzen daut Louis Larramendy esperta, Agerreko nagusi zena. Gutik dakite zenbat zerbitzu egin zioten jaun horrek laborarieri, gerla denboran. Alemanek manatzen zuten orduan herriak eman zezan soldadoentzat behar zen haragia. Mila zinkurina eta estakururekin, Hazparneko espertak sakatzen ziozkaten Alemaneri ahal zituen nehongo behi zahar eta herbail guziak, lekuko laborarientzat atxikiz hazitako, edo bizitako, hoberenak. Erran gabe doa, joko hortan arrisku handiak hartzen zituela.

«Arto amerikanoa» agertu zelarik, beti bezala, ez jakinez edo jelsiaz, laborari batzu mintzatu ziren arto mota horren kontra: baizik eta ez zela aski irintsua, bihi larriegiak zituela oiloentzat, ez zela lekuko artoa bezain emankorra eta holako estakuru frango. Orduan, Agerreko nausiak, bere lurretan egin zituen lehen ereintzak. Gehiago oraino, artoa lilitan zelarik, mota batetik bertara alda baitzitekeen, proposatu zuen, holakorik ez



zedin gerta, Zelaiko kartier guzian arto mota bakarra ereitea. Bainan ez zuten laborari guziek sinetsi.

Batzuetan, gure langile eta laborari gazteak elkarretaratzen ziren, hala nola, denek batean egiteko, «Aufa Mutilak» aldizkari xumea, soldado lagunerik igortzen zena. Beren agerkari berezia, «Orkeia» bazuten bertzelalde, zapatain zindikalista gaztek.

Elkarrekin prestatzen zituzten oraino gazte guziek «komediak», hots, aspaldian «Haritzbarnen parropiako salan, bikariek edo erretorak berak antolatzen zituzten ikusgarriak. Aitzinekoen ildo beretik ereman nuen sail hori, zenbait aldaketa eginez haatik.

Ez nagoke ohartarazi gabe, lan horri esker, beren herrian ala herri-tik kanpo, zenbait hazpandar gaztek, mutil eta neska, ofiziale fama bildu zutela, antzerki munduan. Hala nola, Pierre Etcheverry «Etxahun», Jean Hiriart «Bordaxuri», Janbattit Soubiboure «Xinto», Charlotte Haissaguerre, Mayi Suzanne eta bertze askok. Nola ahanzt, urte batez, antzerki bera eman ohi ginuelarik bi igandez segidan, bigarren igandean ez ginuela emanaldirik egin ahal izan, anartean hil baitzizaikun gure jokalarik onetarik bat, Lucie Laborde, neskatxa maitagarria.

Orduantsu galdu ginuen ere, hertzetako operazio baten ondotik, Janbatit Mendiboure, gure kantari eta teatrolari hoberenetarik bat, mutil gazte eder eta laketa, ene adiskide mina, Marzel Mendiboure, Katedraleko erretoraren anaia.

Galarrotsak

Bertze antzerki mota bat antolatu zuten ere gazte batzuek, ni Hazparden nintzen azken denboretan. Nere laguntzarik gabe, egia erran, nahiz gertakari horrek oihartzun izigarria izan zuen hedabideetan.

Galarrotsen ohidura biziki zaharra da Euskal Herrian: lehen, alargun bat zebiletarik berriz ezkontzekotan, auzoko gaztek «zerga» berezi bat edekitzen zioten. «Zerga» hura zen, gehienetan, honenbertzeko bat pinta arno. Bertzenaz, galarrotsak jotzen ziozkaten. Haurra nintzelarik, Azkainen, oroit naiz galarrotsei jarraikirik: Jandarmak lasterka zebiltzan arramantza egileen ondotik, zeren nehork ez baitzezakeen begirik hets, harra-botsarengatik.

Holako zerbaite gertatu zen beraz, Hazparne Elizaberriko kartierean: alargun batek ez zion amore eman gazteriarik eta galarrotsak muntatu ziozkaten. Gau guzietz elgarretaratzen ziren, haren etxe aitzinean eta sekulako arramantza egiten zuten, edozein tresnarekin, atabal, untzi, kaza, turruta eta bertze zernahi.

Bainan, ixtorioa gaizki bururatu zen aldi huntati: Tiro egin zuen norbaitek arramantza egileeri buruz: hil bat izan zen eta kolpatu bat bederen.

Auzoko gazte bat, ehortzetako kurutzeketaria, akusatua izan zen. Jandarmek gelditu zuten, Baionara ereman, han zafratu, eta libratzearekin mehatxatu, joanen zitzaizkiola berriz galdezkatzera eta bere krima aitorraraztera. Ondoko egun batez, ikusi zituelarik jandarmak, etxeko alorra goiti heldu haren bila, etxetik ihes egin zuen gizon gazteak eta, oihanera joan zen, bere burua urkatzera.

Berri lazgarri horietaz jabeturik, Pariseko kazetari zirtzil batzu etorri ziren Hazpardenaino, beren zozokeriez apaindurik, berri «arraro» horien saltzeko gero irakurleeri eta, lurra baino beherago ezartzeko gure gazte-ria. Hasi ziren mutil gaizo batzuen edan-arazten, heien, hilerrietara eremaiten eta han argazkitan hartzen, hots, beren zinema antolatzen.

Hortakotz gure gazte batzu elkartu ziren eta erabaki zuten kazetari horietarik bat behar zutela bahitu, oihan beltzera ereman eta, minik egin gabe, larrugorritan utzi. Hazpandarrek beren xedea bete aitzin ordea, Paristar guziak, menturaz norbaitek abisaturik, itzuli ziren Parisera.

Elizaberriko gainetan gertatu ixtorio ilun horrek oroitaraz zezakeen kartier berean gertatu bertze gertakari triste bat, Plumagaineko premu galerianoaren ixtorioa, neronek «Bordaxuri» antzerkiaren gai hartu nuena.

Blandi

Hazparden nintzelarik, bazebila gutartean oraino bertze galeriano bat. Blandi deitzen zena. Aski ongi ezagutu dut. Gizon azkar bat zen, hogeita zenbait urtez galeretan egona, diru faltsu egiten hatzemaia izanik, holetan. Buhame bat bezala bizi zen, ahal zuen tokian jan eta lo eginez.

Jendeak haren beldur ziren. Berak ez zuen deus jakin nahi apezengarik. Noizean behin solastatzen ginen, bainan deus funtsekorik erran gabe. Bere iraganeko bizitzak basatua zuen eta betizotua. Bainan ezin ukatua da, norbait zela Blandi eta bere inguruan larderia gaitza zuela. 1950 irian hil zela uste dut.

Brana

Alta bertze Hazparneko gertakari bat ere ez daukat ahantzirik, era-kuts baitezake nere antzerkietako gertakari batzuk ez direla beti asmake-ria hutsak.

Mutiko gazte nintzelarik, eta kontrabanda piska batekin beldu, Intzolako Bordatik Azkaineko nere sortetxera, bidean atera zitzaian



guarda txar bat, Olhetan bizi zena. Euskalduna zen eta Brana zuen izena. Nere kontrabanda poxia bahitu zaitan.

Geroxago ordea guarda horrek berak Olhetan hil zuen, tiroz, gure aitaren kontrabandako lagun bat, ongi ezagutzen ginuena. Hura zen, Mourguy apez pilotari ezagunaren aita.

Gertakari lazgarri horrek bazterrak asaldatu zituen eta, guarda buruzagiek erabaki zuten egilea despitzea Frantzia Iparraldera. Han nonbait zahartu zen eta hil aitzin erretiratu Hazparnera.

Jakinik gaizki zoala, joan nintzaion ikustera eta erran nion: «Zuk lehen kendu dautazu karga bat, orai heldu naiz zuri bertze karga baten kentzera». Gizonak nere gomita entzun zuen eta nere otoitzekin hil zen. Askotan kondatu diot ixtorio hau, Mourguy adiskide apezari.

Bizkitartean, bertze hil ala biziko gertakari asko bizi izan ditugu Hazparnen, Alemanak hor zirelarik. Jende anitz oraino bizi baita orduko gertakariez oroit dena, baitezpadako liteke zerbait argitaratzea. Ni ez naiz aski osagarrian, lan horri lotzeko. Halere orduko zenbait ixtorio kondatuko ditut, niri gertatuak eta menturaz guti aipatuak.

ALEMANEN DENBORAK

Alemaniatik itzuli berri nintzelarik, «Komandantur»-era zoan telefona haria norbaitek moztu zuen. Alemanek preso hartu gintuzten, zazpi hazpandar, eta heietarik bat ni. Aleman hizkuntza piska bat zekien bakarra ni bainintzen, neri buruz gaitzeko erasiak eta mehatxuak bota zituen komandanteak, bainan gero, denak libratu gintuen, erranez haatik, berriz holakorik gertatzen bazen, denak fusilatuko gintuela.

Istripua

Bertze aldi batez, ilundirian, ogi saltzale baten beribilak, soldado aleman bat jo zuen eta, Hazparneko karrika betean, hila aurtiki. Mendekioaren beldurrez, Hazparnetik urrundu zen istripua egin zuen ogi saltzalea. Lekukoak atera ziren erraiteko, soldadoa mozkorra zela eta, andar batean, bera joan zela autoaren azpira. Duela zenbait urte, Bordeleko karrika batean ikusi nuen, azken aldikotz, beihalako okina eta goxoki aipatu ginuen lehengo oroitzapena.

Aleman apezgaia

Bertze gau batez, soldado aleman bat etorri zitzaitan etxera, gordeka. Apezgaia zen eta bere buruzagien jokamoldeaz ase. Nahi zuen lagun nezan Espainiara iragaiten. Autobusean lagundu nuen Azkaineraino, bainekien hango bikarioa, Carrère apeza, non zebilen. Zorigaitzez, Larrunerak buruz zolarik soldadoa, Alemanek harrapatu zuten eta gero Azkaingo elizako paretaren kontra fusilatu. Han berean ehortzi zuten, bainan geroztik Andde Luberriaga auzapezak lekuz aldatu zuen gorputza hile-rien barnean.

Ihesliarrak

Ene etxean bertze ihesliar mota asko iragan da denbora hartan, batzu Belokeko Beneditanoek igorriarik, bertze zenbait Baionako adixki-deenganik etorriarik. Ahal bezala gidatzen genituen berze aldera buruz.

Oroitzen naiz, bertzeak bertze, etorri zitzaitala egun batez, Jean de Bourbon delako bat. Pétaïn marexalaren idazkari egona omen Madrilén. Bazuen gordetzeko, zumezko otarre handi bat, artxiboz betea. Zenbait egunez otarre hura gorde nuen nerekin eta dena miatu, bainan azkenean, lanjerarengatik erre nuen.

Bertze behin, gerlako gure komandante ohia, Pambrun apeza etorri zitzaitan etxera, Alemanenganik ihesi. Zenbait egunen buruan, ixilka, Bernadin Ichorrots adiskideak ereman zuen sasipeko lagunengana. Geroztik, Pambrun kalonjea erretor egona da Pauen.

Alemantsak

Batzuetan irri egitekorik ere bazen, hala nola, uda minean, armada-ko bizpahiru alemantsa etorri zirelarik gure gazte-etxera eta oharturik han hurbil nindagola, ene sotana beltzarekin, otoitzetan ari, etxe aitzineko soropilan buluz gorritan etzan ziren, trufatzeko.

Ni ez nintzen kantitu, bainan izeba gelaria hasarre gorritu zitzaitan, oihuka hasi eta erotu bezala. Manatu nion berehala barnera sar zedin, eta bakean utz zitzaiz gure auzo «galantak». Ni, han berean, jarraiki nintzen ene otoitzari eta, ni baino lehen nekatu ziren alemantsak.

Mongoliarrak

Gerla aitzina zolarik, Alemanek ekarri zituzten Hazparnera Mongoliar presonerak. Hauek bazituzten zaintzeko armadako zaldiak. Jaistei-ko aitzinean den iturrira eremaiten zituzten edatera. Lagun batzuek



pozoindatu zuten edangia eta zaldiek leher egin zuten. Aitzindariak zain-tzaleen gain eman zuten makurra.

Belokeko sarea

Makur gehiago egiten zion etsaiari, Belokeko Beneditano batzuekin lagun batzuek antolatua zuten sareak. Bainan egun batez, hartuak izan ziren gure lagunak. Batzu jin ziren gibelera Baionatik edo Bortetik, hala nola, aita Ildephonse eta Hazparneko Tellechea, «Beso motza». Bertzeak aldiz, Dachau eta Alemaniako bertze zelai beldurgarrietara ereman zituzten, hala nola, Belokeko aita Hondet abadea eta aita Joannategi priorea. Senboseneko Lissarrague aita-semeak. Zenbat ez ziren han gelditu! Gogoan ditut bederen, Senboseneko aita, Lordan zerri hiltzen ari zelarik, Puttikoteira bere etxera deitu eta ereman zuten Xermin Cornu, «Zerri hiltzale» ezaguna. Alemanian hil zen ere Goutenègre Zelaitar gaztea, Espainiara iragan ondoan, Alemanen eskutara itzuli zutena.

Tiroz hilak

Ez dezaket bada kapitulu hau utz, aipatu gabe, gure etxeko ondo-ondoan, tiroz hil zituzten bi hazpandar gazteak. Albert Hirigoyen eta Xemartin Tipy, Gerla galtzera zoazela sendi zuten Alemanek eta beren legeak zorrozten ari zituzten. Debekatu zuten, tenore batetik aitzina, etxetik ateratzea.

Gure auzoko hiru gazte tenorez kanpo beren etxera sartu nahiz ari ziren, «Abere portuko» kamioi alemanen bazterretik. Guardia alemanak, itzal zenbait hurbil sumatzearekin izitu ziren eta tiroka hasi. Hiru hazpandarretarik batek, Xobur Dumont «Lumak» baratze barnera jauzi eginenez, bizia salbatu zuen.

Bertze bat aldiz. Albert Hirigoyen, «Abere-portua» beheara heldu zena, hila erori zen, bere anaiaren leiho azpian.

Eta hirugarrena, Xemartin Tipy, Panpi Tipy gure apezgai lagunaren anaia, odol-hustu zen, luzaz deika ari izanik auzoeri. Hauek, leihoak ideki nahi zituzten aldi oroz, tiroak berriz hasten omen ziren. Azkenean, gibelako atetik jin ziren auzoak Bikaritegira, gure abisatzera. Ni orduan, joan nintzen oihuen lekura, argia pizturik, besoak altxatuz eta alemanez mintzatuz ahal bezain gora. Soldado alemanek inguratu ninduten eta hurbiltzera utzi, bainan Albert eta Xemartin, gure bi gazteak hilak ziren, elgarretarik zenbait urratsetan.

Amerikanoak heldu

Amerikanoak leihorreratu zirelarik Normandian, Londresetik etorri zen manua, gibelatik jazartzeko etsaiari, ahal zen toki guzietan. Bainan, egia erran, Hazparne aldean ari izanak baikinen zenbait lagun, gostarik gusta, bertzalderako bideen zabalik atxikitzen, armarik biltzeko axola handirik gabe egonak ginen.

Mauleko eskualdean armak bazituzten eta oldartu ziren. Hil bat edo bertze izan zen. Zenbait bonba bota zituzten Alemanek Mauleko herriaren gainera. Ziberoko sasipetarrek aldiz Aleman batzu preso hartu zituzten. Ez zen bertzerik izan hemen gaindi.

Barneko gatazkak

Bainan etsaia lekutu orduko, hasi ziren barneko gatazkak. Ordu arte Alemanen alde beren burua agertu zutenak, ixildu ziren, non ez zituzten nagusi berriek itzalera bildu. Odol ixurtzeak ere izan ziren zorigaitzez.

Laster ikusi zen bi talde nagusi bazirela Frantziako gobernuaz jabetu nahi zirenak: batetik, «Forces Françaises de l'Intérieur». F.F.I. edo Barneko Frantses Indarra; guti gora behera, Amerikanoci, Anglesei eta de Gaulle-ri jarraiki nahi zirenak; bertzetik, «Franc-Tireurs et Partisans». F.T.P. edo Bere Gain-eko Alderdikideak, hots, Alderdi Komunistaren gizonak.

Hazparneko egoera

Hazparneko aldean, erran behar da, Louis Madré familiari esker eta bereziki André Madré jeneralaren bitartez, lehen taldearekin bagenituela aspaldian loturak. Alemanak joan zirelarik, gauaz eta ixilka, batzu Espainiara buruz ihesi, bertzeak Baionara treinen hartzeko, gu, hamar bat lagun, aitzinetik hitzartu bezala, bildu ginen herriko-etxean. «Comité de Libération» deitu elkarte antolatu ginuen, eta Louis Madré, geroxago auzapez izanen zena, gure buru izendatu.

Ez zen Hazparden nahasmendu handirik izan, ez bertze toki askotan bezala odol ixurtzerik, ez emazte batzuen bilo moztetik, nahiz bat edo bertzeri kontseilatu genion, behin herritik urruntzea. Hazparneko jaun batzu atxikiak izan ziren halere, zenbait egunez, Baionan, Polo-ko sareen barnean preso harturik. Bertzalde Landesetarik F.T.P. talde bat etorri zitzaikun, bazterrak nahasi beharrez, bainan gibelera igorri ginuen, gurez-gure legea egiteko aski handi ginela erakutsirik.



«Aleli»-ren kantua

Bizkitartean, oroitzen naiz, egun batez, Zelaiko plazara deitu nindutela, «Bitoria»-ren ospatzeko egin nahi zuten «Bandera goititze» batera, «Tanteene»-ko ostatuan aurkitu nuen gizon multzo bat bildua, «Aleli» deitu Behereko Zelaiko gerlari ohi medailadun batekin.

Ene sotana ikustearekin Aleli-ri gogoratu zitzaion batzuetan entzuten den erran zaharra: «Erregeak eta Apezak dituguno, beti gerla izanen dugul» eta bota zuen niri buruz: «Hau apeza duk! Honek behar dik gaur hill».

Lagunek berehala moztu zioten: «Ago ixilik gizona! Gure komandantea duk Larzabal apezal».

Eta Alelik orduan: «Bon, Larzabal, ez zaitugu hilen, bainan gurekin trinkatzekotan»

Ihardetsi nion gogotik trinkatuko nuela harekin, bainan frantses bandera goititzearekin «La Marseillaise» kantatu behar zenaz geroz, hari zoakiola, gerlari ohi medailadun gisa, kantua hastea.

Baietz eta baietz, denak elgarrekin joan ginen pilota plazara. Kantua hasi behar izan zuelarik ordea, Alelik ez zezakeen nehondik airea hatzeman eta azkenean atera zuen, hobe ginuela denek ginakien bertze kantu bat kantatzea. Horra nola, Zelaiko pilota plazan, frantses bandera altxatu ginuen, denek batean kantatuz. «La Marseillaise»-en orde... «Iruten ari nuzu».

Frantses armada berria

Handik zenbait denboraren buruan Frantziako gobernu berriak, behar zuela armada berri bat antolatu. Hazparnera etorri zitzaikun Bordenetik, Chansou jenerala, bertze aitzindari multzo batekin. Soldadogai gazteen prestakuntza nahi zuten antolatu eta horrela, nere gain izan nuen, Goalard jandarme buruarekin, Hazparne, Bastida, Ahurti eta Landesetako Saint-Barthélemy herriko eskualde osoaren buruzagitza.

Ardietsi nuen neronek hautatzea laguntako, bi sarjant gai, Xalbat Charritton Ehulateikoa eta Jean Etcheverry Xilbendeikoa. Bertzalde hitzeman zaidaten, ofizioko sarjant bat edo bertze igortzea, Baionatik. Eta bilkurak egiten hasi ginen, larunbat guziez. Haritzbarnen berean, Malobrak egiten genituen, gaztetxetik kanpo, eta batzuetan joaiten ginen Baionaraino.

Horrek hiru urteko bat iraun zuen eta gero proposatu zaidaten armadan gelditzea, lutinant graduarekin, bainan nere xede bakarra zen apeztasunari emaita nere bizi guzia, eta hala egin nuen.

HAZPARNEKO AZKEN URTEAK

Bazen zer egin apez batentzat Hazparnen berean. Louis Madré, aspaldiko adiskidea, zen auzapez berria. Mirande jaun erreter zaharrak, beti gogoan zuen. Maulen bikari zelarik, hango Aragoiar etorkinekin berak egin ez zuen lana, eta gazte denboran hutsegín horrek sortzen zion bihotzean arrangura. Auzapeza eta apeza, biak alde genituen beraz bika-riek, gazteekin egin genezakeen eginahalean.

Oroitzen naiz, Bordelera edo Loiolara gazteekin egin itzuliez: Baionako biltzar jendetsu batean, Roncalli kardinalearen ohoretan egin ikusgarriaz; Zelai Biestan ospatu eztei batzuez: eta, nola ez, Haritzbarnen antolatu hainbertze bilkuraz eta hainbertze «komediaz».

Hazparneko gizartea

Aldakuntza handiak heldu sendi zielarik ordukotz, Hazparneko gizartearen berezitasunak ez ziren oraino denak galduak. Hala nola, Hazparneko ekonomiaren berezitasunez bertzalde, hazpandar handi batzu, inguruko besta guzietan ikusten zirelaketz, fama atera zen aspaldian, hazpandar guziak tripa handiak zirela.

Espantu fama ere baitzuten, kondatzen zaitzuten, egun batez, bi hazpandar Ameriketatik itzuli zirela eta berriketan hasi. Batek zioen: «Gure eskualdean hain hotz egiten zian, non pixegitean, pixegin arau, pixa hormatzen baitzen!». Bertzeak ihardetsi, holetan: «Ni nintzen tokian berriz, hain hotz egiten zian, non sua piztean, sua xut-xuta jartzen baitzen, pitz arau, berehala hormaturik!».

Apez herria zela Hazparne, zen ere aspaldiko aipua eta, ni han nintzelarik, baziren oraino bizi berrogoi bat apez, herriko seme, anitzak goiko kargutan.

Izengoitiak

Hazpandarrek dira bertzalde trufari gaitzak. Non emaiten da hainbertze izengoiti?

Mirande gure erreter zaharrari «Sagu xuria» erraiten zitzaion, bilo xuriak baitzituen eta ezta bezain abila baitzen, ateka txar guzietarik ateratzeko. Erramun Idieder, haren ordaina berriz «Biper beltz» zen; bizi itxura kausitzen zioteten. Gu, gorputz txarreko hiru bikari ginen, izen-



goitia ukan ginuen, «Mediak bi». Elizako lehen galerian, ohorezko lekua bazelakotz herriko auzapez eta kontseilarientzat, «Astotegia» deitzen zuten toki hura, Hazpandarrek.

Ez nuke nehor mindu nahi, baina gauza jakina da. Ezpeletatik Hazparnera bizitzera etorri gizon larri bati eman ziotela izena, «Ezpeletako mendia»: elizako kurutzeketari gotor bati berriz «Barrika saindua»; elizan beti berant sartzen zen andere handi bati, eliza kantu patxadatsu baten arabera, latinez, «Tantum Ergo»-sa; gaztetan jaun aberats emaztekari baten proposamenak arbuiatu zituen mutxurdin bati, frantsesez, andere «Tuturien»: behialako andereak ihardetsi omen baitzion bere jaunari, «Avec moi monsieur, c'est tout ou rien»: bertze zapatain gazte ditxolari bipil bati, espainolez, nork daki zergatik, «Xemartin Mutxatxo».

Ditxolariak

Xemartin hori bera, Guillaumondeguy deitua, Gainerako karrikan bizi zen. Haren ateraldiak kurri ziren bazter guzietan eta bereziki zinezko «elhe kofoinak» deitzen genituen lantegietan.

Bazen adibidez, Hazketako kartierean auto-gidari txar fama zuen eiherazain bat. Plazatik urrun zebilela beribilez, eiherazainak hatzeman zuen Xemartin, oinez joaki; bere autoarekin gelditu zen autozaina eta erran zion: «Errazu Xemartin, zato nerekin, autoan eremanen zaitut!». Bertzeak ihardetsi: «Habil aitzina, mutikoa, presatua nauk!». Zenbat hola-ko ez luke ba kondatzeko, andere Darruspe, Xemartin zenaren alabak!

Horra beraz, nolako Hazparnen izan genituen, garai hartan, herriko apezek, bizpalau zeregin berezi eremaiteko. Eta lehenik Boulogneko Ama Birjinaren Frantziako itzulua.

Boulogne-ko Ama Birjina

Orai aski urrun ikusten dugu historia hori, baina gogoan hartu behar da. Alemanen alde eliza gizon batzuek erabili solas eta urratsek izan zutela gibelondorik jende xehearen artean.

Adibidez, Hazparneko bikari nintzelarik, ukan nuen, bertze apez anitzek bezala, Jean Ybarnegaray, Pétain-en ministroarenganik gutun bat erraiteko, gobernuko eskoletan errientik balin bazen eskola girstinoen kontra sobera agertzen zenik, jakinaraz geniezaion berari lehenbailehen. Gaizki heldua zen nerekin, ezen ene lagun hoberenetakik nuen Zelaiko errienta, Dibar jauna. Baina ez da harritzeko, apez, apezpiku eta kristau batzuen kontrako mugimendu bat abiatu balin bazen bazterretan, gerla ondoan.

Hainbertzenarekin, ez dakit nori gogoratu zitzaion, Frantzia guzian barna ibilaraztea Boulogneko Ama Birjinaren itxura, Frantsesen debozio-nea berritzeko xedetan. Horra nola etorri zen Hazparneraino, Frantziako itzuli berri hori. Joan ginen Beskoitzeko zubiraino, herri guzia, erraiteko maneran, Ama Birjinari ongi etorri egitera. Handik kantuz eta otoitzean, anitzak ointutsik, itzuli ginen elizara eta gaua elizan iragan ginuen zenbait-tek. Gau osoa han egon zen apez bakarra izan bainintzen, leher egina jaiki nintzela, gogoan daukat oraino.

Dena den, Frantsesen otoitzeri eta Amerikanen «plan Marshall» lagungarriari esker, arras behera eroria ikusia ginuen erresuma «handia», berriz altxatu zen aski laster.

Zindikaia bat ala bi

Eztabaida bat ere izan ginuen gerla bururatzean, zindikatak berpiztu zirenean. Galdea zen, ean langileen intresen zaintzeko, hobe zen langile guziak zindikata bakarrean elkarretaratzea, ala langileak libro utzi behar ziren bizpahiru zindikataren artean hautatzeko.

Lehen kasuan, langile kristauek, bertze guzien artetik parte hartuz, adieraz zezaketen beren ikuspegia. Baina, bazen gibeletik anitzen beldurra, komunistek menpera zezaten osoki delako zindikata bakar hura.

Albert Terrier, Baionako apezpikuak, deitu gintuen kontsultara, langilez arduratzen ginen apez guziak. Gaia eztabaidatu ginuen denen artean, eta nere ikuspegia ere zen bezala, jaun apezpikuak ohar bat argitaratu zuen, bere astekarian, langileen zindikatentzat libertatea eskatzeko.

Hazparneko despedida

Nere Hazparneko denbora bururatzera nindoan, gisa oroz: 1950eko udan «adiskide» batzuek asmatu zutelarik, ni Santa Grazira igortzea, izan zen, erran bezala, nere lehen aipaldia.

Ondoko urtean, Sohutako parropia aipatu zaidaten behin, baina gero, parropia berri bat sortu behar zela Zokoako herrian eta nehork ez zuela xede hori bere gain hartu nahi, jaun apezpikuak deitu ninduen erraiteko, ni nintzela menturaz egokiena lan horren egiteko. Jakinez zein gogorrak ziren baldintzak eta ez zuenaz geroz ez elizarik, ez apez-etxerik, ez dirurik, niri eskaintzeko aitortzen zuen apezpikuak, ez zuela nere izendatzeko eskubiderik. Niri zegokidan halere ihardestea, ean onartzen nuen Zokoako erreter izendatua izaitea.

Gogoeten egiteko zortzi egunen epea galdeginik, ihardetsi nuen azkenean: «Bai, onartzen dut». Eta bizikleta harturik, joan nintzen Janba-



tista Etxeberri Urruñako erretorarengana, ene izendapenaren berria emaitera. Urruñako erretor hori zen ene aspaldiko ezagun eta adiskidea, nere irakasle izana Uztaritzeko seminarioan. Berehala, gomitatu ninduen, Arotzenea hotelean bazkatzera eta, auzo berri sisa, lehen solasen egitera.

Hazparneko azken apairua

Despeditu aitzinetik, Mirande erretorak egin zuen, ene ohoretan, bazkari eder bat. Hortara gomitatu zituen ez nere adiskideak, baina Hazparneko auzapeza eta jauneria. Apez xaharra beti izana baitzen jateko miliki atontzailea eta, mahain mintzalari abila, egun hartan ere hala agertu zen. Jan ondotik erran zituen solasek harritu zituzten anitzak.

Huna laburzki zertsu erran zuen: «Erretor naizenaz geroz, nere hamahirugarren bikarioa nuen, Larzabal jauna. Aitortzen dut, bertze bikarioetan nehor ez nauela honek bezainbat sofriarazi (Denek: hu, hu, hu!), baina aitortzen dut ere heien artean nehor ez dudala hau bezainbat maitatu (Denak irriz). Jakin behar duzue. Larzabal jaun bikari hunek hartu dituen bideak, egin dituela ez bakarrik nere jakinean, baina nere baimen osoarekin. Eta baitezpadako zait, hemendik aitzina, jarraitzea bide hoier».

Eta bazkal ondoan, azitaren azpian aurkitu nuen paper xaku bat, orduko hamar mila libera zituela barnean. Mirande jaun errelerak eza-riak.

Jadanik errana dut nor zen Mirande erretora. Berak maiz kondatu zaizkidan hurreko oroitzapenak, nola aita zuen mugazain fede handikoa, baina zorrotza: Bere andrea gelditu omen zuen berak Ainhoako mugan eta bertzaldeko saltegira igorri, etxekotzat erosi pusketa zenbaiten itzultzera, ez zuelakotz etsenplu txarrik eman behar sekulan nehoi. Gero apeztu ondoan, egona zen Maulen eta Baionan bikario, erretor izan aitzin Hendaian behin eta azkenik Hazparnen. Bere bihozmina aitortua zaitan. Maulen bikari egon zelarik, mende hastean, ez zelakotz gehiago axolatu hango langileriaz. Ez zuen nahi holakorik gerta zakigun Hazparneko langileekin eta hortakotz beti izan nuen haren sustengua nagusi-langileekilako gorabeheretan. Horra zer nahi izan zuen berak adierazi Hazparneko herri gizon guzien aitzinean, ene despeidan. Eta geroztik oraino, bere kargua utzi ziolarik Philippe Aranart erretor berriari, hau ere igorri zuen eni buruz eta Hazparneko langileriaz bereziki mintzatu ginen luzaz.

Hazparneko langileen agurra

Ez dut bada ahanztekoa Hazparnetik urruntzean herriko langileek egin zaidaten agurra. Ez nintzen ez nehoarengana izan adioen egiten. Ez

ginuen nehon egin biltzarrik. Baina nonahi bidean zoazilarik, langileak gelditzen ziren eta beren agurrarekin diru apur bat eskura emaiten zaidaten. Ordu arte sosik gabe bainintzen, hola bildu diru horri esker izan nuen Zokoako eliza eraikitzen hasteko doia. Bertzela, orduko jukutria batzuez ez dut den gutieneko bihozminik, baina irri egiten dut, ez baitira horiek izan, beren ustez gizon handiak ziren gizon tipi batzuen ttipike-riak baizik.

Piarres Larzabal
(30-XI-1982)



ZOKOAKO ELIZA

IZENA

Zokoako erraten da, ez Zokoko. «Zokoa» da izen berezi bat, «Zoko» aldiz da orotako izen bat. Hortakotz erraten dugu: «gure etxe zokoko zikinak». Erran zahar batek dio: «Dena zoko-moko Azkaingo». Zoko asko badira Zokoan baina Zokoa da kartier osoaren izena. Hortakotz gure kartiereko elizaz diot: Zokoako eliza eta ez: Zokoko eliza.

Horiek hola, jakin behar da Zokoa dela, Urruña eta Ziburu, bi herrietako zatietarik, bat egina den lurraldea. Beraz Zokoak baditu bi auzapez, bat Urruñakoa eta bertzea Ziburukoa. Zokoa parropia bat egin zelarik, mugatzat eman ziozkan, Hendaia aldetik, Etzango erreka; Urruña aldetik, treinbidea; Ziburu aldetik, marra bat, hilerrien gainetik Ibinarrira doana. Baina Zokoako elizara biltzen direnak ez dira baitezpada Zokoa bertakoak; asko etortzen dira bazter herrietarik.

AINTZIN-URRATSAK

Zokoan egun batez egin beharko nuen lana ez zen errexa. Lan horri aurretik apailatua nintzen. Bertzeak bertze, Hazparnen nintzelarik, bi aldiz, fede aberatseko herri hori utzirik, igorria izan nintzen fede larre joana zen tokietara. Hetaik bat zen «Coq de la Nive» deitu Baionako kartiera. Bertzea zen Oragarreko «Bartak» deitu kartiera.

Baionako kartier hortan ez baitzen ez elizarik ez kaperarik, jendea biltzen nuen «dancing» batean. Hango jende gehiena zen nonbaitik etorria, bereziki Espainola, elizatik urrun bizi zena. Heien politika zen arnoa edatea eta apena jatea.

Arrats batez nere biltokiko atera jin ziren, segur bertze batzuek beroturik, nahaskeria muntatzera, bi lagun. «A bas la curaille!» oihi egiten zuten. Sarrarazi nituen eta galdegin nioten mintza zitezen gizonki eta ager beren arrangurak denen aurrean. Baina mutu gelditu ziren.

Jendea kexu zen barne artan. Zenbaitek nahi zioten zanpaldi bat eman. Hortaratu gabe, kondenatu genituen gutartean egoitera, baina hitzik atera gabe. Nere arrats hartako predikua frango prestuki entzun

zuten. Mintzatu nintzen artzain beztitzen diren otsoez, nola gizagaizo batzu beretzen dituzten beren solas ederrez edo berdin edariaren bidez.

Oragarreko Bartetara igande arratsalde batez joan nintzen bizikletaz. Hara heldu orduko deitu ninduten etxe batera: Gizon bat zen, kani-betaz zauritua, mozkor kasaila baten ondotik. Kartier hartan ez zen autobiderik, ez eta ere autorik. Sendagile hurbilena 12 kilometrotan. Mirikua etorri artino zauritua arta hartu nuen.

Kartier hartan bizi ziren 13 familia, gehienak kaskoinak. Zenbaitzu salbu, gehienak pobreak eta gisa guziz atzeratuak. Ez zen ez dendarik, ez ostaturik. Hamabortz egunez han bizi izan naiz, etxe desberdinetan bazkalduz egun guziz. Jende batzuen fantesia zen, jatean ni mozkorraztea, baina nik baso arnoa ez nuen hunkitzen, janaldia bukatzean baizik, eta orduan, dena betan klikatzeko.

Hango jendea bizi zen pixka bat baserriko lanetik, pixka bat ihizi eta arrantza debekatutik. Hango nexkatxak ihiztari harrigarriak ziren. Ihizia egiten zuten andereder tipiez baliatuz. Nexkatxa bat ematen zen lapin zilo baten atean, zaku bat idekia eskutan. Anderederrak, lurpez, ihesi joanarazten zuen lapin basa. Hau, lurpetik ateratzean, jauzi batez sartzen zen zakuaeren barrenean.

Kartier hortako biltokia nuen hor den jauregi zaharreko soto bat. Jauregi horren aurreko zuhaitz bati lotu nion joare bulunba handi bat. Joare hura jotzen nuen: jendeen bilkuretarat deitzeko. Elektrikarik ez baitzen, bakoitzak ekartzen zuen argi bat gure arratsetako bilkurentzat. Nere «soto» hortara, batzuetan prediku denboran, sartzen zen oilo koloka bat, bere xitoekin edo zerri zenbait. Soto haren selaurutik, askotan, gari alea ixurtzen zen gure gainera.

Bitzi bada bitzi, jende horien erdian, arras ongi laketu nuen. Maite nituen. Bihotz ilundura batekin, urrundu nintzen horienganik.

Baina Baionako eta Oragarreko bi egonaldi horietaz bertzalde, on da jakitea, nere Zokoako jokaerak ulertzeko, 12 urtez, egona nintzela bikari Hazparne herrian Mirande jaun erretor zaharrarekin, eta honek sustengaturik, jadanik erran bezala, ohitua nintzela jende langilearekin harreman onak izaten.



LEHEN EGOITZA (1951)

Zokoan nere lehen egoitza izan zen «El Sol», Talichet jaunaren etxea. Talichet hori gizon ezkondu bat zen, inginadorea eta igeltsu tinkatuan jakintsun trebea. Haurrik ez zuen eta emaztea hil zitzaionalarik, ez baitzuen federik, hilerrietan sartu zuen deus elizkizunik gabe.

Emaztea ehortzi ondoan, gogoetak egiten hasi zen, betikotz suntsitzea ote den heriotzea, ala biziz aldatzea. Fededun bilakaturik bataiatu zen eta apezteko erabakia hartu zuen. Beneditanoetan sartu zen, «La Pierre qui Vire»-ko komentuan. Handik etorri zitzaitan behin, bere leku zaharren ikustera. Zenbait etxetan izan zen barkamendu eskatzen, denboraz fedearen kontra atera zituen ahopaldi batzuenengatik. Urte gutiren buruan hil zen. Bere bizitegia utzi zuen Urruñako parropiari, han meza emateko, noizean behin bederen.

Bizitegi hori arras gaizki zatikatua zen: Bi barne bertzerik ez zituen, eremu piska bat zutenik; bat zen autolekua, bertzea lantegia. Joan nintzelarik bizitegi hartara, autolekuan aurkitu nuen gizon bitzi bat, han aloiatzen zena.

Gizon bitzi bat

Berrogoi bat urte zituzkeen, gorputzez luze eta mehea zen. Janari mota asko bazauzkan mahain baten gainean, denak fruitu eta belarkiak. Bere ahotik ikasi nuen musikaria zela eta naturista. Naturista zelakotz, ez zuen etxeko uretik edaten, iturrikotik baizik. Ez zuen sekulan elektririk pizten. Argitzeko ez ote zituen hor iguzkia eta ilargia? Frangotan, bereziki gauez, piano zahar bati joka ari zen: Chopin eta Beethoven zituen musikagileetan maiteenak.

Egun batez, ni sartzean lursagar gordin jaten ari zen. Erran nion harritzen nintzela nola jan zezakeen lursagar gordina. Nik, presoner nintzelarik, jan izan nuela askotan beterraba gordina, bainan ezin irents neza keela patata gordina.

Orduan hitzaldi luze batean espikatu zaitan nola joka lursagar gordina maitatzeko: Lehenik jaten duzu ahamen bat, eta hortan gelditzen zira. Gero hasten zira eleketa zure buruarekin: «Zer gizon ahula haizen, to! Zer, ez duka jaten ahal hain ona den lursagarra? Jan-zak, jan!». Orduan bertze ahamen bat irensten duzu. Eta hola, emeki emeki jaten duzu lursagar oso bat eta, ondotik, egiten dituzu ase on batzu patata gordinekin.

Gizonak berak, janari horrekin eta bertze gainerakoekin, higituak eta belztuak zituen aho aurreko hortz guziak. Hortakotz haurrek enana zioten izengoitia: «Lapina».

Janariez bertzalde, bazituen bere ikusmolde bereziak garbiketen gainean: Xuriketak egiten zituen ur hotzarekin eta salboinik gabe. Erran gabe doa, hedagian zintzilik zauzkan atorrekin eta galtzoinek ez zutela heien jaunzteko gutizia handirik emaiten.

Dena dela, gizon herrementa horri eman nion nere bizitegi berritik despeida. Ondoan zuen bertze autoleku batera joan zen, bizimolde berrari jarraituz. Neronekin aldiz, nere autolekuan antolatuta nuen ene bizitegia, eta Talicheten lantokian kapera.

Lehen kapera

Kapera baten mublazteko behar da anitz gauza. Zokoako muga bada etxe on bat, «Elorrienborda» deitua. Etxe hortan bizi zen denboraz apez bat. Hunek bazeukan hor berean kaperatto bat, meza emateko behar ziren puskekin. Puska hek ukan nituen present, nere kaperarentzat Ziburuko erretorak eskaini zaizkidan bertzalde, sobrakini zituen elizako jantzi batzu. Kofesionale bat muntatu nuen, taula bati zilo batzu eginez daratuluarekin eta azkenik baliatu nuen harmonium zahar bat, ondoriotasunez ukana.

Bizitegia

Ene bizitegiaren egiteko, autolekuan ezarri nituen nere ohea eta liburutegia eta erdian jarri nuen mahain bat zenbait alkirekin inguruan katiximako haurrentzat.

Antolaketa hortan izan nituen bi lan biziki gogorak: Lehenik komu-netako zikinen bidea tapatua hatzeman nuen eta zenbait egunez ari izan nintzen, pala eta pikotxarekin, mila erro zain eta zikinkeria kentzen.

Bertze lan bat zen, eliza ezkila bat nonbait finkatzea, kapera bazela erakusteko, goiz-eguerdi-arratsetan anjelusa joiteko, eta meza aurreko deiak adierazteko. Ezkilatto bat bildu nuen, Elorrienbordatik eta gate bat bertzalde erosi. Xemartin harginak finkatu zaitan delako ezkila, etxeko teilatu gainean, neronekin laguntzen nuela peontza lanetan, mortairua egiteko eta zurubier gora eremateko. Zurubi harekin zenbait odolgaizto eginarazi dauzkit, bereziki Xemartinengatik, batzuetan, edana etortzen baitzitzaitan gaixoa, lanera.



APEZ SART'ZEA ETA ELIZAREN ABIATZEA

Elizaren lege, herri batetara izendatua den erretorak elizkizun berezi batzu egin behar ditu bere erretor podoreez jabetzeko.

Nik ez nezakeen egin holakorik, ez bainuen elizarik. Ene Zokoako apez-sartzea egin nuen beraz Donibaneke apezetxean, lekuko nituela, Irigoyen Donibaneke erretora eta Cachena Ziburukoa.

Donibaneke apezetxeko salan belauniko egin nuen horrela irakurketa luze bat, latinez. Aitortu nuen «antimodernista» nintzela, eta ez nuela deus jakin nahi ikuspide heretiko hortarik. Egia erran, ene irakurketa, latin zerratuan emana baitzen, ez nuen gauza handirik ulertu. Bainan ez zaitan horrek gosea kendu, ondotik mahain berean erakutsi nuen bezala.

Elizarik ez nuen denboran, bataio, ezkontza, ehorzketak egiten nituen Ziburu edo Urruñako elizetan eta igandetean maizenik. Zokoatik kanpo nindabilen ene elizaren eraikitzeke diru eske.

Elizako lurra

Urruñako herriari erosi nion eliza eraikitzeke lurra, 70 libera zahar ordainduz metro karratuko. Denbora hartan herri lurak salgai ziren arras merke, ez baitzen ez elektrikarik ez urik ez askotan biderik. Gure lurra, dena sasi zen, biderik gabe, han hemenka zenbait haritz zahar. Lehenago, onjo beltza usu agertzen omen zen toki hortan.

Aizkora eta sega berriak erositik, lotu nintzen tira-ahala lurraren garbitzeari. Izerdi onik atera nuen, sasi eta lahar zarrapo frango ere bai zango-besoetan. Jendea harriturik zagon niri beha, ez baitzuen behin ere ikusi apezik sotanetan ari holako lanetan.

Lekuko gehienek irri egiten zuten naski, beren artean ziotela: «Apez xoro horrek eliza bat eraikiko omen dik toki hortan. Ez duk ez luzaz ariko hola lanean. Zentimorik ez omen dik. Laster ikusiko dik hobe duela hor patata ereiten hastea». Kasurik eman gabe, ni nereari ari nintzen.

Batasun berria

Baitezpadakoa zen ordea, elizaren eraikitzea ez zadin izan gizon soil baten lana. Legezko batasun batean bildu ginen beraz 15 gizon, ofizio guzietakoak, denak Zokoatarrak, denak izpiritu ernekoak, elkar laguntzeko on eta prest zirenak, ez izanik ere denak eliztiarrak. Hauek dira hoienez izenak: Pierre Pourtau, Joseph Journade, Jean Mingo, Martin Echave, Pie-

rrre Adam, Armand Grillard, François Biscay, Jacques Courtois, Vincent Iribarren, Henri Larreguy, Pierre Laens, Martin Passicot, Martin Sansebastian, François Urrutia eta ni, Pierre Larzabal.

Bilkura multxo bat egin ginuen gure batasunaren araudia zuzentzeko eta legezatzeko eta bakotxari bere zeregina finkatzeko. Buruzagi izendatu ginuen Pierre Pourtau eta ni ezarri ninduten idazkari. Arkitektutzat hautatu ginuen Pavlovsky Donibaneke eta lanen buru Ganix Alzate Zokoakoa.

Pierre Pourtau Biarnesa zen, Biriatur batekin ezkondua, itsas inginadorea, etxegintzan ere ikasia eta gizon zuzena.

Pavlovsky jauna sortzez polonesa zen, Donibandar batekin ezkondua. Gizon ixila, bihotz onekoa. Elizaren plana guziak urrik egin zituen. Laket zuen bere orduz ixorio pollit batzuen kondatzea.

Hala nola Chaliapine kantari famatua bere familiakoa omen zuen eta gizon ona zela zioen, sobera edanari emana, zorigaitzez. Emazteak gerla egiten zion, debaldetan: apairu handi batzuetan, bere basoa hutsik utziko zuen bainan Pavlovsky aldean balin bazuen, berdin honen basotik edanen zuen.

Bertze behin gertatu zitzaion Heletara joaitea hango zinema planen egiteko. Irri karkaraz itzuli zitzaigun, bere emazte gaztea ikustearekin ez zuena hartaz erretorak gaizki pentsatu? Gero konprenitu zuenean bere legezko laguna zeramala arkitektuak, eztitu omen zen apeza.

Ganix Alzateren legezko deitura Sansebastian zen, bainan denek deitzen ginuen bere etxearen izenetik. Gizon ederra, nortasun handikoa, zernahi lanetan ikasia zen. Ni Zokoara etortzean bazituen 30 bat langile, bainan izanak zituen 80etaraino. Bere esku zituen. Donibanetik Zokoaraino, itsasoari doazkon kasik lan guziak.

Behin itsasontzi kozkor bat hondatu zen Donibaneke plaian. Ontzia ezin zuten ateratu Frantziako inginadore ezagutueneke. Ganixek lana hartu zuen bere gain eta bere idiekin lortu zuen ontzi hura itsasoratzea.

Ganixek zuen egina, gaur oraino Zokoan xutik den pilota plaza. Jakin zuelarik eliza bat eraikitzeke gindoazela, etorri zitzaian galdetzerari hari eman niezion lan horren egiteko ohorea. Elizaren batasunak gogotik onartu zuen eskaintza eta hitzartu ginen nola egin lanak eta ordainketak. Zorigaitzez Ganix hil zen 1957an 59 urtetan, eliza bukatua ikusi gabe.



ELIZAREN LEKUA

Eliza eraikitzeko hautatu lekua mendixka tontor bat zen. Hura behar zen lehenik apur bat zelaitu. Bainan garai hartan, ez zen gure inguruan gero nonahi zabaltu diren lurra erabiltzeko tresna handi hoietarik. Laguntza eske ibili nintzen Zokoa, Urruña eta Azkaingo laborarietan, bakotxak ekar zezala ahal zuen laguntza besoz, kabalez edo tresnaz.

Mendixkaren kaskoa irauli ginuen ahal bezain barna eta lurra gain beheiti ekarri, bainan laster konturatu ginen mendixkaren azpia harria zela. Ganixek proposatu zaitan mendixkaren zolan berea zuen lur bat trukatzeara, eliza han egiteko, Untxin erreka aldetik. Berak ordainez harrobi on bat izanen zuen gure mendixkaren lekuan.

Bainan nere eliza nahi nuen goratasunean, ez nion onartu trukada Ganixi. Eta lurra utzirik zen bezala, mendixkaren azpiko aldetik murre bat altxatu ginuen eta hari finkatuz muntatu gaurko elizak duen zimentatzako zoladura. Heldu baita gaurko elizaren azpian badela hutsarte bat gaitza, non egin daitekeen peko eliza bat, kasik gainekoa bezain zabala.

Bertze nahigabe bat gertatu zitzaikun ere anartean: Elizatik gorago bazuen Ganixek pentze bat eta etxeko morroia, gizon adineko bat igorri zuen hara zakurrarekin eta idi pare batekin bazka segatzera. Ortzia gainera erori zitzaioten eta gizona bizirik atera balin bazen, zakurra eta idiak erre zituen ortziak. Geroztik badakit gure gain hartan, burdin hariak direla edo, usu ortzia erortzen dela.

Elizaren planak

Pavlovsky jaunarekin ere bagenituen usu bilkurak, gure elizaren planak finkatzeko. Asmatzen nuen eliza bat, argia, galeriekilakoa, zokomokorik gabea, alde orotarik aldarea ikusteko gisan, itsasontziaren itxura gogora-araziko zuena. Ez ginen aberatsak gastu handiak egiteko eta, ahalaz, lekuko jendeek mublatua eta apaindua nahiko nuen. Aitortzen dut gaixo arkitektoak pazientzia handia behar izan duela nerekin.

Bukatu genituen halere gure planak, bainan behar zituen ikusi eta onartu apezpikuteagiko batzorde batek. Aurkeztu ginelarik batzordearen aitzinean gure planekin kalonje batek hitzegin zuen errateko eliza batek ez duela eskualde bateko itxureri josia izan behar. Eliza orokorra denaz geroz, harrizko elizak ere hala behar luke izan, ez nehongoa, bainan orokorra.

Erantzun nion bizi-bizia gure gaurko euskal elizak direla gehienak jauregien antzekoak. Lehengo jendeek eskaintzen ziozkaten Jainkoari beren handikiek zituzten etxe ederren iduriko elizak. Gaur gure eskualdean «villa» ederrak egin dituzte jende aberatsek. Ez ote ginuke beraz villa eder horien antzeko eliza zerbait eraiki behar?

Bertze batek erran zuen planen marrazkietan ez zuela deus ulertzen, bainan eliza berriaren maketa bat egin baledil... Ihardetsi nion, ehun mila libera gostako zela maketa; diru hori balin bazuen, berehala ginen zela. Hortan bazterrak ixildu ziren.

Norbaitek erran zuen oraino aldare gainean behar zela ezarri jaun apezpikuak kontsekratu harri berezi bat, bai eta eliza eraikitzeko lehen harria pausatzean elizkizun berezi bat egiten zela. Erran gabe doa, horiek oro aspalditik baginazkiela.

Ororen buru, apezpikuteagitik ateratzean, iduripena baginuen, nahi ginuena egiteko baimena uzten zigutela. Pavlovsky adiskidea harriturik zagon halere, nola mirakulu, batzordeko jaunaren artean, nehork ez zuen diru konturik aipatu. Esplikatu nion nik, dirua zikinkor delakotz, nahiago dutela apez batzuek hartarik bazter egon, bainan ni ez nintzela heietarik. «Beharrik ez! —zuen erran arkitektoak— Gaurko elizak behar ditu apez arrak, ez emeak».

PARROPIAREN EZAGUTZAK

1951ko Omiasainduz eman nuen Zokoan nere lehen meza. Katiximako haur guziak gomitatu nituen mezara, ondoko ortzeguneko. Heien izenak hartuko nituela eta bakotxarentzat katixima egunak finkatuko.

Ondoko ortzegunean, haur multxo bat etorri zen nere mezara. Adinekorik nehor ez. Bereterrrik ez nuen, nehork ez zekien meza segitzen. Ni aldarean, bar-bar otoitzean ari nintzelarik, haur batzu kaniketan lotu ziren kaperaren erdian.

Zer heinetan ginen ikusirik, hasi nintzen, astean bizpahiru aldiz neskatxa batzuen biltzen. Hauier mezaren segitzen eta zenbait elizako kantu erakatsi niozkaten eta galdatu nioten ondoko egunetan haurren zaintzea eta gidatzea. Zenbaitek hitzeman zaidaten lagunduko nindutela katixima egiten eta, hoieri esker, sortu zen Zokoan kristau izpiritu berri bat.



Langileekin

Bazen orduan Zokoan arrainak untzietan emateko lantegi bat, 120 langileekin. Emazteak ziren gehienak. Lantegiko nagusiak bazuen muntatua lantegiaren inguruan, langileen aloiatzeko, bizitegi multzo bat. Kartier hori deitzen zen «La Cité».

Delako auzotegian baziren lekuko jendeak, bai eta ere kanpotik lanera etorri batzu; bereziki Bretoinak eta mugaz bertzaldeko Espainolak eta Euskaldunak. Usu gertatzen ziren heien arteko kasailak eta askotan jandarmak deitzen zituzten. Baina beharrorduetan, nehon baino hobeki familiak elgar laguntzen zuten. Pobreak ziren adimenduz, baina aberatsak bihotzez. Gehienak apez-jaleak ziren, baina berek uste baino giristinoago. Banuen hortakotz maitasun berezi bat jende horrentzat. Oroitzen nintzen Joanesen mandatarieri Jesusek erran ziotela: «Errozue Joanesi Berri Ona predikatua zaiotela behartsueri». Nik ere beraz, «La Cité»-ko jendeari ebanjelioa ezagutarazteko lehia berezia banuen.

Denbora eman nuen haatik leku hartako jendeari ene presuna onarrazten: Hastapen hartan, ez zuten ene sotana begi onez ikusten, ez eta horko zakurrek ere: gaitzeko kontzertua muntatzen zuten, ni heien eremuetan sartu orduko.

Auzotegiko familia guziak bisitatu nituen bat banazka. Nehork ez zaitan aterik hetsi, nahiz ez ninduten denek berdin hartzen. Bizitegi batean, ama ari zen bere mutiko tipia garbitzen. Ni ikustean, haurrari erran zion: «Voilà le corbeau!». Horra belea! Nik haurrari: «Nor naiz ni?». Haurrak niri: «Zu zira belea!». Orduan ama lotzen zaio sekulako erasietan bere haurrari: «Barka zazu, Jaun Erretora, ez dakit nik, non puta gaurko haurrek ikasten dituzten holako gauzak». Nik irriz amari: «Ez ote du hori erran zuk erakatsi katiximatik?». Eta harek errepusta: «Ba, arrazoina duzu beharbadala».

Bertze bizitegi batean senar emazteak bizi ziren. Ni sartzean, emaztea bakarrik zen sukaldean. Senarra ohean. Emazteak erraten dio senarrari: «Jaun Erretora hemen dugu, bisitaz etorria». Bertzeak ohetik: «Kaka dela berari!». Jeiki zen haatik, izanik ere umore tzarrean.

Emeki emeki, urteen buruan, arras lagun bilakatu ginen Zokoako langileekin. Anitz urtez, berek eskaturik, bakantzetan, zenbait bidaiara muntatu ditut heientzat eta heiekin egin mugaz haraindian edo honaindian. Bertzalde Zokoa eta Donibane Ziburuko kontserbategietako zindikalistekin, gehienik CFDTkoekin, baina CGTkoekin ere, harreman herriak izan ditut, elizaren lekuko eta kontseilari bezala.

Nagusiekin

Handi bada ere, Donibaneko nagusi batzuek, heien artean zela Pierre Pourtau Zokoako eliza batasun burua, galdatu zaidaten, ean nahi nuen izan beren artean muntatua zuten kristau taldearen apez kontseilari. Nere baietza eman nioten eta zenbait urtez lan hortan ere jarraiki dut.

Hurbilagotik ikusi dut beraz hola, nolakoak diren nagusien eta langilen arteko desberdintasun batzu. Laster ohartu naiz: 1.-ik, Nagusiek, elkarretaratzean, pipatzen dutela langilek bezala, baina ez dutela hauk bezala zigarratarik elkarri eskaintzen, 2.-ik, Nagusi gehienek badituztela beren etxeak beren izenekin, langileek aldiz beren bizilekutat ematen dutela, edo kartier baten izena edo karrika baten lumeroa. 3.-ik, Nagusiek ez dutela beren artean, langileek duten konfiantza eta idekidura.

Laborariak

Laborantzako etxe guti zen Zokoan, ni han sartzean. Nerone laborari seme izanez, arras harreman errexak nituen laborariekin. Urtean behin, heietarik zenbaitekin egiten ginuen bidaiara bat, maizenik laborantzari doakion zerbait ederren ikusteko. Buruhaute handi zerbait banuelarik neronek, joaiten nintzen nere laborarietara, heien ontasunen ikuskatzera eta heiekin mintzatzera. Maiz ohartu naiz, lur lanak gizona lasaitzen duela, adimenduari neurria ematen edo bihotzari kezka kentzen. Base-rrietan ibiltzea, ez zen bakarrik nerretzat, denbora nolazpait iragaitea, baina sendagailu on bat hartzea.

Haurrak

Zokoara sartzean aurkitu nituen dotzena erdi bat gazte, hogoi urtetara zoazenak, batzu bataiatzekoak, bertzeak komunionea egitekoak. Gehienak, emeki emeki, bildu nituen sakramendu horien hartzera.

Katiximan zabiltsan haurretarik zenbait arras basak ziren. Behin, katixima egiten laguntzen ninduen neskatxa bat nahi izan zuten jo. Haur nagarrez etorri zitzaizten. Holakoekin ez zen ilaunegi agertu behar. Gaztedanik kiroletan ohitua bainintzen beharrik. Pilotan, balonean, jauzika edo igerika, edozein jokotan desafiatzen nituen eta irabazten nioten, erakusteko ez handia izanagatik ahal nuela. Iduritzen zait hola bildu nuela heien ganik errespetu eta larderia. Batzuetan mutiko tzar batzu zanpatu izan ditut. Neskak ez nituen hunkitzen, nahiz baziren zenbait arras marimutikoak eta 14-15 urte artino mutikoekin rugbyan ari zirenak.

Katiximako haurrengatik, gorabehera zenbait izan ditut, kartiereko eskolan buru zen errientarekin. Eskolarik ez zen ortzegun igandetan bai-



nan delako errientak zernahi pentsatzen zuen egun horietan haurren eremaiteko berekin edo bidaia edo partida batera. Eta hola, nik beti haur batzu eskas nituen edo katiximan edo igandeko mezan.

Makurbide hori zuzendu nahiz, artoski ikertu nuen zer zioen orduan frantses legeak. Legeak zioen, egun horietan, haurrak utzi behar zirela, nahi zutenaren egiteko. Hortaz argitu nituen haurren burasoak, bilkura batean. Burasoak joan ziren errientaren mintzatzera eta gauzak zuzendu ziren. Hortaz kanpo, beti arras ongi heldu izan naiz. Zokoan iragan diren errientekin.

Erran behar dut, haurrerik esker, ikasi dutala hobeki Zokotarren mintzaira berezia, frantsesaren eta euskararen nahastekatik maiz etorria. Hala nola erranen dute: «Je me suis fait les costilles», irriz urratu direla errateko, edo «Il a trop ziqué», norbaitek sobera edan badu, edo «Hori martxandiza ederra!», presuna bat ez bada fidagarria.

Behin, katiximako haurrak eskaturik, joan ginen denak Zokoako gerladorrearen ikuskatzera. Dorre gaineko itzulua egiten ari ginel, esplikatu nioten etsaiak hurbiltzen zirelarik, gainera ixurtzen zitzaioleta, aitzinatzen ziren hegatzetako zirrikituatarik, ur irakitua eta bike egosia. Zirrikitu horiek deitzen ziren «Machicoulis».

«Machicoulis» hitz hori erran orduko, ene haurrak hasten dira irri karkaraz. Zer zuten hola irriz aritzeko, galdetzen diotet. Heiek ez nahi ihardetsi. Azkenean aitortu zaidaten, eskolan neskek eskatzen ziotelarik errientari komunetara joaiteko baimena, errientak ihardesten ziotela: «Zoaz, zoaz, zure “machicoulis” hori husterat». Hala ikasi nuen zer zen Zokoako haurrentzat «machicoulis».

Komumione handia

1952ko ekainean egin ginuen lehen aldikotz Zokoan Lehen Komunione handia, 15 haur baziren: 6 neska eta 9 mutiko. Elizarik ez izanez meza eman zen Jules Sansebastien-en autolekuan, gaurko ESSO garajea. Hau bera ez zen oraino eraikia osoki, teilaturik ez zuen. Hor muntatu zen halere aldarea; ingurua apaindu kanaberaz; lantegiko taulak ezarri parpain batzuen gainean, jarlekuak izateko. Mornas, Isturitzeko erretor ohi erretiraturia, ginuen meza emalea. Aro dudazko bat egin zuen, zenbait euri ttantarekin. Jendea poliki bildu zen.

Ondoko urteetan elizan egin ginuen komunione handia. Lehenik teiaturik gabe, gero teilatu pean. Muntatu genituen ere komunione jantzi xuriak, denentzat berdinak, neskentzat mantelinekin. Andere Coronadok berak erosi zuen heien oihala eta berak josi.

ELIZAKO BIDEA

Elizako zimenduak atera ondotik, hasi ginen murruek altxatzen. Aterbe bat behar ginuen lehenbailehen eraiki, haren gerizan elizkizunak egiteko. Bainan urik ez zen inguruetan mortairuaren egiteko ere. Idiekin barriketan behar ginuen garraiatu Untxin errekatik. Baitezpadakoa zen nonbaitik elizarainoko bide bat idekitzea.

Bide hura nondik egin behar zen jakiteko, argitasun bila jo nuen eskuin eta ezker. Denek zioten, bide horrek behar zuela hirigintzako planetan sartu, bainan plan horietan ez zen, bistan da, ez elizaren ez hango bidearen arrastorik.

Auzia xuritu beharrez, bazkari bat egin ginuen buruzagiekin Zokoako Margoten ostatuan. Etorri ziren Urruñako eta Ziburuko auzapezak, Novion, bide-ta-zubien karguduna, Pourtau, eliza batasunaren burua eta itsas bazterraren zaindaria. Batzuek ordea zioten, bide berria lotu behar zela Urruñakoari eta ez Ziburukoari. Bertze batzuek berriz, zeharka egin behar zela, ez xutean. Norbaitek azkenean atera zuen, behar zela igurikatu Hirigintzak berak erabaki zezan.

Denak entzun ondoan, erran nioten: «Jaunak, ikusten dut ez zarete la nehondik ados jartzen zuen artean, nik eginen dut berehala bide hori eta, egun batez, bide hori ez bazaizue ongi, deseginen duzue». Eta berehala, bidea markatu ginuen, lurra kendu eta harriztatu. Geroztik hor dago.

DIRU SOLAS

Erran dutan bezala, nere eliza eta apezetxea eraikitzen hasi nintzen zentimorik gabe. Gaur eliza eta apezetxea eginak dira eta ordainduak azken zentimoraino. Nondik eta nola bildu dutan dirua erran behar dut.

1951n, Zokoan sartzean 36 urte nituen. Adin ederra holako lan bati lotzeko. Gazteago izan banintz ez nuen ihardokiko bururaino. Zaharrago izan banintz ez nuen onartuko holako lanbiderik. Gaur zenbait kontseilu eman ditzaket holako lanetan sartuak edo sartuko direneri.

Holako sailari lotzeko behar da lehenik fede azkarra: Mila aldiz pentsatu dut ez nintzela lanean ari neretzat, bainan Jainkoarentzat. Laguntza galdatzen nion Jainkoari, onartuz beti haren nahia egin zadin.



Entseatu naiz beti pobreki bizitzen; ez pobrezia jasanez, baina pobrezia maitatuz: Miliunak iragan dira ene eskutik, baina ez dut sekulan izan tentamendurik deus neretzat atxikitzeko. Ikusten zuen jendeak pobreki bizi nintzela, hala nola dirurik ez nuelarik ene lehen bizitegia antolatzeke: euria zelarik, gelako zimenta bustitzen baitzen eta ohean sartzeke ohe gainean biluzten nintzen. Barnera sartzen zitzaitan euria bilzteke, banituen beti untzi bat edo bi ohearen gainean edo ondoan.

Zokoan hurbil bizi zen, bere villa ederrean, monsinore aberats bat; bazuen autoa bere xoferrarekin eta bere plazerrezko itsasontzia. Maiz entzun ditut jendeak erraten, zinez lotsagarri zela ikustea holako ezberdintasunak apezan bizimoldeetan. Baina ene sartzeko bisitak egiten ari nintzelarik, entzuna nuen ere norbait nitaz erraten: «Apez bat gehiago, diru eskale bat gehiago. Ez ginian holako beharrik». Hortakotz, diru eskeak egin izan ditut ahalaz errespeturekin eta jendeak kontsultatuz.

Pobren eliza

Gogotik ez nuen galtzen harrizko elizak behar duela izan oroz lehen pobreek eta pobreentzat egin. Erran nahi dut, izpirituz pobre direnek egin; zeren eta izan daiteke moltsaz pobre eta izpirituz aberats nahi; izan daiteke halaber moltsaz aberats eta izpirituz ez atxikia aberastasunerik. Hortakotz diru laguntzak onartzen nituen, bai aberatsen eta bai pobreenenganik. Baina dirudun handi batek eskaintzen zaitalarik diru puska jori bat, haren izena harrizkuri ezartzean truk, ez nuen onartzen: «Egizu nik bezala —erraten nion—, gure izena izan dadila Jainkoaren kondu-liburu handian ezarria! Jainkoaren etxeari emanarentzat, igurika ezazu saria, Jainkoarenganik, ez gizonenganik».

Elizan, edo bidean, edo etxean, hartzen nituen guziekin, kontu ematen nuen denekin gurutzatzea errespetu berdinarekin. Handiekin nere harremanak guti ziren eta laburrak, baina bihozkorak. Askotan elizan otoitz egitea eskatzen nuen dirudunentzat, mundu huntan gehiegi gozaturik, ez dezaten gal bertze munduan gozatzea. Uste dut, ororen buru, ez nerekin, ez nere elizarekin, nehork ez zuela bere burua baztertutik sendi.

Diru iturriak

Zokoako eliza eta apezetxea gusta zaizkit berrogoi miliun zahar eta pixka bat gehiago. Hona nondik bildu ditudan diru horiek:

1.-ik, Eskutik-eskura. Diru meta guti dut bildu horrela. Halere bi kasu gogoan ditut: Behin, miliun bat gizon batek emanik. Haurrik ezin ukan zuen bere emaztearekin. Jainkoari hitzemaña zion miliun bat obra

onentzat, haur bat izaten bazuen. Seme bat ukan zuen eta nik miliun bat. Bertze behin, diru eskasia gorrian nere betiko San Josepe laguntzaileari otoitzean nindagolarik, misteriozko gizon bat etorri zitzaitan, berrehun mila libera zahar ekartzen zaizkidala elizarentzat.

2.-ik, Elizetako eskeetarik. Ipar Euskal Herriko eliza tarro gehiengatik ibili izan naiz predikatzen dirua eskatzeko.

3.-ik, Gure banku-etxetik. Zokoako elizaren batasunaren izenean muntatu ginuen, legearen arabera, San Frantses bankua eta horri eskatzen ginion 25 urteen mailegua, %5eko intresean eta Handiabatuko familiak ere, bere gisako laguntza eder bat egin zaikun, guretzat mailegu bat hartuz berze banku batetik.

4.-ik, Diruaren balio galtzetik. Frantziako diruak bere balioa galduz, asko diru garesti hartua, merke itzuli ginuen.

5.-ik, Saltze batzuetarik. Talichet-en etxea saldu ginuen, bai eta Lius-baitakoeri beren etxeari egiteko lurra.

6.-ik, Apezpikutegetik. Baionako apezpikuak sortu zuen diru kutxa bat diosesi guzian eliza berrien eraikitzeke. Gainera, kutxa horren bete-tzeko, muntatu zuen ere guk egin ginuen bezalako banku-etxe bat. Ordukotz Zokoako eliza aski aitzinatua zen eta apezpikuak jakinarazi zaitan ez nuela alde hortarik deus ukanen.

Hori banekielarik, eta zor presatu batzuen azpian gertaturik, jo nuen halere Gouyon, orduko apezpikuarengana. Eskatu nion otoi diru apur bat aitzina ziezadan bere kutxatik. Eztabaida luze eta korapilatu baten ondoren, egun berean gure apezpikuak prestatu zaitan miliun bat, erranez lehen eta azken aldikotz zela. Dena ere on.

Diru iturri horietatik kanpo, ez dut behin ere kermezarik muntatu, ez bainuen ez lekurik, ez puskarik, ez gizonik. Bakarrik, antolatu izan ditut tonbola tipi batzu. Deus handirik. Urririkako lanetarik izan dut beharrik laguntza ederra.

Urririkako langileak

Diruz bertzalde, beren beso lanez lagundu gaituzten batzu aipatuko ditut:

1.-ik, Elizako zimenduen ateratzera etorri ziren auzo guziak, zenbait beren behi edo idiekien.

2.-ik, Baionako seminariotik, beren bakantzetan, peontzan aritzera etorri ziren apezgai batzu.

3.-ik, Hegoaldeko iheslari multzo bat, hauek zimentatu baitzizuten galerien gibelak eta bi bazterrak.



4.ik, Elizako saindu itxuren eta bertze gauza batzuen egileak.

5.-ik, Elizaren apaintzeko eta mublatzeko zerbaitekarri duten guziak.

Nerone bainintzen eliza eraikitzeke batasunaren idazkaria, eta kondu guziak xeheki eta maiz elgarrekin ikusten baikenituen, erran dezaket gaur zinez Zokoako eliza asko eta asko lagunen lanaren eta izerdiaren gustuz egin izan dela.

Eliza eta apezetxea eraiki ondoan, denak ezarri ditugu apezpikute-giaren izenean, denek batean Elizarentzat egin Elizaren gerizapean denentzat egon dadin.

Orain, erretira hartu-eta lasai bizi naiz, apezpikute-giak onarturik bizi naizeno egon nadin eraiki dutan etxean. Pentsatzen dut, hil ondoan, nere gorputza ezarria izanen dela Zokoako hilerrietan.

ELIZA BARNEKO ZENBAIT GAUZA

Orai nahi dut erran, gure elizaren barneko zenbait puska nork egin dituen. Eta lehenik, aipatuko dut aldare gaineko gurutzefika.

Gurutzefika

Ziburu aldetik, Zokoako mugan, bizi zen gizon bat. Parisetik etorria, kirurgilari eta eskultore zena. De Villandre deitzen zen. Turin-eko Jesusen hil-mihiseari buruz egin zuen ikerketa bat eta liburu bat. Gehiago oraino, delako hil-oihal famatua gogoan, bere eskuz obratua zuen gurutzefika eder bat.

Ni Zokoara etorri aitzin jaun hori hila zen, bainan haren emaztea eta alaba bizi ziren, eta alaba bera, katixima egile jarri zen. Eliza eraiki zelarik, ama-alabek aita zenaren gurutzefika present ekarri zaidaten eta alda-re gainean ezarri nuen.

Sainduen itxurak

Baditugu ere gure elizan hiru sainduen itxura, zurez eginak. Heiek baitira, Ama Birjina, San Josep eta San Frantses Xabierrekoa. Hiruen egileak, Forastier deitu gizon zahar bat da, Donibanera erretiratua. Emaztea karta tiratzaile sorgin aire bat izanagatik, bera gizon ona da. Etxe batetik ukan zur zahar bat eta bi arbolon enborrak eman nizekion lantzeko, eta lan ederra egin zuen.

Ama Birjina eta San Josepentzat errana dut jadanik zein itxikia naizen bati ala bertzeari eta zenbat baliatu zaitan heien geriza eta laguntza beharordu handietan eta bereziki gerla denboran.

San Frantses Xabierrekoarentzat, Urruñan, apez bilkura batean, izan zen gutartean solasa, nor behar ginuen hautatu Zokoako elizaren patrointzat. Batzuen arabera, San Andres ongi izanen zen arrantza herri baten-tzat. Bertze batzuek erran zuten bazela lehen Zokoako gerla-dorrean Trinitate Sainduaren kapera. Geroztik, Trinitatez egiten zela itsasoaren benedikatzea. Horrengatik hiru arku eraiki genituen eliza aitzinean eta bertze hiru barnean.

Bainan elizaren patroinarentzat ene hautua bertzerik zen. Gure patroina San Frantses Xabierrekoa izan behar zen, gu bezala Euskalduna. Azkenean nere ikuspegia nagusitu zen eta Zokoako eliza San Frantses Xabierrekoarena da.

Erranen dut ere, nere kapera bataiatu zen lehen haurrari, Ordoki baitzuen izena, eta aita sortzez Napartarra baitzen, Arantzakoa, Frantses Xabier eman geniola izena. Bertzalde, delako Forastier gure eskultoreari ekarri nion Uztaritzeko Seminarioan den harrizko San Frantsesen argazkia, holatsuko itxura bat egin zezan, eta hala egin zuen.

Une hartan berean, San Frantsesen besoa ekarria baitzuten Xabierreko haren sortetxera, deliberatu ginuen Zokoatik Xabierre joatea, beilari multxo bat, sainduaren besoari musu emaitera. Xabierren euria izan ginuen, bainan oroitzeko itzulua egin ginuen.

Erranen dut oraino, San Frantsesen ohoretan neronek moldatu nituela zenbait bertsu, hitzak eta airea, Zokoan kantatzen direnak, San Frantsesen besta egunean, eta hola pentsatuko duzue, gure patroina arras etxekotua dugula bere elizan.

Itsasontzia

Bada ere gure elizan itsasontzi pollit bat, beladuna, euskal koloreekin eta San Frantses izenarekin. Horren egilea Jean Baptiste Enparan izan zen, mariñel zahar bat, elizaren ondoan bizi zena. Motorrik gabeko itsasontzi belakarietan ibilia zen. Han zuen ikasia, haizeak jotzen ez zuen geldialdietan zernahi gauza bere eskuz lantzen. Berak izan zuen xedea, elizarentzat itsasontzi pollit haren egiteko, bere eskuz eta nik gogotik onartu nuen. Hor dago beraz haren obra, ohoragarri beretzat eta oroigarri ondo-koentzat.



Elizako zurtartea

Eliza barneko zurtatea, Jean Dherain, Margoteneke seme zurginak baino hobeki nehork ez zezakeen apaila, eta elizaren ikustera heldu direnek aitortzen dute, zinez ongi egina dela. Eguberriko Jesus Haurraren otelakoa ere Jean Dherain eta Michel Journadek landua dute.

Bataio harria, aldiz, Milafrangan erosi nuen.

Bi ezkiletarik handiena, Algeriatik Frantziara etorria da. Salmenta batean aurkitu nuen.

Dakarretik ekarri zaizkidaten hiru arrain-kusku handi, ur-benedikatu ontziak egiteko.

Dakarretik ere, Zokoako senar-emazte batzuek erosi zaidaten meza emateko kapa ferde eder bat, hango emazte beltzek brodatuak.

Onaindia bi anaia apezek eskaini zaizkidaten bi ziborio.

Huntan bururatzen dut, Zokoako elizari egin eskaintzen litania. Ulertarazi duket aski garbi, eliza hori ez dela izan bakar batzuen obra, baina anitzena; ez aberats multzo tipi batena, baina fortunarik gabeko talde handi batena: ez diruz bakarrik egina, baina diruz eta bihotzez.

Orduko apezak

Irakurri dut batzuetan zinez urrikgarriak direla, bakartasunean bizi diren apez gaiztoak. Nik ez dut behin ere sofritu bakartasunean. Izatekoiz bai bisitari gehiegiaz. Beti maite izan dut apezekin elkartzea, bereziki adiskide ditudanekin.

Zokoako lehen urteetan gurutzatzen nintzen maiz, Donibane, Ziburu eta Urruñako erretoekin. Irigoyen, Donibaneko apeznausia zen ene kofesorra: bolbora bezain bizia zen eta izpiritu zorrotzekoa. Nahiz politikan ez ginen alor bereko, euskaldukoa maite zuen. Nik antolatutako antzerki baten ikustera etorri zen behin Urruñara eta ondotik erran zaitan: «Jarraik zaite sail berari; segur, gazteago banintz, zurekin ninteko».

Cachenaut Ziburuko erretoa, kontseilu oneko gidari zuhurra izan da neretzat. Hamaka aldiz ereman izan nau, bere autoan, Euskal Herriko xoko ederrenen ikustera.

Urruñan, apezek «etxez» bete izan dute apezetxea. Hor ezagutu baititut Etxebarne, Etxeberri eta Etxegorri erretoak: Hiru apez, hiru mundu.

Etxebarne erretiratu zelarik Baionako katedralera, bere kalonje titulaz hanpatua, kitzikatzeko, galdegin nion, nola irabazten zen titulu hori. Kexu airean ihardetsi zaitan: «Kalonje sartzeko, behar da lehenik buru ernekoa izan».

Etxeberriekin nahiko irriak egin izan ditut. Jainkoak emana zion irri eginarazteko talendua, eta talendu horri fruitu ausarki emana dio.

Etxegorri fama gaitza bildu zuen Urruñan pilotari eta pisu altzazale bezala. Nik, goresmen berezia zor diot, euskal teatroari ekarri dion laguntzagatik.

Euskal teatroaren sail horri jarraiki zitzaion, bikari jin zelarik Urruñara, Emile Larre apez. Oso adiskide izan ginela, nola uka? Bakarren ordu gozoak iragan ditugu elkarrekin.

Bainan apezpiku bat ere banuen, maiz etxera etortzen zitzaitana, Larrart apezpiku euskalduna. Chinatik kanpo igorria izanik, Betaniako fraileen ikastetxean Ziburun bizi zena.

Larrart Apezpikua

Parisen soldadogoa egiten ari nintzelarik, erran dut usu ibiltzen nintzela Bac karrikako misionestegian, eta hurbildik ezagutu nituela Chivan ibili misionestak, hala nola, Larregain Senpertar apezpikua eta De Guébriant bretoin apezpiku saildua.

Larrart gure apezpikuaz mintzatzeko, ordea, erranen dut, hura zela gizon azkar bat, sortzez Amikuztarra, guziz umila, omere onetara eta fede handikoa.

«Ez uste izan —zaitan erran egun batez—, nere merezimenduengatik naizela izan apezpiku. Euskal Herrian egon banintz, erreto koxkor bat izanen nintzen. Chivan, diosesi bereko apezek dute hautatzen beren apezpikua. Ni hautatu ninduten, nik uste, denekilakoa egiten banekiela-kotz. Apezetan ere baitira bitziak, eta bertzeekin nekez konpontzen direnak. Hala nola, nerekin bizi zen bat, beti beldur zen pozoinatuko zutela. Hortakotz, herriz herri zebilen, behi bat sokatik eremanen berekin, beti haren esnetik edateko».

«Hango jendeak ere batzuetan bitziak iduritzen zaizkizu: Apezpiku izendatu nindutelarik, dirua bildu zen niri opari baten eskaintzeko. Ez duzu asmatuko zer eskaini zaidaten? Hil kutxa bat eman zaidaten. Egia erran, etxe onetara joaiten zirelarik, bisitaz, hil kutxa bat erakusten daitzute: hura ederrago eta etxea aberatsago baitaukate».

«Medikuntzak aldiz, ez du zer ikusirik hemengoarekin. Behin, auzoko gizon bat jin zaitan ean zizpa bat prestatuko nion. Bere emaztea haurminetan zuen eta haurra ezin ateraz ari. Holakoetan, behar omen da, betetan, gaitzeko harridura sortu emaztearen baitan eta haurra laster heldu da. Nere baitan irriz nengoela, hori entzutearekin, nere zizpa prestatu nuen. Apur baten buruan, tiro bat gaitza entzun nuen eta, berehala, emaz-



te baten garrasia. Gure gizonak tiroa tiratu zuen, bainan bolbora sobera emanik, zizpa lehertu zitzaion eta bera han berean hil zen. Ez dut erraite beharrik, harridura aski gogorra izan zela, emazteari haurra sor-arazteko».

Holako ixtorio anitz kondatu zaizkidan Larrart apezpiku adiskideak.

Egun batez, bazkaltzera gomitatu nuen apezpikuarekin batean, aita Carriquiry, Altzaiko misionesta, harekin batean Chinan egona eta harekin batean kanpo igorria izana. Luzaz, aipatu zituzten Chinako oroitzapenak, gure aitzinean.

Aita Carriquiryk kondatu zuen, misionest gazte zelarik, Chinara heltzean, lehen aldikotz, zaldi karrosan joan zela, zenbait eguneko bidaian, Larrart apezpikuaren ikustera. Xinatar guziak berdin beztituak izanez eta denek berdin boz meharra ukanez, ez zituen nehondik ere bereizten ahal gizonak eta emazteak. Orduan pentsatu zuen, zaldi karrosa gelditzen zen tokietan, behatuko zuela zeinek zuten pixegiten xutik eta zeinek kokorikaturik. Bainan noizpait ohartu zen aita misionesta, gutartean ez bezala, Chinako emaztek berdin xutik egin ohi dutela, eta gizonek berriz kokorikaturik.

Dena den, aita Carriquiry heldu zelarik azkenean Larrart apezpikuaren etxera, pentsa daiteke zer izan zen bi euskaldunen zoria, herritik hain urrun elkar hatzemaitea! Lekuko giristinoek heien ohoretan apailatu bazkari baten hartzera joan ziren gero elkarrekin. Jatekoen moldatzeko, Chinatarak eta Frantsesak baitira omen munduko xapeldunak, arras ongi bazkaldu zuten.

Bazkal ondoan apezpikuak erran zion, euskaraz, bere lagunari: «Orai behar diagu milesker erran, ongi bazkaldu dugulakotz. Egin ezak nik bezala!». Eta apezpikua hasi zen dena puzker eta poker. Bertzeak bere aldetik, bertze hainbertze egiten zuen. Apur baten buruan apezpikua ixildu zen. Laguna ere berdin ixildu, pentsatuz tokiko ohidurak manatzen zuela. Bainan apezpikuak erran zion berriz, euskaraz: «Hik segi ezak, orai artino bezala!». Lagunak galdezka: «Zergatik nik eta zuk ez?» eta harek errepusta: «Zeren eta niri kakeria abiatu baitzait!».

Bainan irri egiteko ixtorioen artetik baziren nigar egitekoak ere. Hala nola, apezpikuak kondatzen zuen, komunistek luzaz preso atxiki zutela burdinazko kaiola batean. Han zagolarik, jujaldiak egiten ziozkaten denen aitzinean eta haren ingurura biltzen zuten jendea, tuka eta zernahi erranka aritzeko. Euskaldun apezpikuak ihardoki zuen halere otoitzari esker eta azkenean, noizpait, Chinatik kanpora igorri zuten.

Horra beraz nor nuen hautatu Zokoako San Frantses Xabierren elizaren lehen harria benedikatzeko.

Lehen harriaren benedikatzea

Igandea zen, 1952ko negua. Aroa freskoa, bainan euririk gabe. Larrart apezpikua ginuen benedikatzalea. Baionako apezpikutegitik etorri zen Narbaitz bikari jenerala. Gutartean ziren auzo herrietako erreto bikariak, Urruña eta Ziburuko auzapezak. Denen alegeratzeko Urruñako klika.

Gurutzea aitzinean joan ginen kantari, elizako patarra gora. Lehen aldikotz kantatzen ginuen: «Zokotarrek, San Frantses, agur!»

Mendiska gainean mahain handi bat taulazko gurutze baten aitzinean. Mahainaren gainean harri handi bat, barnean zilo hatekin. Vergez, Donibaneke nere kusi ttipi marmolari zenak eskaini zaikun harri hori. Haren ziloan ezarri ginuen pergaminozko paper bat, Chinako tintaz idatzirik, Zokoako eliza nork noiz egin zen eta harria nork benedikatu. Paperarekin batean sartu genituen ere urteko zenbait diru moneda.

Jaun apezpikuak zimentatu zuen harrian ziloak zuen tapakia eta gero delako harria tinkatu ginuen eraikitzen ari zen aldarearen ezkerreko eskaleraren azpian. Geroztik han dago.

Lehen konfirmazionea

1954eko ekainaren 17an, Larrart jaun apezpiku berak emanik, izan ginuen gure lehen konfirmazionea. Ez zuen oraino elizak, ez ate-leihorik, ez emokadurarik, ez zimentarik, ez tintarik, bainan teilatua emana genion, nahiz ez lanik gabe.

Ezen teilatu horren ezartzeko, zurtatearen tratua egin nuen behin, haritza, 18 mila liberetan metroa, Ziberoko egur saltzaile batekin. Bainan gero, egurketara joateko ordua etorri zelarik, saltzaileak jakinarazi zaitan haritza garestitu zela eta 25 mila libera eman beharko nituela, har edo utz.

Ez ginuela aitzineko tratuan deus izkiriatu entzutearekin gizonak erranik, erotu nintzen eta zernahi erran nion, burutik behera, telefonoz: hori zenetz euskaldunaren «hitza hitz» atxikitzea. Ez ote zen hori mandil joko? Ez nuela mandil batekin tratutan sartzeko gogorik eta bere haritzak atxik zitzala! Azkenean, nik finkatu preziotan Biarnoko Arudyn aurkitu nuen teilatuko zurtatea, ez haatik haritza, bainan izaia.

Dena dela, lau haur baizik ez ziren bildu Zokoako lehen konfirmazio hartan, adin bereko bertze guziak konfirmatuak baitziren aitzineko urtean. Ohorezki hartu ginuen halere gure apezpiku maitea, eta oraino anitzek gogoan dute harek egin zuen prediku sarkorra:



«Haurrak, erran zuen, zaudezte leial Izpiritu Sainduari. Hura leial egonen zaitzue. Beti gogoan dut Chinako mutiko kozkor bat konfirmatua nuen. Bere eskolako lagunekin poliziak bortxatu zuen ni preso nintzen kaiolara etortzera, nere gaizkitzeko eta trufatzeko. Haren lagunak hortan ari zirelarik, delako mutilak aurpegi triste batekin behatu zioten eta ohar-turik nehork inguruan ez zuela ikusten gurutze seinale tipi bat egin zuen eta gure begiek elkar jo zuten. Orduan izan nuen zoriona ezin erranezkoa da. Mutiko haren seinaleak erakutsi zaitan, mila eleek baino hobeki, nere misionest lana ez zela debaldetan izan».

Eliza barneko lanak

Etzegileek badakite, errexena eta lasterreina dela murruen altxatzea eta teilatua ezartzea. Barneko lanak dira nekeenak eta luzeenak.

Bertzalde Ganix Alzate ginuen elizaren eraikitzailea. Ganix hil zen eta Martin bere semeari utzi zion lantegia. Ganix bezalako nagusi baten ordezkatzera ez zen errex. Martinen lantegitik langile batzu joan ziren.

Eta oroz gainetik, dirurik ez zaitan sartzen, hastapen hartan bezala. Ai diru madarikatua! Neronek dakit zenbat odol gaizto egin dutan horrengatik. Nere tripako minak hasten ziren hilabete bakotxaren azken egunetan: langileen pagaren ordaintzeko orduetan, «nere bankuaren» ize-nean nituen titre batzu joaten nintzen eskaintzera, ahal nuen tokira. Behin baino gehiagotan gertatu zait etxera itzultzea zentimorik bildu gabe. Ez naiz halere sekulan etsitua izan. Amorratua bai askotan.

Hala nola, aldi batez, banituen titre batzu hartzeko banku batean, bainan zenbait egun eskas ziren heien baliatzeko. Apezpikutegiak kontseilaturik, joan nintzen beraz bankuko jaun bati buruz. Adineko gizon bat zen, dena apezkilakoa, nere eskaera entzun orduko hasi zitzaian ene ikuspegi politikoen salatzen: «Zu zira ongi ezagutzen ditudan apez demokrata horietarik: Zorrak egin eta heien ordaintzeko orduan ni bezalako kapitalistengana jin. Ez dut erraten ez zaitudala lagunduko, bainan behar dugu lehenik ongi ikertu egoera. Zenbait egunen buruan izanen duzu ene erreputa».

Hitzaldi eder horren ondotik, doi bat egon nintzen gogoetatua, ean nere hasarrean zernahi erranen nion gizon horri. Bainan nere barnearen jabe egon nintzen eta etxerakoan, joan «gorriaren» fama zuen Donibane-ko bertze jaun batengana. Honi dena kondatu nion, gertatu zen bezala, eta berak arras ongi hartu ninduen: Berehala eman zaitan eskura behar nuen dirua.

Zenbait egunen buruan, Baionako jaunak igorri zaitan letra bat, errateko, jaun apezpikuak igortzen ninduenaz geroz, joan nindakion bankura, eskatzen nuen dirua eskuratzen. Haren letrari ihardetsi nion, jaun apezpikuak jakin zezan zuzen nor zen bere adiskidea, ez nindakiola etorriko diruaren bila: behar nuen dirua eskuratua nuela, sekulan elizan ibiltzen ez zen jaun baten eskutik.

Dena dela, emeki emeki, beti aitzina ari ziren gure eliza barneko lanak. Bainan, elizatik kanpo ere, banuen non zer egin.

Telefona ea posta

Zokoan sartu nintzelarik ez zen han ez telefonarik ez posta-etxerik. Telefonatzeko, kilometroak egin behar ziren, Ziburura edo Urruñara buruz. Posta, aldiz, egunean behin iragaiten zen Urruñako aldetik eta bi aldiz Ziburuko eskualdetik.

Departamenduko posten buruzagiari idatzi nion Pauera, nere kexua erakutsiz. Jaun hori bera etorri zitzaian etxera eta elgarrekin ibili ginen Zokoan barna bere begiz ikus zezan zer zen egoera. Bainan denak ikertu-eta, jaun buruzagiak aitortu zaitan berak ez zezakeela deus egin, Ziburu eta Urruñako auzapezen egitekoa zela. Bi auzo herrieri zoakion posta-etxe bat Zokoan eraikitzea, bainan heiek ez zuten gastu berri horietan sartu nahiko.

Horra nola lehen bezain petzero gelditu nintzen eta hamar urte iragan ziren nik telefonoa nere etxean ukan arte.

Eta hilerriak

Ez zen ere Zokoan hilerriarik. Hilerri berriak egitearen alde agertu zen Urruñako auzapeza. Kontra aldiz Ziburukoa, edo bederen Ziburuko hilketariak.

Ziburuko hilerriak berrikitan handituak zituzten alabainan eta ez zuten lur eskasik beren hilentzat. Prefetak beraz inkesta egitea manatu zuelarik, Ziburutar zenbait hilerri berrien kontra agertu ziren: tokia itsus-tuko zutela eta mila aitzakia asmatuz. Baimena eman zuen halere prefetak. Bainan orduan hasi zen hilketarien bataila.

Ziburuko hilketariak Frantzia guziko zindikatari lotuak ziren alabainan, Urruñakoak aldiz libreak, herrikoak. Horrengatik erdi preziotan egiten ziren ehorzketak Urruñako etxeetan. Ziburuko etxeetan edo mugetan norbait hil orduko, hilketariak etxen zituzten Ziburuko hilerrietan lurra eskaintzeko eta Urruñako hilketariengana joaitera ez uzteko.



Ohitura horien ondorioak heltzen ziren elizaraino, zeren 1905eko legeengatik, Frantziako elizak beretu zituen estatuak, eta hortakotz hilketari «nazionalak» etxen bezala zabiltzan eliza horietan. Bainan Zokoako eliza berria baitzen eta ez estatuarena, hilketari guzieren jakinarazi genioten ez zutela elizaren barnean deus egitekorik, ez eta eliza ateetan meza sari eskatzerik.

GIZONEZKO ELIZA

Neke balin bazen eraikitze harrizko eliza, ez nuen burutik galtzen anitzez nekeago eta beharrago dela gizonezko eliza, erran nahi dut, gizonen arteko lokarri anaikorrek sortzea eta indartzea, Jainkoa ezagutzeko eta maitatzeko. Aspaldian sortu parropia zahar batean aski izaten da bertzek hasi ildoari jarraitzea, han hemenka zerbaitxka aldatuz. Bainan parropia berri batean ez da ohiturarik, ez eta obra onetan higatu adineko presunarik. Nekeago beraz batetik, beti bide berriak behar baitira ideki, bainan hobe bertzetik, ez baita nihon aitzinekoen trabarik.

Zokoako parropiaren geroari pentsatuz, erabaki nuen nere jokabideetan helburu batzu ongi gogoan atxikitzea. Hona helburu heietarik larrienak:

1.-1k, Zokoako eliza muntatu Zokotarrekin, Zokotarrentzat, sekulan ez heien kontra.

2.-1k, Zokoako eliza lotu iragan denborari, datorrenari eta inguruko parropieri.

3.-1k, Jainkoa eman Zokotarrerri eta Zokotarrak Jainkoari, deneri berdin zerbitzu eginez eta ebanjelioa zabalduz, ez mundukerik.

4.-ik, Neronek predikatzen dutanaren etsenplua eman.

Norbaitek nahi balu nere bizia ikertu, ohart liteke helburu hauek izan direla nere urratsetan nere jokabideen argitzaleak eta motorrak. Goazen xehetasunetara!

Zokotarrekin, Zokotarrentzat

Ahalaz etxekoz-etxeko moldatu dut Zokoako elizaren bizia. Zokotarrek berek egiten dituzte kantu-irakurketak, euskaraz ala frantsesez. Berek eskeak eta astekari saltzeak. Berek katixima. Berek elizaren garbitzea, loratzea, harmoniuma jotzea, eguberriak eta bestak apailatzea eta

gaineratikoak. Eske berezietan bildu diruaren berri herritarrek izaten dute. Urtean behin ematen diotet kontu guzien eta obren berri zehazki.

Prediku alkitik ez naiz ahalaz sekulan alderdikari izan. Politika alderdi gehienetan badauzkat adiskide onak, errespetatzen nautenak, nik heiek bezala. Ezagutu ditut zenbait auzapez Hazparnen, Ziburun eta Urruñan. Ez naiz behin ere sartu heien arteko guduketan.

Aitortu behar dut haatik, 1977an, Zokotar gehienekin parte hartu dutala Zokoaren alde sortu zen batallan. Une hartan, nonbaiteko jaun batzuek erabakia zuten, Zokotarrerri fitsik galdatu gabe, Untxingo errepi-retan Zokoan ur naza handi baten zabaltzea, laket portu bat hor muntatzeko eta horren inguruan villa handi batzu eraikitze dirudun kanpotiarrentzat. Jauntto horiek nahi zituzten hortakotz Zokoako 85 lurren jabeak beren lurretaz desjabetu. Ba omen zituzten, beren xedeetara bilduak herriko-etxeen sustenguak.

Bainan, jakinaren gainean, Zokotarrak ernatu ziren eta, proposatu planari bertze plan bat Zokotarrentzat hobe kontrajarri. Ni ere honen alde agertu nintzen. Lerro hauek idaztean, auzia idekia dago. Ondoko egunetan ikusiko da, ongi ala gaizki jokatu ginen.

Zokoa lotu denborari eta inguruari

Tokiko eta berdin elizako ohitura batzu iragankorrak dira; bertze batzu iraunkorrak. Guri zegokigun, Zokoako apezari eta giristino argitueri, ohitura horietan zein ziren behar atxiki. Badira adibidez, Zokoako bi ohitura bederen, ni sartuz geroztik galdu direnak.

1.-ik, Norbait kartierean hiltzen zelarik, emazte bat ibiltzen zen oihuka, karrikaz karrika, kridatuz nor zen zendu eta noiz izango ziren ehortzetak. Ixabel Ortiz izan da ofizio hori bete zuen azken emaztea.

2.-1k, Itsasontzi batek hondoa jotzea zuelarik edo tutuka bide galdez zebilelarik, emazte multzo bat biltzen zen Zokoako portura eta hor ezki-la joz, burdinazko ontzi batzuekin eta oihuka, muntatzen zuten sekulako harramantza mariñelen laguntzeko. Urean ezarri zuten ere «xahala» deitu tresna bat, mareak erabiliz xahal marrumak botatzen zituen. Bainan udatiarrak xahal marruma horiez arranguratu ziren eta xahalaren orde bi faro handi jarri ziren portuaren sarrerako bi aldeetan.

Elizako ohitureri doakionez, erogazioneko prozesioak egin izan ditut zenbait urtez, parropiako bi gurutzetara, zubi ondokora eta kaia muturrekora. Bainan urteen buruan, nehor ez zen etortzen prozesio horietara, bereziki Zokoako arraintegia hetsiz geroz, eta haurrak Doniba-



nera autobusetan joaiten hasi zirenetik. Horrela gelditu nintzen erroga-zionen egitetik.

Halaber utzi behar izan nuen ere ganderailuko xirioen benedikatzea eta igandetako bezperen kantatzea, nahiz kantuen orde zenbait urtez atxiki nuen arrosarioaren erratea. Ordainez haatik, larunbat arratsetako meza eta igande goizetako bi mezak, hiruak kantuekin eta predikuekin atxiki ahal izan ditut. Erran nezake berdin horietara zetorren jendea emendatu dela iduriz, urtetik urtera. Fedea hor bizi dela seinale.

Iragana josi nahi nuen zetorrenari, baina nahi nuen ere Zokoa lotu inguramenari, ez zedin uharte bat bezala geldi bertze parropien erdian. Egia erran Ziburutarrek eta Urruñarrek gurutzatzen dutelarik Zokotar bat, berak baino gibelatuagotzat hartuko dute. Baina hortan ez dabilta zuzen. Zokotarrek ez dute beren burua Urruñarrek edo Ziburutarrek baino apalago kausitzen. Ez ote dituzte jada zenbait aldiz, kartiereko botzez Urruñako edo Ziburuko auzapez batzu beren alkitik aurtiki? Izatekotz beraz, Zokotarrek badute oilar goiztiar aire bat, beren auzokoek ez dutena.

Hortaz, kontu har dezatela Zokotarrekin tratatu nahi dutenek!

Horiek hola, nahi nuen Zokoa izan zedin bere auzoekin josia, baina ez heietan urtua.

Denen zerbitzari

Ene ibilbideetan, kasu eman dut ez ibiltzea beti, kargudun, dirudun edo handi-mandien ondotik, baina, nere baitarik eta eginbidez, maizago eta gogotik elkartzea jende apalekin, enbalierekin eta behartsuekin, pentsatuz haatik behar dutala berdin izan, aberats ala behardun, denen zerbitzari.

Ez dut sekulan uste izan, aitzinean nituen holako edo halako jende handi batzuegatik behar nuela, predikatzean, Jesusek errana goxatu. Igandetean Ebanjeliotik mintzo nintzen, beti laburzki, 8 minutaz gehienik, baina entzuleari emanez ahalaz janari hazkurri bat, gaurko eta gutarteko biziari zoakiona. Lehenago gertatzen ez zitzaizkiona, mezaren ondotik, entzule bat edo bertze jiten zen nik erranaz solastatzeko.

Erranen dut ordea, anitz gogoeta eta otoitz egin behar dela, errexkerietan eta mundukerietan ez erortzeko eta Jesusen mezua, aldakuntzarik gabe, munduari emateko.

Erranaren egitea

Errex da halere, zer egin erraita. Neke da, erraiten dena egitea. Ez da hainbertze predikatzen bere mihiz, nola egiten baita zintzoki biziz.

Espanturik gabe eta neurritz erraiten duzu partida nola ereman, jakinez han izanen dituzula zure entzuleak zure jokoaren behari. Apezaren ahuleziak, jendeak konprenitzen eta barkatzen ditu, apalki aitortuak balin badira, baina pisu guti du, bere itzalak harroki ukatzen dituenaren erranak. Neronek gauza asko ez ditut egin, predikatzen nituen bezala. Gainera, badakigu azal ederrez tapatzen gure miseriak. Horra gure zortea. Horra nitaz ere egia, den bezala.

Jainkoaren etxea aitzina zolarik Zokoan jin zitzaizkion aita Coyos. Korean zebilen Sohutar misionista. Gustatu zitzaion eliza eta planak eskatu zaizkidan. Gogotik eman niozkan eta geroztik baduke gure elizak, han nonbait, Korean, bere birixkia.

APEZETXE BERRIA

Baina behar nuen ere pentsatu apezaren etxeari. Eta ohartu nintzen ez zela hain errex erretor etxe baten eraikitzea. Lehengo apezetxeak, beren zalditegi, egurtegi eta baratzeekin ez ziren modelatzen hartzekoak, baina gaur ere apezetxe batek behar zituen bi egonleku, bat apezarena bertze neskatoarena, bakotxa bere sartze, lantoki eta gelekina. Beharrik, arkitektu lanak egin zaizkidan, elizarentzat bezala, apezetxearentzat ere, Pavlovsky jaunak.

Iduritu zitzaizkion bizkitartean, ez nituela nere etxearentzat galdatzen ahal, elizarentzat galdatu sakrifizio berak. Hortakotz, enkantean eman nuen etxearen eraikitzea. Gabriel Solaberrieta Donibandarrak, preziorik merkeena eskainiz, ereman zuen enkanta eta eraiki apezetxea. Bi urtez altxatu zuen, apurka ordaintzeko hitzarkiarekin. Gaur zorra estalia da.

ERIEN ARTATZEN

Elizako eta etxeko lanen artetik, etxez etxe nindabilen, nere parropiako jendea hobeki ezagutzeko, eta horren egiteko lagundu ninduen ere hastapenean erizaingoan soldado nintzelarik ari izanak.

Zokoara etortzen ziren miriku gehienak lehenagotik ezagutzen nituen. Zenbait ere nere aspaldiko adiskideak ziren. Maiz arranguratzzen ziren zein bazterrera utzia zen Zokoa mendikuntza aldetik. Horgo 900



bizilagunentzat ez ginuen alabainan, ez mirikurik, ez farmaziarik, ez erizainik. Jende batzuek gainera, ez zuten oraino seguru sozialik.

Halako aldi batez, miriku adiskide horiek berek galdatu zaidaten ez nituenetz neronek laguntzen ahal, bederen pikurak egiten. Gogoetak egin nituen eta legetari behatu. Ikusi nuen behar nuela lan egin, dirurik batere eskatu gabe, bakarrik mirikuak eskatuaren gainean, eta medikuntzaren eskasiak kartierean konpondu arte. Ez nuen uste zazpi urte iraunen zuela ene ustegabeko lan horrek.

Dena den, erranen dut lan berri hortan beti argi atxiki ditudala xede finko batzu. Hala nola, lehenik ez nuen deus artarik egiten nere baitarik, mirikuak manatua eta manatu bezala baizik. Gero eriekin ikusia edo ikasia errotik ixilean atxikitzen nuen. Azkenekotz, ez nintzen sobera sartzen eriekin eta erien etxetan. Nere lana egin orduko erianganik urruntzen nintzen.

Bertzalde ere arras guti onartzen nuen parropiako etxe batera joaita apairu batentzat. Beti iduritu zait, parropiatik kanpo eta nere parropia ezagutzen ez zutenekin hobe nuela apairuak hartzea, jan-edan on batzuen ondotik, bihotza berazten baita, mihia destinkatzen, eta holakoetan, sekretuak har-ematera ekarriago zira.

Orai, nehoren izenik aipatu gabe eta nehoi kalterik ez egiteko gisan, konda nitzake orduan erizaingoan niri gertatu zenbait ixtorio. Hala nola, kanpotiar familia batzu baziren, menturaz lehen aberats izanak, bainan orai ahal bezala bizi, berdin zikinak janak. Hori zen bi senar emazte xaharren kasua. Biziki gostatzen zitzaidan heien etxen pikura egiten, astean behin, ibiltzea. Ohartu nintzen, ez zutela senar emaztek kasu handirik egiten elkarri eta, gehiago dena, emazte xaharra nitaz amorostu zela. Laster konpreniarazi nion banuela bertze egitekorik.

Gertatu zait bertze behin, gizon arrotz baten artatzera joaita. Konturatu nintzen bi txakur tipi bere ohean atxikitzen zituela, berotzeko, omen. Emazteak aldiz satora ereman nahi izan ninduen. Bera zen mozkorra.

Oroit naiz bada ere, Espainiako gerla eginik, Zokoan bizi zen Asturiano anarkista batez. Eritu zelarik eta gorputz guzian zakar itsusi batzu agertu zitzaizkiolarik, lanak izan nituen lehenbizian. Oihuka eta sakreka ari zitzaitan, aizkora bat emateko, bere burua hil nahi zuela. Egun guziez, ordu on bat pasatu nuen, hilabete batez, haren zaurien artatzen eta azkenean gizona hobekitu zen, jeiki eta kanpora ateratzen hasi. Handik hara ez zen eri hari deusik erran behar apezten kontra.

HILEN BEZTITZEN

Alta, eri artatzaile bezala, bertze lan bat ere banuen maiz egiteko, hura zen hilen beztitzea. Gogoan dut, egun batez jin zitzaitala udatiar mutil gazte eder bat bere zerbitzuen eskaintzera: uda guzirako ene gomendio zen, bere auto ederrarekin. Egun berean hain zuzen, Kalitxo-ko etxe batean hil zen gizon bat eta deitu ninduten hura beztitzera. Hara nindoalarik, iragan nintzen goizeko mutiko gaztearen etxe aitzinean, eta bera ikustearekin erran nion: «Errazu jauna, banuke zerbitzu bat zuri galdatzeko». «Mintza zaite, heldu nitzaizu», zuen ihardetsi. Nik orduan: «Ongi da, zato nerekin hil baten beztitzera!».

Ortzia gainera etorri balitzaio, ez zen gehiago harrituko gure mutila. Etorri zen halere nerekin, gaizoa. Ikustekoa zen nola hurbiltzen zen hilaren ondora, zangoen puntetan.

Azkenean, Zokoako alaba batek erizaingo eskolak egin zituen eta jin zen gutartean bizitzera. Atseginekin utzi nion berehala eri artatzeko kargua. Ez dut bizkitartean dolurik ofizio hori beterik zenbait urtez ene parropian. Hola nik hobeki ezagutu balin baditut jendeak, heiek beren aldetik ikusi dute apeza ez dela baitezpada lanoetan bizi, bainan badakie-lala hala beharrean, lagun protsimoa zerbitzatzeko, munduko ginarrian sartzen.

IJITOEN ERDIAN

Ijito lekua da Zokoa. Urte guziz ijito multzo batek egiten du bere egonaldia. Zokoan, beti haatik toki beretan, zeren eta nehor gutik nahi ditu bere etxeari hurbil eta zenbait aldiz ikusi dut poliza etorria ijitoen haitzatzera.

Behin baino gehiagotan mintzatu naiz herri gizonekin, nonbait kanping bat munta dezaten heientzat, behar diren ur, argi eta komunekin. Bainan garesti laitekeela, ez lezakeela bererik eman eta bertze mila arrazoinengatik, ez dut aurkitu inguruko herririk, ijitoentzat xahupideetan sartu nahi zuenik.

Ijitoen bizia aski hurbildik ikusirik, anitz urtez, zerbaite erran dezaket jende horietaz. Badira horietan ere aberatsak eta pobreak, esku garbiak eta esku zikinak, barne onekoak eta barne tzarrekoak, «handikiak» eta «herrestak». Euskaldun eta espainol ijitoak azken mailako bezala ikusiak



dira. Handikiak dira bereziki «manux» arrazakoak, berek diotenaz «odol urdinekoak».

Horien haur multzo bat izan da nere katiximetan, nahiz huts egiten zuten askotan. Ijito multzo bat bataiatu izan dut eta beren bataioak egiten dituzte ohore handitan, musika eta kantuekin. Heien sinestea hazia da ipuin eta kondairaz: maiz entzun diotet erraten, zabaltzen dituzten musika nota guziak, lotuak direla zeruan, izar tipi batzu bezala.

Ama Birjina biziki maite dute eta hura ohoratua den lekuetan badi-tuzte beti zenbait geldi leku. Norbait hiltzera doakiotelarik hurbiltzen dira beren hilobiak dituzten hilerrietarik. Ez naiz oroit ijito bat Zokoan ehortzirik.

Jitez ijitoak alegerak dira. Lasai bizi dira, pentsatu gabe lan orduari, ez biharko biziari. Gutxi dira sartuak seguru sozialean. Halere alokazio-nengatik edo, haurrak eskolara igortzen dituzte, lehen ez bezala, eta hauek orai irakurtzen eta izkribatzen doi bat ikasten dute. Erran behar da asko maite dituztela beren haurrak, eta eskandala bat da ijitoentzat, haur bat abandonatzea. Mutil batek esperantxetan ezartzen badu neska bat, harekin ezkondu behar du, edo kasu eman beza gertatuko zaionari. Bertzenaz berant ezkontzen dira, gehienetan zenbait haur ukan ondoan.

Beren mintzaira badute ijitoek, baina heiekilakoak ez direnek mintzaira hori ikastea ez dute maite. Bertzalde berek bizpahiru hizkuntza badakizkitez, usuenik frantsesa, espainola eta alemana. Bidaiatzea odolean dute, beharrezko zaiote, guri toki berean kokatzea bezala. Guk deramagun bizimoldearentzat ordea mesprezio izigarria badute. Funtsean guk heienarentzat bezala. Heiek ala gu gabiltza zuzen?

Egia da Zokoan ere ijitoek ebasten dituztela oilo, lapin, baratzekari eta holako. Behin Etzan baserrian, etxe guziak landan lanean ari zirelarik, ohartu ziren hiru emazte ijito bazoazela heien behitegira buruz. Etxeko nagusia joan zitzaionten gaineko selaurutik zelatatzen. Lagunak kanpotik zain zeudelarik, ijitoetarik bat, behitegi barnera sartu zen, oilo koloka bat lepotik hartu zuen eta gonapean gorde. Ustegabetarik agertu zitzaion ordea nagusia. Emaztea orduan kokoriko jarri zen, alegia bere beharren egiteko, baina bertzeak, «Xuti hortik!», oihi egin zion eta lapurrak, xutitzean, zaien azpitik utzi zuen bere oiloa airatzera.

Bizkitartean aspalidiko urtetan ezagutu dut Zokoan «manux» familia bat, Adel izenekoa, denak estimatzen zutena. Heien amak izanak zituen 17 haur. Zenbait geroztik hilak. Gehienak eskuin eta ezker barraiatsuak. Familia hori nahi izan zutelarik herritik haizatu, sinadurak bildu zituzten Zokotarrek heien alde eta geroztik gutartean daude.

Badu gainera Adel familiak bere historia luzea. Espainiako gerla hasi zelarik, Burgos aldean bizi ziren. Zazpi anaia musikari baziren eta zirko tipi bat eginez guziak elkarrekin bizi. Paperetan frantses ekarriak ziren Adeltarrak, baina espiungoan ari zirelako aitzakiarekin, preso sartu zituzten eta zernahi ikusi ondoan, Iruñean eta Arnegin gandi noizbait, beren kamiun bakarra harturik, soineko arrokekin denak kanporatu.

BERTZE JENDERIK

Ijitoek bertzerik bazela Zokoako parropian, bistan da. Aurkitu nituen adibidez adin handiko jende batzu. Banuen bat ehun urtez goitiko.

Horiatarik zenbaitek ikusiak zituzten Zokoan iragaiten Victoria Angleterako erregina eta Napoleon III. frantses enperadorea. Bertze batzuek haurra nintzelarik ezagutua ninduten. Ez dut errate beharrik zahar horiekin zein adiskide nintzen.

Baziren ere urte heietan Zokoan Bretoin anitz, gizonak arraintzara etorriak, emazteak kontserbategietara. Emazte horiek buruan zerabiltzaten mottoetarik elkar ezagutzen zuten, zein probintzietakoak ziren. Zenbait urtez egin izan da bretoin arraintzale horion eliza besta berezia. Geroago, 1956an muntatu ginuen euskaldunek gisa bereko elizkizuna. Erran behar da ere ezkontza frango egin izan dela euskaldunen eta bretoinen artean. Ezkontza iraunkorrak gehienetan. Fedezko zimendu bera dugu, egia erran, heiek eta guk. Berdin langileak gira eta berdin... kasko gogorak.

Mariñel zaharra

Mariñel ondo Bretoin zahar bat ez dut ahanzia: Denboraz bakalauketari ibilia zen Ternuan. Behin bere itsasontzia zilatutik, lagunak lotsatuak zirela, bera sartu zen zolako ganberan, ur-ziloa tapatu zuen eta ontzia salbatu. Medaila eman zioten, baina hori nehor gutik zekien Zokoan. Erretiratuz geroz gutartean bizi zen, ahuntz batzu haziz, Artetan xorta bat edaten zuen eta orduan zen apur bat zakartzen.

Bertzalde gizon hori bere emaztearengatik berezia baitzen, zibilean ezkondua zen bertze batekin. «Ni hiltzen naizenean ez nauzue elizan ehortziko», erraten zaitan. Bizkitartean fede handia zuen eta Santa Ana Auray-koa, bretoin marinelen patroina maiz otoizten zuen. Usu joaten



nintzaion ikustera eta hil aitzin, biek egin ginuen otoitz elkarrekin eta eman nion absoluzioa. Bainan orduko eliza legearen arabera ez neza-keen haren gorputza sar elizan. Erabaki nuen beraz haren ehortsak zibilerako joatea. Jendea harritu bazen ere, ondoko igandean predikutik erakutsi nuen nola batzuetan Jainkoaren ikusmoldea eta gurea bi direla.

Neronek banuen maiz pentsaketan egoiteko parada, nola behar nuen gobernatu hoinbertze jende desberdinez egin parropia: desberdin etorkiz, sorlekuz, mintzairaz. Horien arteko batasuna egin behar zuen gure fede berak eta gure Herri bereko lurrari, ohiturari eta ahalaz mintzoari jende horien guzian lotzeak.

Alta, katolikoez bertzelde, baziren Zokoan oraino, judu batzu, musulman langile bat edo bertze, erlijiorik gabeko zenbait eta protestante multzo tipi bat. Denekin, ahalaz, harreman onak izan ditut, bainan biziki onak protestanteekin. Hauek hiru taldetan biltzen ziren: Ebangelistak, Angleterako erregeren elizakoak, eta Joanes Husen aldeko Txekiarrak. Ingelesak nahiago zuten gure mezetara etorri, Ebangelisten elizkizunetara baino. Apez paga ere ordaintzen zaidaten batzuek. Zenbait aldiz gertatu zait ere katoliko baten ezkontzea protestante batekin.

Kasu batean ezagutu dut, emazte protestante bat senar katoliko batekin hemen ezkondua. Ezkontzean hitzeman bezala, bere haurrak eliza katolikoan bataiatu zituen eta hain zintzoki altxatu non galdetu bainon bere haurrekin batean har zitzan katiximan bertze haur umezurtz batzu. Eta arras ongi egin zuen.

PASAIANTEAK

Badut oraino zer erran. Zokoan pasatzen baizik ez ziren zenbait jendek utzi oroitzapenez. Nere kaperan bizi nintzen denborako zenbait kasu ditut bakarrik hemen aipatu. Jende horiek hiru edo lau multzotan biltzen ditut: udatiarrak, ohoinak, bitziak eta gero iheslarrak.

Udatiarrak

1950 ondoko urteetan hasi ziren Zokoara etortzen belazko etxoletan aloiatzen ziren udatiarrak. Ordu arte ez zen Zokoan kanpaleku bakar bat ere. Udatiar horiek bazter guzietan uzten zituzten beren zikinkeriak. Lekuko iturri eta latsagi guziak heien gomendio. Zenbaitek ez zuten errespeturik. Nere etxe ondoko iturrian ikusi nituen behin neskak batzu

biluzgorriturik ikuzten ari. «Non duzue lotsa?» galdetu nioten, frantsesez. Batek ihardetsi zaitan: «Lotsatzen bazira, aski duzu ez behatzea».

Bertze aldi batez, eliza ez zelarik oraino idekia, igandetako mezen emateko baizik, jin zaizkitan erratera eliza kanpatzaile ez betea zela. Ikus-tera joan-eta, neska-mutil andana bat aurkitu nuen, denak mainuko jantzitan. Soka batzu ezarriak zituzten galeria batetik bertzera, heietatik zintzilik beren arropen idortzen emateko. Komuniatzeko mahainaren aitzinean, su baten gainean, zenbait berotzen ari ziren.

Izigarriko hasarreak hartu ninduen eta oihuka hasi nintzen. Berrogoi bat urteko gizon potolo bat, mainu jantzitan hura ere, hurbildu zitzaiztan. Otoi ezitzeko, eskuz keinu egin zaitan eta erran: «Ez dira jende makurrak, ni naiz horien omoniera». Zernahikoak bota nizkion eta hamar minuta eman lekuen husteko. Hala egin zuen.

Azkenean, itsas hegian dagon Jauntto-baita etxaldeak baitzuen kanpaleku bat egiteko toki on bat, hango nagusiak, Joset Urbistondok deliberatu zuen lehen kanpatokia apailatzea eta ez zitzaien dolutu. Geroztik, bertze kanpaleku asko ideki dira Zokoan eta udatiarren zikinek ez gaituzte hanbat lotsatzen.

Ohoinak

Apez anitzek bezala, izan ditut nik ere diru galdez etorri zaizkidan bisitariak. Ez baita beti errex jakitea zein diren bide zuzenekoak eta zein makurrekoak. Halere apur bat entzunez geroz aski laster ohartzen zinen zein zen egiaz mintzo eta zein gezurrez. Erran zaharrak dio: «Gezurra kanpaleku laburra». Halakoak kanpora manatzen nituen.

Batzuetan gogoratu zait ene etxeko atean abisu hau ezartzea: «Ez daitezela hemen sar, ohoinak, gezurtiak eta eroak». Hainbertze jende badabil munduan, guti-edo-aski burutik nahasia denik, edo jende bitzirik!

Bitziak

Gau batez iratzarri ninduten ateko zilintza joz. Han zagon zutik gizon alimale bat, pilda tzarrez bezti, bere karga guzia oihala batean bildurik zeukala bizkarrean. Frantses piska bat jakinagatik, bera Irlandesa omen zen. European barna ibilki. Ama Birjinaren beila tokien itzulia egiten ari: Lurden izanik, orai Zaragozara joaki. Goseak hila omen baitzen, jatera eskaini nion: bezperako tupin eltzekari bainuen, hura berotzen hasi nintzen, bera zer ari zen begia atxikiz. Egiazki gose zela erakutsi zuen, tupin osoa hustu baitzuen. Ez bainuen harentzat oherik, etzanik eman nuen nere kaperako tronaduraren gainean, tapiza batez estalirik. Bihara-



mun goizean, lau-bortz neskatzak, meza kantatzera etorri zirelarik, han harrapatu zuten.

Meza hasi aitzin, erran nion gizonari xuti zedin. Erdi lo xutitu zen, bainan galtzen janzten neronek lagundu behar izan nuen. Nere neskatzak irriz hasi ziren. Bainan galtzak estekatzean erori zitzaizkion eta bigarren oldarrean, bere karga bizkarrera altxatzean, oihalezko zakua ideki zitzaion eta handik atera ziren liranja eta tipula buru batzu. Pentsa, gure neskaxen irriak! Meza eman-eta gatilu handi bat kafe hartzera gonbidatu nuen eta, hura edanik, urrundu zen, kantari, nere etxetik. Gure ama zenak zioena: «Hura ere ama baten semea, Jainkoaren haurra!».

Ihesliarrak

Egun batez bi gizon etorri zitzaizkidan. Txekiarrak omen ziren. Jatera emanik, lo egiteko eskaini nioten etxe azpiko xaia tipi, ilun, itsusia. Han egon ziren zenbait hilabetez. Heien biziaz liburu luze harrigarria egin liteke.

Txekoslobakiatik jinak ziren ihesi biak, bainan bat Txekiarra zen, bertzea Eslobakiarra, ez baita gauza bera, ezen Eslobakian gehienak katolikoak baldin badira, Txekiarrak maiz protestante dira. Mintzaira ere ez dute berdina, ez jitea. Apur bat Biarnesek eta Euskaldunek bezala. Dena den, Rusoak Txekoslobakian sartu zirelarik gure bi gizonak preso sartu zituzten. Txekiarra preso zelai batera igorri eta Eslobakiarra ikaztegi batera, lanera.

Eslobakiarra. Zdenek izenekoa, ihesi joan zen Alemaniara eta, han ziren Frantses soldadoek kontseilaturik, «Légion Etran gère» delako tropetan engaiatu. Orduan Afrikako Sahara mortura joan behar izan zuen. Ez baitzen han laketa, lagun batekin ihesi joan zen Marokako aldera. Gibelatik zeuzkaten frantses jandarmek hil zioten laguna mugara heltzean. Berak orde, muga iragan zuen eta Marokarrekin preso sartu zuten Casablanca. Handik atera zelarik, Frantziako Marseillera buruz joan zen eta gero Parisera. Han aurkitu baitzuen bere Txekiar laguna.

Txekiar hori bada inginadorea zen, bi haurren aita, katolikoa eta jadanik zigor-zelaietan preso egona. Hitler-en denboran, eta han zango bat enbaliertua. Lau-bortz mintzaira mintzo zituen. Rusoa ere baitzekien, Rusoek preso sartu zutelarik, asmatu zuen komunizgoara itzuli zelako jukutria egitea. Eta libratu orduko iragan zen Alemaniara, han Amerikanoengana biltzeko xedetan. Bainan Amerikanoek Frantsesei gomendatu zioten eta hauek, Pariseko hotel eder batera eremanik, han proposatu zioten hautua: edo bere sorterrira itzultzea. Frantsesen kondu espiongoan aritzeko, edo zortzi egunen buruko Frantziatik kanpo joatea. Orduan

zuen Parisen aurkitu, Marseille-tik etorria, bere lagun Eslobakiarra. Han zuten biek erabaki, bakean utziko zituzten Tanger bezalako leku batera joatea, bizitzera.

Horra nola ziren beraz bi gizonak. Parisetik nere etxera kamiun batean etorriak, Tanger-era joateko asmotan. Zorigaitzez, ez zuten suertirik izan: Lehen aldian, muga iragan orduko Sarako Lizuniagan gaindi, espainolek hartu zituzten eta Iruñeko presondegian zenbait egunez atxiki ondoan, Lizuniagatik Frantziara igorri. Bigarren aldian, Biarnoko Somportetik muga iragan zuten, bainan han ere Jaca-ko poliziak berriz gibelera bidali zituen. Hirugarren aldian, beren lanaz eta nere laguntzaz diru apur bat bildurik Madrileko trenetan sartu ziren, bainan, debrukeria, poliziak Madrilen hatzeman zituen eta furgoneta batean Frantziara despeditu, ez gehiago Espainiara itzultzekotan.

Zer egin bada? Erabaki zuten Marseillen gaindi itsasontziz joatea Tanger-era. Eta kargaketari batek hartu zituen langile bezala, janean truk. Bainan Tanger-en ez zituzten onartu, ez zutelakotz berekin aski dirurik. Marseillera itzuli zirelarik han ebatsi ziozkaten beren arropa eta paper guziak. Gero lan bat proposatu zioten frango arriskutsua: gerla denboran, itsas hegian pausatu minen desmontatzea. Zdenek-ek onartu zuen lan hori, bainan geroztik, jakin nuen nonbaitik, gaizo gizonak bere burua aurkiti zuela trein baten azpira. Ez dut sekula jakin zuzena zenetz. Bainan Zdenek-en hil berriaren ondotik, jin zitzaitan haren andregaiak Alemaniari igorritik, alemanez idatzi gutun bat. Ez zuen gehiago andreak senargaiaren berririk, berak aldiz bien haur bat mundura emana zuen eta katolikoa izanez nahiko zuen Zokoan ezkontzera etorri. Neronek ihardetsi nion, alemanez, gutun batean, zorigaitzez haren senargaia hila zela istripu batean, bainan jakin zezala berak, eta beren haurrari erran, haren aita errespetu eta ohore merezi zuen gizona izana zela.

Txekiar laguna aldiz, berriz agertu zen nere etxera. Ordukotzat, lan bat hatzemana nuen harentzat. Bordele inguruko etxalde batean, behizaingoan. Gogotik hartu zuen lan hori eta, zenbait hilabetez egonik etxe hortan, Alemanian bizitzera joan zen. Handik izaten ditut noiztenka haren berriak. Garage batean egiten du lan. Azken gutun batean idazten du, seme bat apeztu zaiola berriketan eta aita-semek baluketela nere ikus-tera jiteko gogoia.

Hontan bukatzen dut bi gizon horien historia latza. Uste dut nere aldetik kasu hortan bete dudala Jesusen deia: «Egizue ongi etorri jende arrotzari!». Eta ez dut dolurik.



ETXE ALDAIRA (1959)

1959an utzi nuen ene kapera, nere erretor etxean sartzeko. Auzoek lagundu ninduten aldaira egiten. Esker on gisa, afari bat eskaini nioten deneri nere egoitza berrian eta, zenbait egun geroxago, itzuli bat egin ginuen elkarrekin. Baigorri gaindi, Izpegiko lepoan.

Geroztik, sakramendu saildua ezarri nuen elizan eta han berean ematen nuen ere meza egun guziez. Kapera zen nere egoitza ohia aldiz saldu nuen.

Lehen bataioa

Une berean, buruilaren 13an, eliza berrian egin nuen nere lehen bataioa. Jakes Ortiz-ena izan zen, atsegin izan bainuen, zeren hauraren ama, Beronika, izan baita beti elizaren artatzeari atxikia. Zuzen zen haren haur batek estreina zezan bataio harria.

Elizan ezarriak ziren beraz ateak eta ezkila, baina bazen oraino asko lan egiteko. Pirka-pirka heldu zen laguntza handik edo hemendik. Egun batez Donibanen hustu zuten Ospitaleko kapera. Passicot komandantearen alarguna zen horgo buruzagia, andere Passicot Zokotarra.

Passicot «komandantea»

Delako komandanteari bere gradua emana zioten gerla denboran, eta bere izena bazuen ere Zokoako karrika batek. Bizkitartean komandante hori ezagutu nuelarik, bizi izan nituen horrekin harreman lazgarriak.

Jakin behar da anaia bat banuela, 32 urtekoa, bi haurren aita. Alemanen denboran jende pasan ari izana Frantsesentzat Espainiara. Alemanak hemendik joan zirelarik, Passicot komandanteak ezarri zituen bere soldadoak mugazain. Soldado horiek gehienak hogoi urtez azpiko mutil gazte batzu ziren, nornahi errexki tirokatzen zutenak. Egun batez, nere anaia beldu zen Beratik, bere emaztearen familian lauetakoa eginik lagun batekin. Muga pasatzean, Passicoten mutikoez tirokatu zituzten nere anaia eta haren laguna. Nere anaia hil zuten.

Nahiko nuen, haurrek ukan zezaketen laguntzarengatik, heriotze hori eman zedin armadaren gain, baina Passicotez ez zuen hortaz fitsik jakin nahi: «Haltel» oihua entzun-eta, ihesi joan omen zen nere anaia eta hortakotz tirokatua izan zen, holetan. Hori gezur hutsa zen, zeren Ale-

manen denboran Frantsesen alde lan eginik medaila ukaiteko aiputan zelarik, ez zuen nere anaia nehora ihes joateko arrazoinik.

Dena dela, eztabaida gogorra izana nuen Passicotekin. Ba ote zekien deusik hortaz haren alargunak? Ez dut uste... Emazte bihotz onekoa zen eta egia jakin balu bertzela gurutzatuko zen nerekin. Gure elizari eman zion sakristiako armairua, komunionezko mahaina eta belaunikatzeko alki bat.

Nere anaiaren hiltzailea aldiz, ezagutzen ginuen, 16-17 urteko mutiko tzar bat zen. Hiltze horren ondotik, lekuak hustu zituen Biarno aldeko baserri batera. Han ere ez zuen gauza onik egin. Nagusiak ohointzan hatzemanik, hura garbitu zuen ihiziko zizparekin. Jandarmek altxatu-eta, eskapatzera utzi zuten. Hura, hilaren etxera itzuli zen eta etxeandrea hil zuen arma berarekin. Lau urteko haurra berdin garbituko zuen, kartutxarik izan balu. Gero, auzian, bizi guzikotz presondegira kondenatua izan zen, baina zenbait urteren buruko askatu zuten.

Orain, mutil horrek irakur balitza lerro hauek, erran nahi nioke, gure etxeko norbait bere bidean aurkitzen badu, ez duela ihes joan beharrik. Ez dugu ahantzia, ez baitira holakoak ahanzten, baina barkatua diogu girixtinoak baigira.

Nere auzia

Bizia borroka da. Ez hala nahi dugulakotz, baina Jainkoak hola egin duelakotz. Borroka urtea izan zen neretzat 1959 urtea. Algeriako gerlan sartua zen Frantzia eta jendea azkarki mintzo zen gerla horren alde edo kontra. Jada gure herri gehienetan baziren gazteak gerla hortan hilak. Nere kusi urrun Getariar apezgai bat hil berri zen. Zokotar bat ere erori zen: Echaide familiako René, beren seme bakarra.

Orduan, kazetaritzan apur bat ari bainintzen, artikulua bat agertarazi nuen, «Herria» astekarian, erranez, aski odol baginuela ixuririk Algerian, bereziki guk, Euskaldunek, ez baikinuen deus onik igurikatzen ahal gerla hortarik. Behar zela beraz bake solasetan sartu eta gerla hori lehen-bailen bururatu.

Tixier-Vignancourt deputatu eskuindarrak, artikulua hori ezarri zuen Piarres Lafitte, «Herria»ren zuzendariaren gain, eta hau auzitaratu, Frantziaren saltzaile bezala salatuz. Nik ordea, nere burua agertu nuen eta ni nintzela artikulua egilea jakinarazi. Deputatuak hortan niri buruz itzuli zituen bere armak: igorri zituen Baionako soldado parasolari batzu, nere kontrako paperak eta kartelak hedatzeko, gauaz, Zokoako murrutia eta bazterretan. Goizaldera, jeikitzean ordea, Zokoako emazte paper horiek



ikusi zituztelarik, denak urratu eta suntsitu zituzten. Hortaz atsegin izan bainuen. Auziak halere, frango luze iraun zuen. Orogen buru, libro utzi ninduten, demendreneko zigorrik gabe.

Bigarren konfirmazionea

1962ko maiatzaren 2an, arratsalde, izan ginuen Zokoan bigarren konfirmazionea, Gouyon apezpikuak emanik. 38 haur baziren aldi hontan konfirmatzeko. Ohorezki hartu ginuen Baionako apezpikua, arrantzale arraunez inguratutik, elizarako bidean.

Nekatua eta presatua baitzen jaun apezpikua, arinki jan ondoan, laster urrundu zen Zokoatik. Halere joan aitzin, sar-jalgi bat egin zuen, ama familiako gazte bat, min biziak joa zuena, Josefina Larre, Xango-baitakoa, agurtzeko. Jendeak asko estimatu zuen haren egitate hori.

ARRANTZALEEKIN 10 URTEZ

Zokoara etorri nintzelarik 1951n, baziren parropian 70 arrantzale eta arrain kontserbategietan 120 langile. Beraz Zokotar gehienak arrantzatik bizi ziren eta kasu berezia eman behar nioten arrantzaleeri. Ez zen aski noizean behin xipiroi arrantzan aritzea, itsasontzi batzuen benedikatzeari edo heietan pasaiatzea. Behar nituen hurbildik ikusi arrantzaleek beren lanbideetan zituzten arrangurak eta gorabeherak. Hortakotz hobereña nuen eskuz-esku jartzea, Idiarregaray, arrantzaleen omonierekin.

Kaiet Idiarregaray zen, gorputz larriko gizon bat, indar gaitzekoa, pilotaria, arraunlaria eta ihiztaria. Izpiritu ernea zuen, Erroman teologia ikasia. Haren mailako ikasle batzu jada apezpiku ziren. Bolbora bezain bizia baitzen, berdin muturreko bat nor-nahiri emateko prest zen, hasarretzen zelarik eta sakreka hasten. «Gizon debru hori» zioten hartaz jendeek, bainan bihotz onekoa baitzen, bazuen anitz adiskide.

Bi maitasun berezi bazituen: Ama Birjina eta... xoriak.

Bularretarik eri zelarik gaztetan, Lurdeko Amak mirakuiluz sendatu omen zuen. Soldado zelarik sarjant batek zerbait larrikeria jalgirik Ama Birjinaz, Idiarregarayek zanpatu omen zuen delako aitzindaria eta gerlako auzitegira deitua izan ere zen horrengatik. Arrantzaleen apez zelarik, 1948an, Ziburuko portuaren sarreran jarri zuen, Muxkoa deitu etxe baten lurrean, Muxkoako Ama Birjina, arrantzaleen begirale.

Erran behar da ere, bere arrantzaleen omonier lanerako ikasketa bereziak eginak zituela Britainian Idiarregaray apezak, marinel aitzindari ohi, Lebret aita dominikano famatuaren gidaritzapean. Donibane Ziburura itzuli zelarik, omonierak bere ingurura bildu zuen, eta eskolatu, arrantzale gazte multzo bat. Lan horren ondorioz Donibaneko portuak izan zuen izigarriko hazkundera.

Urte horietan, Donibaneko arrantzaleek, elkarretaratuz, berritu zituzten beren lan moldeak, muntatu beren koperatibak, beren segurantzak, beren itsasontziak, beren enkanta, beren kontserbategiak, beren eskolak. Laster gure portuak bildu zuen fama gaitza eta ikusleak etorri ziren urrundik: Poloniatik, Indiako Keralatik, Afrikatik.

Afrikako Dakar aldera buruz abiatu ziren hain zuzen orduan, atunketa. Donibaneko arrantzaleak, 1956ko hazilaren 4ean, ospatu ginuen lehen partiada: Larrart apezpikuak egin zuen lehen 22 ontzien eta 312 gizonen benedikatzeari.

Ondoko urtean, 1957ko hazilaren 27an, izan zen Gouyon apezpikuak kaian eman mezaren ondotik, bigarren partiada, 40 bat ontzi eta 400 bat gizonekin. Sekulako jendea bildu zuen besta horrek.

Arrantzaleen eta heien etxekoen arteko lokarritzat asmatu ginuen orduan, «La Croix du Sud», euskarazko eta frantsesezko sei-hilabetekaria, ateratzea. Idiarregarayek eta nik, bi apezek egiten ginuen gehiena. Arrakasta zabala izan zuen eta Kaiet Idiarregaray hil arte iraun zuen.

Zorigaitzez, anitz eta luzaz pairatu ondoan, 1965ean hil zelarik arrantzaleen apeza, galtze handia izan zen Donibane Ziburuko portuko jendearentzat. Laster politika eta zatiketak sortu ziren, egoera aldatu zen eta nere ikuspegia agertu nuelarik, aldi bat edo bertze, entzun nituen nereak eta asto beltzarenak. Orduan baztertu nintzen mundu hortarik.

ZOKOAKO BI MISIONEAK

Ni erreitor nintzelarik bi misione emanak izan ziren Zokoan. Lehenean, Belokeko bi beneditano ziren predikariak, aita Martin Senpertarra eta aita Leon Urruñarra. Bi misiolari moda zaharrekoak —ez baitu erran nahi arrakasta gutikoak— bat ala bertzea funtsezkoak, zintzoak, oraiko munduari idekiak.

Bertze misioea eman zen kostaldeko parropia guzietan. Hor misiolari batzu euskaldunak ziren, bainan gehienak arrotzak. Frantzia guzitik



etorriak. Bigarren misione huntan egin ziren inkesta anitz, ikertzeko non zer jende mota bizi zen, zer mundutarik ateratzen ginen zer mundutan sartzeko, nola behar zitzaion mintzatu jende mota bakotxari. Misione hunek nahi zituen jendeak argitu eta iratzarri. Lehenak zeru eta zerurako bidea zuen gehienik aipu. Bigarrena lurrar zen gehiago mintzo eta zerua lurrera jautsarazteaz.

Misiolari guzien artetik, Zokoan oroitzapen bereziena utzi zuena izan zen, nik uste, kaputxin bizardun bat, ez baitezpada bertzeak baino sailduago zelakotz, bainan beharbada ez baitzen hura baino «herremen-tagorik» agertu.

Kaputxin hori, sortzez Tarbes-ekoa, gaztetan metalgintzan langile izanik, berant apeztua zen. Erdi anarkista, erdi komunista itxura zuen, bainan beti oso Jainkotiarra agertzen zen aita Yves.

Gerla denboran aita Yves egona zen, ni bezala preso, Magdeburg ondoko preso-zelaian. Bazuen jadanik balentria ederrik eginik eskualde horietan, bainan gerlatik landa, bere kaputxin lanera itzuli-eta, Belgikako mugan misione bat ematen ari zelarik ikaztoki batzuetan, bere solas eta predikuetan zerabiltzan gordinkeria batzuegatik buruzagiek baztertu zuten eta Frantzia hegoaldera igorri.

Horra zer famarekin hurbildu zitzaigun Euskal Herrira gure aita kaputxinoa. Ez dut errate beharrik ez zutela «parropia handietako» apezek misionearentzat berek hartu nahi izan. Gogotik utzi zuten denek neretzat. Nik hartu nuen bihotz onez eta airoski. Ez dezaket erran beti ongi elkar aditu ginuela. Gorabehera batzu izan genituen bien artean eta jasan ukan ditut onartzen ez nituen haren jokamolde batzu. Halere jende anitz biltzen zuen bere predikuetara eta segur Jainkoa hartaz baliatu zen bihotz gogor batzuen guritzeko.

Irri ederrik egin izan dugu Zokoan, aita Yves-ekin. Hala nola, elizan predikatzeke partez, «La Cité» auzoko sala batean egiten zituen maiz bere predikuak edo, hobeki errateko, jendeekilako elkarrizketak. Ez zuen maite ni hor aurkitzea, moztan omen nion bere solas iturria. Halako batean, emazte batek atera zion ez zuela kofesatzea maite. Bertzenaz ere, apezek deus ez zekitela senar-emazteen arteko gorabeheraz, ez zirelakotz berak ezkonduak. Misionestak ihardetsi zion: «Ez din balio emaztekoa, hemen holakorik kondatzea. Hemengo erretorak ikusiak ditin parropia guziko emazteen gibelaldeak». Bazekiten alabainan denek han, erizaingoan ari nintzela. Kaputxinoaren ateraldia errepikatu zen luzaz Zokoan eta inguruetan.

Bertze behin proposatu nion misionestari Arantzazura joatea, orai Sarako erretor den Mixel Idiart lagun. Arantzazuko hotelean, bazkalor-
duan, egun hartan erretreta egitera etorriak ziren adineko emazte batzuek betetzen zuten jantokia. Xoko batean onartu gintuzten halere hiru apezak, ixilik egotekotan. Bazkaria aitzina zola, behako emanez inguruari Kaputxinoak Mixeli eta neri atera zaikun, ahapetik: «Hauxe bada, zein itsusiak diren barne huntako emazteak! Segur ez die horiek tentamendurik piztuko». Nik ere ahapetik ihardetsi nion: «Hago otoi ixilik, ez dukek hik engoitik tentamendu handirik». Bainan orduan harek bota zaitan bere handietarik larri bat: «Uste ez baduk ere, ene zaharrean, goiz guziez atzartzen nauk meta ziri baten aitzinean!».

Ateraldi hori entzunik, irri-karkaraz zapartaka hasi zen, gora-gora, Mixel gure laguna. Bere irria nehondik ezin tapatuz baitzegoen, atso guziak, harriturik, hasi zitzaizkion «Ixo, ixoka!». Ez gintuen nahi bezain zalu lekuak hustu.

Noizbait halere, aita Yves eta nere artean aroa goibeldu zen. Huna nola: Erran eta erran ari nintzaion zenbait egun hartan, ez zitzala haurrak abusa, egiten zuen bezala, bere larderia galtzen ari zuela. Alabaina, haurrek bizarra hunkitzen ziotelarik, jostatzeko, berak ahuntz marraka batzu jalgitzen zituen.

Haurrek bakantza zuten ortzegun batez, erabaki ginuen, nik meza emanen nuela berak haurrak gobernatzekotan. Urte hartan, katiximako handienak frango nekosak nituen. Meza hasi aitzin, entzun nituen sekulako irrietan ari aita Kaputxinoarekin. Zorigaitzez, meza hasi-eta ez ziren irriak ixildu. Kaputxinoak ahoa ideki orduko haurrak irriz. Azkenean apezka kexatu zen eta oihuka hasi. Haur batzu zaflakatu zituen eta belau-niko ezarri. Komunioneke artean iduri zuen korrida leku zela gure eliza.

Nik ez nuen ahorik ideki. Bainan meza bukatu orduko, jestu batez haurrak ixilarazi nituen eta erran nioten: «Aski komedia! Goazen otoitzarri!». Hortan gure Kaputxinoa aztoratu zen; hitzik erran gabe elizatik atera eta ez zen Zokoara itzuli biharamun arte. Gero jakin nuen Baionako kaputxinoetan egon zela arte hartan. Gertakari hortaz ez ginuen hitzik atera gure artean.

Gure misionearen ondotik laster, aita Yves hil zen, istripu batean kamiun batek leherturik. Bihozmin handia ukan nuen hortaz eta adiskide zenbaitekin meza eman ginuen harentzat.



ESKALEAK

Aitzineko egoitzan bezala, Zokoako etxe berrian mota guzietako eskaleak hurbildu zaizkit. Oroit naiz, etxe berri hortan sartu berri nintzelarik, goizetan bortzetan atea jo zaidatela. Hor zeuden berrogoi bat Portuges, batzu 15-16 urtekoak. Itsasontzi batean sartuak ziren Portugalen eta gauaz ixilka jautsirik Zokoako portuan norbaitek ekarriak zituen nere etxe aitzinera. Goseak hilak baitziren denak, jo nuen presatuenera: mahai-nean eman niozkaten nituen jateko guziak eta gero berak berotzen ari zirela kafe bero zorta bat prestatu nioten.

Gero, ez zen errex elgar aditzea: heiek ez zekiten frantsesik, eta nik ez nekien portugesez, «Michelin» bideetako karta harturik, erakutsi nioten non ginen eta nondik joan zitezkeen Donibanera, treina hartzera, hura nahi baitzuten. Kontseilatu nioten joatea ez denak batean, bainan multzo tipika. Biharamunean ikusi nuen egunkarian, gehienak hartu zituztela jan-darmek eta mugara ereman.

Portugesak bezala, bertze anitz jende etorri zaizkit lan eske. Batzu presondegitik berrikitan ateraiak. Bertze batzu Espainolak edo Frantsesak Algeriatik etorri berriak eta bertze asko mota. Jende horiek oro igortzen nituen lehenik, lana hatzemaiteaz ardura zuten bulegoetara, kasik beti debaldetan. Neronek norbaitentzat hatzeman banuen lan bat, mingarriena zen gero jakitea, batzuetan gertatu zaitan bezala, xoria lanetik airatu zela diru zerbaite ebatsirik.

Bazen bertzalde jende kopuru handi bat zuzenean diru eske heldu zena neri buruz:

Baziren hauetan batzu, berdin jaun ematen zutenak. Ez omen zuten ohointzari lotu nahi; diru puska bat eskatzen zuten zenbait egunentzat, gero laster itzultzekotan. Bertze zenbait, aldiz, herrestak ziren, bizimolde legezko bati uko eginak, denen bizkar bizi nahi. Bainan azkenean baziren ere ohoinak.

Ezin da sinets zenbat jukutria asma dezaketen jende batzuek ohointza egiteko. Horien ezagutzeko, jakin behar dena da: 1.-ik, beti dirua eskatzen dutela, ez jatekoa edo aterbea. 2.-ik, beti diru asko behar dutela, bidaia luze bat egiteko edo hoteleko gastuak ordaintzeko eta hola. 3.-ik, beti norbait direla, txeki karneta badute, telefonoa ere bai eta jende ohogarri eta ezagunen bermea.

Mota hortako jendeak enganatu nau halere ni ere, behin edo bertze. Jaun bati adibidez, ordaindu nion Parisera inoko bidaia, baizik eta Espai-

niatik heldu zela eta han paper guziak lapurtu ziozkatela. Ene etxetik telefonatu ere zion adiskide miriku bati abisatzeko eta haren bermea neri emateko. Bainan ondotik ez nuen gehiago sekulan ikusi ez gizon ezagunik, ez miriku adiskiderik, ez aitzinatu dirurik.

Noizean behin, ohoinak jazartzen ziren ere gure elizari. Lauzpabortz aldiz hustu dute diru-untzia edo lapurtu aldareko ganderailuak eta kobrezko ontziak. Behin neronek zelaturik, elizako sakristian hatzeman nuen lapurretan ari zen ohoin bat. Hendaiaitik jina baitzen, hara itzuli zen, bainan poliza-etxera.

ERREBELATUAK

Bizkitartean, mugari hurbil bizi izanez, muga horren gainetik, errebelaturik, hara-hona zebilen anitz jende mota nere etxean ikusi ukan dut. Hala nola, arrats batez, eliza aitzinean, 16-17 urteko mutiko batek deitu ninduen. Erran zaitan, espainolez, langabezian izanik. Bidasoara jauzi egin zuela Hondarribian, Frantziara igerika iragaitako, bere adineko bi lagunekin. Bera iritsi zen honaindira, bainan bere lagun berririk ez zuen. Laster jakin nuen bi mutilak jadanik hatzemanak zituztela urean itoak. Hirugarrena, lehen-bai-lehen, neronek lagundu nuen mugaz bertzaldera.

Bertze behin, negua zen, arrats iluna, ortziak eta ximistak ari, norbaitek jo zuelarik nere etxeko atean. Idekitzean, 13 bat urteko mutiko kozkor bat agertzen zait. Sartu orduko, belauniko ematen da nere aitzinean erranez: «Aita, kofesa nezazu!». Erdi irriz ihardesten diot: «Zergatik nahi duk kofesatu? Haugi lehenik nerekin afaltzera! Gero mintzatuko gaituk».

Mahai-nean, zenbait ixtorio kondatu niozkan mutikoari, eta hunek orduan salatu zaitan. Châlons-sur-Marne-koa zela eta eskolan nota txarrak izanik, etxera sartzeko beldurrez, aita joko zuelakotz, Espainiarako treina hartu zuela, ihesi. Bere aitzinean, aitari telefonatu nion berehala, erranez, biharamun goizean haren semea sartuko nuela Parisera treinean, otoi har zezala. Ebanjelioko aita bere seme «prodigoa» bezala. Zenbait egun geroxago ukan nuen burasoen eskutitz bat, beren poza errateko eta eskerren bihurtzeko.

Handik laster, igande goiz batez, ezkila dorrera nindoalarik lehen meza deia jotzera, han aurkitu nuen lo, hogoi bat urteko mutil gazte bat,



elizako tapiza batean ingurikatua. Iratzartzearekin, aitortu zaitan Clermont-Ferrand-ekoa zela, eta bere andregaiaren ikustera etorria zela Zoko-ara mobyletean. Delako andregaia, hilabete batentzat jina omen zen Zokoako belakari eskolara, eta bi gazteak hitzartuak ziren, elkar ikusiko zutela elizan igande goizeko mezaren ondotik. Meza ondoan ikusi nuen ematzegaia eta biak gomitatu nituen gosaltzera.

Bainan garai hartan gertatu zait bertze ixtoriorik. Gure bizileku goxoetan uda iragaiteko dirurik gastatu gabe, uda hastapenean hona buruz abiatuak ziren hiri handietako emagaldu batzu, etxez-etxe zebiltzanak, beren «dana» eskainiz, jan eta loaren truke. Etxe batean segurik, heien tratua onartu zuten. Nere etxera ere norbaitek igorri zituen halako bi pika, bainan laster konpreniarazi nioten sehirik gabe izanagatik ez nuela heien zerbitzuen beharrik.

Gaixo «kreatura» horietarik bat, bizkitartean, Alemanek itsas-hegian utzi «blokhauss» batean beregain lotu zen lanari. Handik denbora pixka baten buruan, norbaitek abisatu ninduen delako emagaldua eri zela, eta arras eri. Joan nindakion ikustera eta, ikusiak iziturik, deitu nuen adixkide miriku bat. Honek paperak eginik, Zokotar presuna on batek ereman zuen ospitalera.

Zenbait egunen buruan, goxoki batzu erosirik, joan nintzen eria-aren bisitatzera. Haren gela galdegin niolarik artatzen zuen ospitaleko serora mokor bati, esker tzarra izan nuen: «Ez ahal dakizu nor den emazte hori?», «Zer zaitzu zuri?», ihardetsi nion beretik. Bainan ni ikustean, nere opari tipia eskutan, nigarrez hasi zitzaion gaixo eria: «Ez nuen uste oraino nehor oroitu zela nitaz!».

Eta bere bizi tristea kondatu zaitan: Hamasei urte zituelarik, sehi igorri zuten; gizon batek enganatu eta haur tipi batekin utzi zuen. Haur hura hazteko, bere sehi irabazia joritzen zuen bere gorputza alokatuz. Bainan bere sehi lana galdu zuelarik, bigarren lanbidea baizik ez zitzaion gelditu, eta azkenean, ustez gehiago irabaztea, etorri zen Euskal Herriko itsas-hegira. Hemen ordea, aurkitu zuen langabezia eta eritasuna, eta, agian, zeruko bidea... zeren eta ene bisitaren ondotik jaster hil baitzen. Ez zituen oraino 35 urte eginak. Neri presuna gaixo horrek eman daut bizi guzirik erakaspenera, Ebanjelioan aurkitzen dena: Emagalduta zenbait sartuko direla zeruan, beren ustez saildu handi diren batzu baino lehen.

Ez dira ordea heriotze guziak berdinak. Hori frangotan frogatu izan dut. Atso xahar bat banuen auzoan, edariari emana. Haurrak haren trufan ari zirelarik zaintzen nuen eta bere etxera berdin laguntzen. Hiltzera zoala oharturik, gogotik onartu zuen apezta deitzea. Orduan ikusi nuen deus ez

zekiela erlisioneaz, ez baitzen behin ere katiximan ibilia. Aipatu niolarik Ama Birjina haxe erran zaitan: «Zuk sinesten duzunaz geroz, nik ere sinesten dut». Agur Maria eta kontrizionezko akta hitz laburrez errepikatu zituen nere ondotik, absoluioa eman nion eta hil zen.

Kasu hortan bi puntu finkatu ziren betikotz nere baitan: lehenik, zein beharrezkoa den hurrengo katixima eta bigarrenik, elez baino obraz, miletan hobeki erakasten dela.

Alta ez nagoke bertze heriotze bat ere aipatu gabe: Zokoako mugan, Urruñako aldetik, caravaning batean bizi zen udatiar gizon bat. Hendaia-ko miriku bat jin zitzaion gau batez abisatzera, delako gizon hori hiltzera zoala eta nerekin mintzatu nahi zuela.

Gau betean, joan nintzen beraz eria-aren ikustera: Gizon ttipi txar bat zen, pijama soinean eta zutik bere karrosan. Heldu orduko erran zaitan ez ninduela apez bezala deitzen, bainan gaua luze zitzaioala bere bakartasunean, eta zerbitzu egilea nintzela entzunik, neri dei egitea lagun bezala, pentsatu zuela. Orduan gure arteko elkarrizketa bitxi bat hasi ginuen: nik nahi nituen haren gogo-bihotzak Jainkoari buruz itzuli eta hura ez zitzaion mintzo bere denboran bereganatu zituen emazteez eta ematzegiez baizik.

Goiz aldera, meza erran behar bainuen, urrundu nintzen handik eta goiz hartan berean hil zen ene gizona. Ez dakit familiakorik nehor bazue-
netz, ez zen hasteko nehor agertu nigana.



1960 ONDOKO URTEAK

Zinez urte lantsuak izan ziren neretzat 1960 inguruko urte horiek. Harriturik nago oraino, nola denetara heltzen nintzen. Erran behar dut Jainkoak eman zaitala gaitzeko osasuna. 28 urtez ez naiz oroit, eritu artino, behin ere meza edo katixima eman gabe egonik Zokoan. Ez dut ere bakantzarik hartu, salbu aste batez. Galizian gaindi itzuli bat egiteko. Uste nuen erretira hartzean, denbora tira ukanen nuela pausatzeke. Nere ametsa zen onjoketa edo gaztainaketa ibiltzea edo mendietako hilerri zaharren ikuskatzea. Orai ohartzen naiz atsedena ez duela Jainkoak neretzat egina. Goazen bertaz geroko esperantzari!

Dena dela, artetik oroitzen naiz, Pantxoa Etkezaharreta ginuela buru. 1960an hasi ginuela uda guziez, zortzi urtez eman ginuen euskarazko emankizuna. Astean 30 bat orri bederen idazten nituen.

1960eko urte berean, sortu ginuen «Enbata» kazeta eta mugimendua. Kazeta hortan idazten nuen, bai eta ere «Herria» edo bertze kazeta batzuetan. Antzerki multzo bat atera nuen bertzalde eta arratsetan maiz joaten nintzen Urruñako antzerkilarien moldatzera. 1964ean, Azkainen egin nuen nere Euskaltzaindian sartzea. Eta azkenik 1969an, sortu ginuen Anai-artearen deitu batasuna.

EUSKALDUN IHESLARIEKIN

1960ean agertu ziren hemen gaindi, Franco-ren menpetik ihesi etorri ziren ETA-ko lehenak. Hastapenean gure etxetan hartzen genituen, 1962an jin ziren lehenak nere etxera. Apez batzu ziren. Guziz adixkide bilakatu nintzen heiekin. Laster ohartu nintzen, apez gazte horiek ez zutela batere 1936an huna ihesi etorri apezan izpiritua. Apez horiek kokatu zirelarik eskuin eta ezker, horien ordainak sartu ziren nere etxean. Mutil gazte batzu ziren, bai eta ere senar-emazte ezkondu batzu.

Ez nintzen aberatsa. Heldu zirenek zerbait ekartzen zuten. Ginuena elkarren artean zatikatzen ginuen. Ez da sekulan gure artean kalapitarik izan, batek bertzearen ogitik jaten zuelakotz. Bainan iheslariak gero eta kopuru handiagoan heldu zitzaizkigun. Hortakotz, mugaz bi aldetako lagun multxo batek, Telesforo Monzon buru, muntatu ginuen Donibanen Anai-artearen. Izen bereko biltokia ideki ginuen 1969ko ekainean. Anai-

artearen historia agertuko dut, Jainkoak nahi badu, ondoko egun batez idatziko dutan liburu batean. Orai beretik erranen dut, hamar bat urtez izan naizela Anai-artearen idazkaria eta alde hortarik banuela anitz buruhauste, bertze guzien gainera.

Beihl kontsularena

1970a zen, Burgos-eko auzi famatuaren garaia. Franco gibelarazteko Burgoeseko presoan hiltzera kondenatutik, ETA-ko batzuek bahitu zuten Donostian, Beihl deitu Alemaniako kontsula eta Anai-artearen eman zioten Alemanekin tratutan sartzeko kargua. Orduan zakur ohararen ingurura zakur arrak biltzen diren bezala trumilka, berriketariak, mundu guzitik, 25 gau-egunehurbildu ziren. Zokoako apezteixuearen ingurura.

Espainol polizia batzuk asmatu zuten nere bahitzea, bainan gizon armatuak bainituen zaintzaile, bahitzaileak urrundu ziren. Luzaz haatik, bai telefonoz, bai izkribuz, izan nituen zernahiko mehatxuak. Nere burua zaintzeko, otsozakur beldurgarri bat hartu izan dut eta gertatu zait nerone ere armatua ibiltzea. Arrats batez ezagutzen ez nuen norbaitek galdegin zaitan kofesatzea, aitortuko dut, beldurrez, ezkerrean pistola naukala, eman nion eskuinaz absoluzioa.

Katixima lekua biltoki

Anai-artearen barneetan biltzen genituen ihesliarrentzat, asko lekutarik eta bereziki mugaz bertzaldetik, heldu ziren jateko eta beztitzeko puskak. Bainan hainbertze bazen non parte bat elizako katixira lekuan ere ezarri baiginuen. Franco hil zelarik, asko iheslari etxera itzuli baitziren, oroit naiz gelditzen ziren puskak partikatu genituela eske heldu ziren behartsu guzietan.

Anartean, iheslariak berek eta heien abokatuek erabili izan dute ere elizako katixima lekua beren arteko bilkuren egiteko, nere baimenarekin, nahiz noizean behin frantses polizia jin zaien kontrolatzera, malezia gehiegirik gabe. Bainan azkenean, hasi zelarik. Baionako katedraletik, euskaldunen gose-greben garaia, gure elizaraino heldu ziren gose-greba horiek, eta hiru aldiz egin ziren Zokoan ni erretoz nintzelarik.

1.-ik, 1972an egin zen hemen lehena. Gutartean bizi ziren ihesliarrak frantses gobernuak hemendik haizatu nahi izan zituen eta protestatzeko, gose-greban jarri ziren ehun bat euskaldun, lauogei bat Baionako katedralean, multxo bat Donapaleko elizan, bertze bat Maulekoan eta sei bat hemen. Urriaren 12tik Hazilaren 18raino iraun zuen. Askok jende ibili zen grebalariekin ikusten eta sustengatzen eta goresgarri daukat, bereziki, Ros-



pide Ziburuko auzapez eta medikuaren bai eta haren etxekoen laguntza, auzapez eta mediku bezala.

2.-ik, 1976ko Eguberrietan, Baionako katedralean sartu ginen 30 bat euskaldun ezagun, gehienak adinetakoak. Telesforo Monzon-en inguruan, hiru eguneko gose-greba baten egiteko eta Herri gizoneri atzerriratu euskaldunen egoera salatzeke. Leizaola euskaldun lehendakaria, Tarra-dellas Katalana, eta Hugo Bourbon-eko Karliten burua abisatuak ziren. Bainan ekintza hau guziz nahasia gertatu zen. Tarradellas ez zen agertu. Leizaola nehor agurtu gabe agertu eta joan zitzaikun, eta Hugo printzea ez zuen utzi poliza frantsesak hurbiltzera. Gu aldiz polizak katedraletik ereman gintuen bere etxera eta berehala libro utzi. Orduan ginuen Zokoan egonaldi bat egin eta berriz Baionako katedralean bururatu itzulia.

3.-ik, 1979ko abuztuaren 9an hasi zen Zokoako hirugarren gose-greba eta abuztuaren 23an bururatu. Hortan parte hartu zuten, Juan Jose Etxabe eta haren 13 eta 14 urteko Anaiz eta Izar, bi alabek. Nahiz gauaz gure etxen hartzen genituen, gaiztaginen beldurrez, bi neskek ederki ihardoki zuten beren aitarekin eta anitz jende etorri zitzaioten ikustera. Ez da ordea ahanzi behar zer zen familia horren arazoa eta zer gertatzen ari zen aitzineko urteez geroz, Espainiako polizak, Iparralde guzian, muntatzen ari zituen bahitze eta hilketekin.

AGURTZANE-REN HILTZEA

1978ko uztailaren 7an, arrastirian, Donibaneko beren etxearen ondoan, Juan Jose Etxabe eta Agurtzane, senar emazteak tirokatu zituzten mandil batzuek. Emaztea han berean hil zen, bainan senarra, ospitalera altxatu zuten eta, hameka bala zituela gorputzean, bizirik atera zen.

Hortarik landa, Agurtzaneren gorputza Arrasatera ereman zuten eta han gaitzeko ehorzketak egin ziozkaten. Juan Jose-ren kontra aldiz frantses administrazioak hasi zuen gerla itsusi bat, euskal problemari buruzko bere politika ilunaren barnean kokatu behar dena. Hala nola, Juan Jose Baionako Ospitalera sartu orduko, polizak atera zuen berria, baizik eta Etxabe jaukitu zutela, ez batere politika arazoengatik, bertze ematzar saltsa zikin batzuegatik baizik. Gezur borobila, batzuek zorigaitzez sinetsi zutena, nahiz atera orduko, auzitara eremana zuten Etxaberen abokatuek.

Neronek berri faltsu eta okerra gezurtatu nuen, uztailaren 8an. Zokoako elizan eman nuen bederatzi-urreneko mezan. Hau izan zen

hogeita bosgarren hil-meza Zokoan eman nuena. Herriarentzat odola ixuri zuten abertzaleentzat, eta eman nuen hamabosgarren hitzaldia. Aitzineko hamalauak argitaratuak dira «Nere Mendixkatik» liburuan. Ez dut uste Agurtzane-ren meza hortara bildu zen jendeketa bezalakorik sekulan izan den Zokoako elizan.

Bizkitartean, ez du iduri poliza biziki mugitu zela hiltzaileen harrapatzeke. Izatekotz ere, meza aitzin, Baionako Suprefetak hiru aldiz igorri zaitan mezua abisatzeko populua, bere onetan hobe zuela ixil eta geldirik egoitea. Kexu-kexua adiarazi nion banekiela zer erran elizan, berak bere manuak eman zitzaala kanpoan. Mezatik lekora ordea, Donibanera buruz itzultzen zelarik jendetza, CRS-ak agerturik beren arma guziekin, izan zen zerbait kalapita, lekuko batzuen asaldatzeko doia, deus ez baitzen izanen, polizarik ez balitz agertu.

Zenbait hilabeteren buruan ordea, Frantziako gobernuak berriz piztu zuen Etxabe-ren auzia, manatu ziolarik, funts gehiagorik gabe, Frantziako lurak hustea. Orduan zaitan eskatu, bere bi haur zaharrenekin Zokoako elizan gose-greban sartzea. Hamabost egunen buruko, Bernard Marie, Miarritzeko auzapez eta deputatuari esker, ardietsi zuen hale-re bien arteko antolamendu bat izatea. 1979ko abuztuaren 23a zen. Ez zoan orohar eztitzera ihesliarren kontrako gerla.

Argalaren heriotzea

1978ko abenduaren 21ean, Angelun hil zuten Jose Migel Beñaran «Argala», gauaz bere autoan zartagailu bat ezarririk, goizean, lanera abiatzean, lehertu zitzaiona. Axunekin ezkondua zen. Haurrik ez zuten. ETA-ren buruzagietarik zen. Bihotz oneko eta izpiritu xorrotzeko gizon bezala ezagutu dut. Bizkaia Arrigorriagako sorterrira ereman zuten haren gorputza, Zokoako eliza aitzinean azken agurra eman ondoan.

Peixoto, Txomin eta bertzeak

1979ko urtarrilaren 13an, Donibanen tirokatu zuten eta itsuski zauritu Argalaren lagunetarik bat, Peixoto Arrasatekoa, eta Maiatzaren 4ean berriz, atakatu zuten Miarritzen, Peixotoren herritar eta laguna, Txomin Iturbe. Ez zuen honek lehen aldia, tirokatzen zutela, bainan oraiko huntan ere bizirik atera zen.

Zorigaitzez etsaiaren tiroek ez zuten beti huts egiten. Maiatzaren 18an, hiltzaile berek, Hendaian hil zuten Peru Larrañaga Azkoitikoa eta ekainaren 25ean berriz Baionan, Enrique Gomez Gasteizekoa.



Ondoko hilabeteetan oraino hil zituzten, abuztuaren 2an, Miarritzen, Juan Lopetegi «Pantu», Bilbokoa eta buruilaren 13an, Miarritzen ere, Justo Elizaran «Periko», Donostiakoa, bi haurren aita, gizon ona, lanari eta familiari atxikia, ongi ezagutzen nuena, gure etxen egona baitzen hamabortz egunez. Perikoren hil-meza, Mikel Epalzak eman zuen Miarritze San Martineko elizan, jendeketa handiaren parte hartzearekin.

Peru Larrañaga, Enrique Gorez eta Juan Lopetegi-ren gorputzak, beren lagun hilenak bezala, Hegoaldera ereman aitzin, Zokoako elizan gelditu ziren, elizkizun batentzat, neronek eta Anai-artearen idazkari berriak, Saint-Esteben, Donibane bikiak edo Mattin Carrère, Ziburuko bikiak, antolatzen ginuena. Horrek adierazten baitu, nik uste, noraino heltzen ziren Zokoako elizaren eremuak.

Zokoako elizaren eremuak

Zokoako elizak bazituen alabaina bi eremu nota: bat lurrezko eremua, hertzea gizonzko eremua. Lurrez, Zokoako parropia ez da handia. Bainan asko hedatu da horri lotu diren gizonz. Nere kontuen arabera, 1970etik 1980era, hamar urtez, Zokoan bataiatu dira Hegoaldeko 84 haur, eta ezkondu eskualde hartako 129 gazte. Ikus hortarik zer izan den Hegoaldeko euskaldunek gure elizarentzat izan duten atxikimendua. Zer-gatik ote atxikimendu hori?

Iduritzen zait, eliza hortako apez izan naizenetik, maiz gogoan izan dudala Azken Jaiamendua. Jainkoak orduan, bertzeak bertze, galdetuko daiku zer harrera egin diotegun kanpotiarrei. Oroitu behar ginuke ere, Familia Saindua iragan behar izan zela mugaz bertzaldera, Herodesen politikari ihes egiteko. Eta azkenean kanpotiarrei ongi etorria egiteko eginbidea ez ote da zorrotzago, kanpotiar hori delarik gu bezala euskalduna eta giristinoa?

PROPAGANDAREN INDARRAK

Zer ez dute bizkitartean egiten propagandaren indarrek, hots, gobernuen eta aberatsen eskutik diren irati, telebista eta kazetek?

Franco-ren denboretan, ETA-ko lehen ihesliarrak etorri zirelarik gutartera, preso hartuak izan ziren anitzak, jujatuak eta gaztigatuak edo berdin, jujatu gabe ere, hemendik haizatuak. Geroztik ez da ixildu ihesliarren kontrako gerla.

Hastapenean, propagandak zioen, denak komunistak zirela, denak gaiztaginak. Gero erran da, hemen bazter nahasle bertzerik ez zirela. Jasan behar izan zituzten krimak ere, heren gain ezarri dira. Propagandaren lana, zenbat giristino eta apezek ez dute irentsi eta beren inguruan hedatu?

Zorionez, denborarekin, begiak ari dira idekitzen eta herritar asko iratzartzen. Hor gandi dabilen gaiztagin zenbait harrapatu dituzte eta Periko hil dutelarik, Bordeleko polizak hatzeman ditu bortz mandil, lau frantses eta espainol bat. Noizbait bederen jendea ohartuko da nun diren egiazko bakea nahi dutenak, eta nun ez diren.

Hendaiako gose-greba

Alta bada, 1979ko urtarrilean hartu ihesliarren kontrako erabakiak, frantses gobernuak ez zituen aldatzen, heiek geroztik jasan erasoen ondorekin. Azkenean, 35 lagun, 19 gizon eta 12 emazte, Miguras erretoaren baimenarekin, gose-greban sartu ziren, 1979ko abuztuaren 20ean, Hendaiakoa Santa Anako elizan. Hau izan da, orain arte Ipar Euskal Herrian egin den grebarik luzeena eta gogorrena: 35 egun iraun du, buruilaren 23 arte.

Ni ere, operatu berria izanagatik, greba hortan sartu naiz, buruilaren 10ean. Buruilaren 15ean ordea, ospitalera ereman naute, eta ospitalerakotan, Suprefetaren etxe aitzinean iragaitean anbulantziarekin, ardietsi badut ere Suprefetarekin mintzatzea, nere protesta adierazteko lagun guzien ize-nean, ez zait iduri frantses gobernu biziki higitu dela gure greba horren-gatik: preso zenbait libratu ditu, bainan paperik gabe utzi.

Polizaren miaketak

Bertzalde, goiz batez, etxera sartu zaizkit zazpi poliza-gizon. Bordele-tik jinik, legezko ageria eskutan, nere etxea eta inguruak miatzeko jujearren baimena bazutela erakusteko. Horra nola zazpi gizon ari izan diren zazpi orduz, nere etxearen, elizaren eta inguruen miaketan. Ez da lehen aldia, bainan hirugarrena, holako miaketak egiten daizkidatela. Eskuak hutsik joan dira oraikoa ere.

Orotan bezala, hemen ere poliza ari da buruzagien erranetik, bainan ohartzeko da hemen ditugun buruzagi horiek, Prefet eta Suprefet, Parisetik igorriak, ez direla euskaldunen adiskideak eta gora igortzen dituzten gure berriak ez dira gure aldekoak. Hola hobeki konturatzen gara ez direla gure aferak Parisetik gobentatu behar, bainan hemendik eta guk hautatu buruzagiekin.



AZKEN BERRIAK (1979)

Dena dela, 1979ko buruilean, azken lerro hauk idaztean, nere etxe-ko eta parropiako zenbait berri eman behar ditut oraino: Vincent Baionako apezpikuaz, apezlagun bat edo bertzeez eta Zokoan berean edo Zokoako elizan ezagutu ditudan presuna batzuez.

Hirugarren konfirmazionea

Jadanik aipatu ditut Zokoan izan genituen lehen bi konfirmazio-neak. Hirugarrena ukan ginuen 1974eko apirilaren 20ean, arratsaldez. Egun hortan, Vincent Baionako apezpikuak konfirmatu zituen 18 Zokotar.

Apezpikuak berekin ekarri zuen Baionatik Emilio Laxague, bikari jenerala. Nere aldetik, ekarrarazi nuen Hendaiatik, neri laguntzeko, Mixel Daguerre, ez baitzuen oraino ukana ondotik izan duen istripu ikaragarria.

Nere mintzaldian, konparatu nuen apezpikua amiral bati. Zokoako eliza zen barku bat; ni horren lemazaina. Elizako girstinoak nere bornuko lagunak. Denak, gainetik beheraino ginen Jainkoarentzat arrantzan ari, ekaitz berekin borroka, eta holako...

Elizkizunen ondotik, aperitifa eman ginuen katixima lekuan, nahi zuten guzientzat. Zokoako emazteek gostu handiz apaindua zuten sala.

Afaria, apezetxean egin ginuen. Apezpiku eta apezzez bertzalde, gomiatu nituen hiru arrantzale: zahar bat, erdi adineko bat eta gazte bat. Baitzen orduan anitz gorabehera gure portuan, hiru arrantzaleak ari izan ziren, beren amuetara apezpikua tiratu nahiz, bainan debaldetan. Ez zuen heien apastarik jastatu nahi. Iduri zuen edo nekatua zela edo beldur. Jan-eta berehala joan zen. Ez zaikun haatik horrek omere ona kendu: gaitze-ko irri-karkailak atera genituen gure artean, hura joan ondotik.

Laguntzaileak

Askok laguntzaile izan ditut, zorionez. Zokoako elizan, nere inguruan. Lehenik apezak, nonahitik heldu zirenak bakantzen iragaitera. Ez zirelarik bakantzak, anitz aldiz izan zaizkit adiskide on batzu, hala nola, aipatu ditudan Mixel Daguerre, Saint-Esteben Donibaneko bikaria edo Martin Carrère Ziburukoa, bai eta igandetan maiz Roger Idiart, orduan irakasle zena eta bere erretor apendizgoak Zokoan egin dituenak.

Eliza aipatzeko eta garbitzeko, irakurketak eta eskeak egiteko, errexki biltzen nituen lekuko girstinoak. Laguntza paregabea eman daitate sakristiako lanetan, Mahet eta Grillard, bi andereek. Musikalari bezala, harmoniumean ari ziren hastapenetik. Untxin-baitako alaba eta Adam-baitakoa. Ondotik etorri da, Jean Michel Colson, elektronikalaria, hama-bost urtez, eta azkenik andere Hapette Ziburukoa.

Atsegin eta atsegabe

Erretor nintzelarik poz handia izan dut, ikustea Mayi Ortiz, arrantzale alaba, osoki Zokotarra, misionest joaten Hego Ameriketara, bainan pena handia ukan dut ere, nere ordaintzeko apezik ez uztea.

Bizkitartean bazen apezgai bat Zokotarra, kasik apeztua, noiz eta ere, berak eta bere lagun batzuek Seminario handia utzi behar izan baitzuten, euskaldungoari gehiegi atxikiak omen zirelaket.

Zer gertatu zen xuxen? Nik baino hobeki kondatu eta kondatuko dute apezgai izan horiek. Nere aldetik, eginahal gauzak egin nituen gauzak ez hortartzeko, bainan bertze batzu ziren manatzaile. Gure Seminario handiko historian, gertakari horiek tinta beltzez markatzekoak izan dira.

Katiximako haurrak

Nere bizian, apeztez geroztik eta lehenago ere, asko iritzi eta jokamolde entzun eta ikusi ditut, nola behar litekeen haurreri katixima erakatsi. Eta nere iduriko fedezko erakaspen guzien helburua da gizona Jainkoari lotzea. Lokarri horiek izaten dira adinaren arabera, adin bakotzak baititu Jainkoari lotzeko molde desberdinak.

1.-ik, Haurrean, familiaren bitartez sortzen dira Jainkoarekin harremanak. Haur tipien familiez arta berezia hartzen nuen. Etxekoek hautatzen zuten beren haurraren bataiatzeko eguna eta ordua. Berek ziozkaten erakasten lehen otoitzak haurrari. Berek erraiten lehen komunionea egiteko eguna.

2.-ik, Konfirmazioneko eta Komunione Handiko garaia. Haur kozkurtuak Jainkoarekin harremanak egiten ditu elizaren bitartez, hots, katixima egileen eta apezaren bitartez. Nahiko nuen beraz adin hortako haurrek izan zezaten nitaz «Jesus bezalako norbait» nintzelako iduripena. Eztia eta zuzena agertzen nintzen haur horien aldera. Bainan ez baita gauza bera jakintzazko gaien eta fedezko egien erakastea, katixima aitzinetik eta ondotik otoitz egiten ginuen fedearen eskatzeko. Eliza-gizona ez da bakarrik bihozdu, behar du ere izan fededun.



3.-1k, Adinetara helduak, buruz-buru sartzen dira harremanetan Jainkoarekin. Bainan beti gogoan atxikitzen ditugu denek haurreko eta gazte denborako oroitzapenak. Horra zergatik, beti uste izan dudana, nere apez-lan guzietan baliosena zela haurren altxatzea girstinoki. Nere atsegin handienetarik bat zen, nerekin katiximan ibili haur handituak neregana jiten ikustea, ezkontzeko edo zernahitarako. Baziren nonahi barreiatuak eta batzuetan kirolari ezagun bilakatuak, hala nola Jean Michel Capendeguy rugbilaria, berriki hila, Alain Berrouet rugbilaria, Jean Talgorn pilotaria, Lehoerff hiru anaiak, American-Cupean parte hartu zutenak.

ZOKOAREN FAMA

Bainan Zokoaren fama asko zabaldu baita azken 50 une huntan, ez dezaket utz solas hau aipatu gabe. Nik bezala, Zokoako xokoari zerbait fama ekarri dioten bertze bi presuna izan dira nere ustez: Ganix Alzate eta andere Margot.

Ganix Sansebastian Alzate jadanik aipatua dut. Haste hastetik hor baitzen elizako lanetan. Alzate-baitan ezkonduarik, Kattalin horgo alabarrekin, izen handiko enpresa muntatua zuen berak, 1914eko gerlaren ondotik, eta gaur, haren sei seme-alabak Zokoan ezkonduak dira eta hor bizi.

Margot anderea aldiz, etorkiz Olaskoaga, Hondarribitik ateratzen da. Nere ustez Italiano zen Dherin izeneko hargin batekin ezkondu zen. Haur multxo bat ukan zuten. Arrain salerosketan ari zen bera Hendaian eta mugaz haraindian. Gero arrain freitua eta saltsatua saltzen hasi zen Zokoan, bere «ttoro» famatua.

Halako nortasuna zuen etxekandereak non «Chez Margot» aipatu baitzen Pariseraino. Oroit naiz Pariseko soldado denboran, 1933-1934ean, haren erreklama ikusirik «Aux Ambassadeurs» hotelean.

Geroztik, Zokoako ostatu eta jatetxe askok baliatu du ederki Margot anderearen etxeak bildu ospea. Gehiago dena, neronek bezala, behartsu frangok ezagutu du horgo etxekanderearen bihotz ona eta esku zabala. Orai Margoten lau haurrak, ezkonduak, eta bakotxa hiru haurrekin Zokoan bizi dira.

Ez ditut aipatuko Zokoan bizi izan diren bertze jaun andere batzu, hala nola kontserbategietako nagusiak, ez direlaketz herritarren bizian sartu.

Nitaz berriz, neronek espantu egitea, ez liteke pollit. Hori bertzeen gain uzten dut. Erranen dut bakarrik, 1979 huntako buruilaren 1.az geroz, ez naizela gehiago Zokoako erretor. Ziburuko parropiako apezek naute ordaintzen.

Berrikitan operatua, erdi herrestan, beti etxe berean, Zokoan bizi naiz. Bertzerik ezin eginez, liburu hau idatzi dut. Orai deskantsuan nago, heriotzearen beha. Hiru metro lur erosiak baditut, Zokoako hilerrietan. Nere nahia da, hor chortzia izatea.

Ez dakit zer behako egingen dioten jendeek nere hilobiari. Nere atsegina liteke, lehenik irriño bat egin balezate, nitaz oroitzu, eta ondotik, otoizño bat neretzat.

Piarres Larzabal
(30-IX-1979)